

Erkizia: «'Azkuna planak' gizarteko txiroenak zigortu nahi ditu» / 8

Veil eta Mehaignerie ministroek 'Pasqua legea' aldatu nahi dute / 14

Muruamendiaraz eta Agirre irabazle Dantza Askatuko Txapelketan / 25

EUSKALDUNON Egunkaria

Asteartea, 1993ko ekainak 22 / IV. urtea / 787. zenbakia / Salneurria: 90 pta. / 5 libera

FUTBOLA

Agur Atotxari

Hiru orduko jaialdi bereziarekin azken agurra emango zaio gaur iluntzean Atotxa zelai zaharrari. Beste zenbait ikuskizunen artean, Realak euskal selekzioaren aurkako partidua jokatuko du, zortzi t'erdietan hasita. / 19

Babes sozialerako politika auzitan jarri du John Majorrek Kopenhagen

John Major Erresuma Batuko lehen ministroak Europako Komunitatearen politika soziala gaitzetsi eta gastu sozialak murriztea proposatu zuen atzo Kopenhageko gailurrean, Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakariaren azalpenei egindako erantzunean. EK-ko beste gobernuburu eta estatuburuen sostengua ez zuen lortu ordea, eta politika sozial horrek ekonomi krisian eragina duela aitortu arren babes neurriei eusteko asmoa agertu zuten agintari europarrek.

Aurretik, Jacques Delorsek EKren konpetitibitate galeraren zergatiak azaldu eta krisiari aurre egiteko proposamen zehatzak egin zituen. / 15

Eztandak bete-betean harrapatu zuen furgoi militarra eta erabat suntsitu zen suak hartu ondoren. EFE

Sei militar eta zibil bat hil dituzte Madrilen atentatuan

Ustez ETAk eragindako bi leherketek 25 lagun zauritu dituzte

Sei militar eta zibil bat hil ziren atzo goizean Madrilen bonbaauto baten eztandak bete-betean harrapatuta. Atentatu honen ondorioz 22 lagun zauritu ziren, eta beste hiru pertsona zauritu ziren atentatugileek erabilitako autoa ordubete geroago lehertzean. Hildakoak Espainiako Armadako lau teniente koronel, fragata kapitain bat, sarjentu bat eta furgoi militarra gidatzen zuen zibila dira. Hogeita bost zaurituetatik lau oso larri zeuden atzo. Itxura guztien arabera ETA izan zen leherketaren eragilea.

Atentatua goizeko 8.15ean gertatu zen. Sei militarrak eta zibila furgoi militarrean Estatuko Batzorde Nagusiko egoitzarantz zihoazela, lehergailuz betetako Opel Corsa autoa lehertarazi zuten urrunetik. Ibilgailu militarra bete-betean harrapatu zuen eztandak eta erabat suntsitu zen suak hartu ondoren.

Arratsaldean ezagutu ziren zenduen izenak: Lur Armadako Fidel Davila Garijo eta Javier Baro Diaz de Figueroa teniente koronelak, Aire Armadako Juan Romero Alvarez eta Jose Carretero Sogel teniente koronelak, Domingo Olivo Esparza fragata kapitaina, Juan Manuel Calvo Alonso sarjentua eta Pedro Robles gidaria.

Zauituen artean 8 urteko Juana Cañizo eta 20 urteko Maria Antonia Mezquita zeuden egoera larrienean —hiltzeko arriskuan medikuaren esanetan—. / 4

Gonzalez: «Beti bezala ETAren asmoa desestabilizatzea izan da»

Espainiako eta Hego Euskal Herriko agintariek eta alderdi gehienek gogor gaitzetsi zuten atzo Madrileko atentatua.

Felipe Gonzalez Espainiako Gobernuko jarduneko lehendakariak «hilketa izugarritzat» jo zuen atentatua. Atentatuaren erantzulea ETA dela eta «beti bezala ETAren asmoa desestabilizatzea» izan dela gaineratu zuen Felipe Gonzalezek Kopenhagen egindako adierazpenetan. / 5-6

BESTERIK

EKONOMIA

Aurrezki kutxek kostuak gutxitu behar dituztela dio Espainiako Bankuko gobernadoreak / 12

NAZIOARTEA

PDS eta Legak lortu dute garaipena Italiako hauteskunde partzialetan / 17

KIROLA

Kroazia da faboritoa gaur Alemanian hasiko den Eurobasketean / 20

KULTURA

Margaret Price bakarlari irlandarrak Bilboko Arriaga antzokian abestuko du gaur Musikaldiaren barruan / 24

INOIZ BAINO JENDE ETA DIRU GEHIAGO BILDU ZUEN ARABA EUSKARAZ JAIAK [illegible] AUDIO[illegible]

Abertzaletasuna eta praktikotasuna

MARTIN UGALDE

BESTE bidagurutze batetan dago Euskal Herria: herri bezala ala partidu bezala jokatu. Orain artean banandu gaituena Estatu guztiahalduna izan bada, orain Europa da. Sentsazioa, betikoa: zatiketako ahulezian etsi. Hau da egiazko auzia. Bidetxurrak anitz eta tentagarriak dira, eta Euskadi eraikitzeko bidea, zaila. Ados nator, noski. Baina, bestalde, abertzaletasuna ez da praktikotasuna. Sabin Arana ez zen hau aldarrikatzen jarri, hala izanez gero ahaztua zegoen dagoeneko. Sarri aurkitu gara herri bezala erabaki zailaren aurrean. Askotan pentsatu dut Espainiako Errepublika suntsitzekotan leherrarazi zuten altxamenduaren aurrean historiak zer kinketan jarri gintuzten. Geure abertzaletasunaren kontzientzia, Arana Goiri hil eta hogeita hamahiru urtera (1903-1936) egiatan egosten ari zenean, Armadagandik eta Elizagandik joatea errezago zen gorriska eta arriskugarria zen askatasun bidetik jotzea baino, eta halere gure herri zaharrak 32 urteko gizon gazte baten eskuetan lema uztea erabaki zuen. Izan genituen aukera gaitzetsi zutenak, eta oraindik ozenkiago 40 urteko nekaldi izugarriak iraun zuen artean. Baina ongi erakutsi zuen Euskadik bere borrokaren zentzua, eta Agirre buru zuen Herria ta Europak eta Mundu guztiak ezagutu zuena, eta honek eman zigun garai hartan, eta ematen digu gaur ere, zilegitasuna munduaren aurrean askatasuna berreskuratzeko. Batasunean ezina bada ere, gure arteko tolerantziaz egindako puntuetan adostasuna lortuaz!, pausoz pauso. Eta gaurko giroan bide praktikoa nahi duen euskalduna entrega dadila zuzenean Madrilen.

Superrasperraldia

GARBIÑE UBEDA

SASIFILOLOGOREN bati akaso jolasa irudituko zaio 'super' aurrizkia hartu eta hitzak osatzea. Niri, berriz, jolasa baino, barrabaskeria iruditzen zait. Batez ere, superraren kulturak, Atila baino egoskorrago jarrita, bazterrak inbaditu zituenetik.

Inbasio horren hainbat adibide. Mugaren alde batekoek ez dute zertan beldurturik, Boslé super komisarioak gaitz guztietatik libratzen ditu. Mugaren beste aldekoak super Felipek gobernatzen ditu, eta Arzalluzen laguntza lortzen baldin badu, batzuen ustez, hobe. Aitortzea kosta egiten baldin bazaigu ere, ia denori gustatzen zaizkigu Super Garcíaren superlotsagabekeriak. Erosketak normalki supermerkatuetan egiten ditugu, dena eskuberan jartzen baitigute, eta bertan, aukeran, superzuritasuna ziurtatuko diguten garbikariak hobesten ditugu. Inor baztertua sentitzen baldin bada, egon dadila lasai, Ertzantzaren superkonputagailua ez baita berarekin ahantziko.

Denetan asaldagarriena, ordea, gure supermanaren kasua da. Super Lopez de Arriortuarena, alegia. Gure jainko berriaren ospea Nafarroako Super Lehendakariarena bezala pasatuko zenaren esperantzan nintzen. Hura ere ez da makala, zerua gainean erortzeak bakarrik beldurtzen omen du. Baina txapela galdu zuenetik edo Aizpunek anestesiatu zuenetik apal-apal dabil.

Juan Cruz Alliren muskaltzearekin kontsolatuxe nengoen atzo arte. Lagun gaztetxo bati «zer moduz herriko festak» galdetu eta «superguai» erantzun zidanean, superrarekin konforme ez gaudenok garai hobeak heldu arte itxaron beharko dugula esan nion nere buruari etsita.

HEMEROTEKA

● EL PAIS

Hobe itunarekin

Egunotan Frantzian agian Europako lan eredua agortzen ari dela iradoki dute. Horren aurrean Estatu Batuetakoa agertzen ari da: langabe gutxi baina soldata txikiak, langilearen mugikortasun handia eta gizarte babes urria. Europako modeloa Europa eraikitzeko prozesua itxuratu duen tradizio bikoitzaren —sozialdemokrataren eta demokristauaren— funtsezko zatia da eta, horregatik, bere defentsa europar proiektuarekin identifikatu egiten da. Baina egia da lan merkatua baldintza berriei —besteak beste, kostu txikiagoz gauza bera ekoizteko kapaz diren herrien konkurrentziari— egokitu gabe nekez gainditu ahal izango dela konkurrentzialtasunaren narriadura, langabeziaren hazkunde azkar baino azkarragoaren atzean dagoena.

EDITORIALA

GALLEGO & REY / DIARIO 16

● EL MUNDO

Tontoa ituna izenpetzen ez duena

Egia da adostasunaren bilaketak erraztu egin dezakeela politika zehatz baten aplikazioa, baina horren arrakasta edo porrotak ez dauka zerikusirik bera onartzeko prest daudenen kopuruarekin, zuzena ala okerra izatearekin baizik. Medikazio oker batek ez du inoiz benetan sendatuko, gaixoak hori irenstean ilusio handia jarriagatik ere.

EDITORIALA

● egin

Oinarrizko ametsak

Eguneroko errealitatearekin bat ez datozen ametsak. Izan ere, errealitate hori, gaur Madrileko aretoetako eta *moncloar* bileretako itun eta lausengatzeei esker nolabaiteko protagonismoarekin hasi duen aste hau, oso gogorra egingo zaio EAJri ikusten duenean PPk Euskal Herrian dituen diputatuak Strasburg bisitatzen dutela Leo Tindemansen europar bedeinkapena jasotzeko. Beren nazioarteko monopolio demokristaua hain arreta handiz gordetzen zuten jelkideek berriro ere ikusiko dute nola homologatzen dituzten Aznarren jendeak Internazional Demokristauan.

Gero, presioak etorriko dira zentroeskuineko tarte bera betez betiere elkarri bizkarra emanez ezin jarrai dezaketen bi alderdien taktikak eta estrategiak hurbiltzeko. Hori izango al da batasun nazionalista?

J. IRATZAR

ZUZENDARIARI

Txofre kaleko izenaren aldaketaren erabateko gaitzespena

Ordoñez, Larrañaga eta Beloki jaunak:

Txofre kaleko auzolagunok ez dugu nahi bere izen-aldaketa.

Ordoñez jaunak esan duen bezala, badago dagoeneko enparantza bat Txofre izenarekin; hala ere eta kontuan izanik badaudela enparantza eta kale batzuk izen berarekin: Easo Kale/enparantza, Usandiazaga Kale/enparantza, Zubieta Kale/enparantza, San Marcial Kale /enparantza... eskatzen dugu Udalak egin eta Ordoñezek, Larrañagak eta Belokik sinatutako proposamena aproba ez dadila.

Aipatutako kale eta enparantzak elkarren ondoan daude. Txofre kalea Txofre enparantzetik hain urrun dago errakuntza garrantzitsuak sortzeko?

Ekainak 9 irrati saio batean, Ordoñez jaunak esan zigun proposamenaren aurka lortutako sinadurak aurkez genitzan: Bi egun besterik ez dugula izan horretarako, 520 sinadura lortu ditugu. Gutxi iruditzen zaizu?

Jaunak: Kontuan izan ezazue auzolagunon eritzia, afektatuak geu bait gara.

MARIA ANGELES CENIZOS

Donostia

Eibarko saihesbidea

Joan den ekainaren 16ko EGUNKARIAn Eibarko saihesbidearen inaugurazioaren berri eman zenuten. Berri neutral eta aseptikoa eman zenutela irudituko zitzaizuen agian, kolore jakinik gabea: 'ilustraziño' handirik ez da behar ordea ustezko kolorerik eza ere kolore bat dela jakiteko.

Ez duzue ematen saihesbide horren aurkako protesta-ekintza eta mobilizazioen berririk batere; soil-soilik trafikoa 'arinduko' omen duela, inaugurazioetan esaten diren hitz zuri ederrekin geldituz. Aurrerapenaren hondamendiak ez dira Leitzaranen bukatzen.

Azkenik, esan behar dizuet Eibarren ez dagoela 'Geltokia kalerik', baizik eta kale horren izen jatorra Estaziño kalea dela, saihesbide bedeinkatu horrek behin-betiko hondatu nahi duena, hain zuzen.

E.K.O.

Eibar (Gipuzkoa)

GAIA JARRITA



Barcelona

Madrilek gaur arte
txit bide erraza,
baina Tenerifek
hausti dio ratxa.
Hargatik irten da
irabazle Barça.
'Buitre' ere ez da
xoxotikan pasa...
lastima tartean
dagoela Lasa!

RUFINO IRAOLA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90

OJDk IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE
Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI
Kontseilari Ordezkaria: IÑAKI URIA
Gerentea: FERMIN LAZKANO
Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI
Zuzendariordea: LUZIEN ETXEZAHARRETA
Zuzendari Komertziala: JUAN INAZIO HARTSUAGA
Sustapena: NEREA AZURMENDI
Publizitatea: MARI JOSE SARASA
Espainiako Publizitatea: PUBLICITAS
Capitan Haya 1 2.a 28020 Madril ☎: 91 555 11 01 / Faxa: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93
Egoitza soziala, Publizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57
Araba: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73
Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77
Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo/ ☎: 423 90 62/ Faxa: 423 94 60
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila, / 64105 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11

Helburu berberak

HAUTESKUNDEAREN bidez bakarrik, ez ditugu gure arazoak konponduko. Hau ez da berria baina tarteka oroitu beharra.

Gaude ginen bezala, danak ditugu gure aurrean aurka, bide luze eta latz honetan. Benetazko gauza guti aldatuko dira hauteskunde emaitzarekin. Aspaldiko galderak erantzun beharrean daude eta gaude. Horregatik Euskal Herrian nozitzen ditugun arazoak aztertzen hasten garenean, berehala sortzen zaigu galdera: ba ote da irtenbiderik?

Batzuek, gutik (baina badira honelakoak), honela erranen dute: «konponbidea erraza da, nola edo hala, jende hori kontrolatu». Konponbide honen aldekoak guti dira, baina hain zuzen ere horixe da PSOE+EE eta PPk pizten duten bidea, Euskal Herriaren okupazio politiko eta militarreko ate guztiak zabaltzen dizkietelarik horrela pentsatzen dutenei.

Beste zenbaitek, berriz, hau guztia konpondezakeenik ez dela sortu ezta sortuko ere uste duzue. Zuek beharbada, Franco hil zenean «Behin otsoa hil ez dela ardi hilik gehiago izaten». Ez zen hala gertatu eta gaur ezina zaizue Euskal Herrian zer gertatzen ari den ulertzea bera ere.

Baina hemen gaude eta aunitz gara (hauteskunde autonomikoetan ikusiko da), Euskal Herrian irtenbide itxurazkoa lortzearren zernahi egin behar dela uste dugunok. Irtenbide hori Euskal Herria eta Estatu espainiarraren arteko negoziaketa politikoak ekarriko duela uste dugularik.

Estatuko botere politiko eta faktikoek egin behar duten gure Herriaren lehen lehenengo eskubideen onarpenak, gainera, oinarri tinko, okerrezin eta argiak behar ditu. Interpretatua izanen denean ez du inolako zalantzarik izateko aukerarik eman behar, Moncloako Estatutuarekin gertatu zaiela erraten duten moduan.

Era berean, oinarri tinko horiek ez daitezke arbitrarioak izan. Hau da, gure Herriak dituen arazorik nagusienak ikutu behar dituzte, hala nola errepresioa, langabezia, krisi ekonomikoa, korrupzioa, euskararen atzerakada eta zinez bai errepresentatzaile bai demokratikoak izan beharko luketen instituzio politiko batzuen eza.

Nik uste, oinarri tinko horiek, gaur herriak aldarrikatzen dituenak, jasotzen dituen bakarra KAS Alternatiba dugu.

Franco bizi zelarik, orduko alderdi espainiarrek, PSOEk berak batipat, gure arazoekiko irtenbideak agindu zizkiguten. Gero ordea gure errebindikazioekin joan gatzaizkienean, ukatu egin digute orduan agindutakoa. Hori aski ez izanik, desestabilizazioaren bila gabiltzala leporatu digutelarik gainera. Zer erran nahi duen desestabilizazio hitz honek? Beraien ustez botere faktikoak hasarre litzakeen zernahi egitea.

Guzti horregatik, beraz, gure alternatibak jasotzen ditu gure Herriaren errebindikaziorik funtsezkoenak, bai, 1977 urte hartan Erreforma espainiarren arauak egiten ari zirenean, botere faktikoak bazterrerazi eta debekatu zituztenak. Gero berriro, 1982an, 'tejerazoak' ezarri zituen mugaketa haien ondorioz aipatu izan zirenak, eta ez dugu ahaztu behar urte horretan bertan egin zela PSOE Gobernu espainiarren jabe.

Krisi ekonomikoa dela eta modako hitz bihurtu da 'errekonbertsioa', gure artean fama gehiegi hartu duelarik zoritxarrez. Hitz honen esanahia garbi ikusi da industri munduan, ez bait du langileen bizimoduaren okerragotzea besterik ekarri.

Konzeptu honek gaur egun egiazkoa den krisi ekonomiazko egoera latza ematen digu aditzera. Baina ez da bakarra, badira halaber krisi kultural eta politikoa ere. Beraz, krisi ekonomikoa dela eta, hartzen dituzten neurriekin batere ados ez egotea eta berpizkunde nazionalerako alternatiba oso bat eskatzea, gaur bidezkoa dela uste dugu.

Aunitz gara gaurko egoera honi erremedioren bat jarri behar zaiola uste dugunak, bestelako konponbideak nahi ditugu ordea, gaurkoak ez bezalakoak eta benetan litezkeenak. Hartu behar diren neurriak gainera, bizi dugun egoera larri honetatik ateratzeko eta Herri bezala bidenabar suspertu gaitezen, berreraikuntza nazionalerako programa baten puntuak izan beharko lukete.

Gure Herria eraikitzeko, horrenbestez, ezinbestekoa da arazo guztiei legebide demokratiko argi batez egoki erantzuteko gauza izanen den eremu politiko berria. Euskaldunok arazo hauei egoki erantzunen dien instituziorik izan ez dezagun, Madrilek betidanik erakutsi duen jarrera aski ezaguna bazaigu ere.

Gure Herria ez dabil pribilejioaren bila burrukatzen, ez dugu justiziaz gurea dena besterik eskatzen. Ez dugu mugak zabaltzerik eskatzen, Euskalerriaren lurraldea errespeta diezagutela baizik.

Ez dugu inor gure esanetara jarri nahi, gure erabakitzeko ahalmena eskatzen dugu eta erabakitzen duguna errespetatua izatea, hori besterik ez.

JOSU IRAETA
DIPUTATU OHIA

Atzerritarren eskubide eta askatasunak

LEHENDABIZIKO Atzerritartasun Erret Dekretua 1852. urtekoa da. Une hartako gizarte eta politika errealitatearen arabera egindako araua. Argi eta garbi adierazten zuen zein zen atzerritar eta zein ez, eta zein eskubide zituzten azken horiek. Geroagoko garaietan beste hainbat arau eta legek ere arautuko zuten gai hori: 1855eko asilo Legea, 1876ko Konstituzioa, 1889ko Kode Zibila, 1958ko Atzerritartasun Legea, hala nola Gobernuak erabakitako beste arau eta xedapen ugari, Estatuan atzerritarrak sartzea, egotea eta bizitzea arautuz joan direnak. Harrigarriro, Francoren diktaduraren erdian, 1958an, egindako Atzerritartasun Legeak estraditatze pasiboa arautzen zuen kasik indarreango Atzerritarren Askatasun eta Eskubideei buruzko Legea 1985. urtean onetsi zen arte... ez zuen estradiziorik onartzen delitu politikoengatik, nagusi zen nazioarteko jokabideari jarraituz... Gainontzeko xedapenek, zatika eta era desberdinetan, lan baimenak arautu dituzte 1985. urtera arte. Aipamen berezia merezi du erregimen berezitan Hego Amerika, Portugal, Brasil, Andorra, Filipinak, Ginea eta abarreko herritarrei emandako tratamenduak.

Hala ere, Espainian atzerritar direnen eskubide eta askatasunei buruzko uztailaren 1eko 7/1985 Lege Organikoak —argitaratu zenetik aurreko lege eta arauak baliogabetu zituenak— xedapen zehatzak jasotzen ditu berorien Betetze Araudiarekin batera, eta baita Atzerritarren eskubide eta askatasunak ere.

Lege honek, oro har, atzerritarren erregimen orokorrari buruzko ikuspegi orotarikoa ematen du, nahiz eta kontuan hartu eta aipatu egiten dituen nola nazionalitaterik gabeko atzerriko herritarrengan hala Espainiak kolonizatu zituen herriekin zerikusirik izan duten nazionalitate jakin batzuetakoengan eragina duten erregimen bereziak.

Funtsean, lege honek oro har balorazio negatiboa merezi du, zeren eta lan egiteko eta bizitzeko eskubidearen moduko gaietatik ondorioztatzen diren alderdiak, errealitatean, balorazio politikoetan gerta daitezkeen gorabeheren arabera mugatzaile eta murriztailea den oso alderdi garrantzitsu bati lotuta baitaude, hain zuzen herriko egoera sozio-ekonomikoari, enpleguari, elkarrekikotasun erregimenari, egoiliarren sustraitzea inolaz ere kontuan hartu gabe. Aipamen berezia merezi du, legearen arabera eta praktikan, etorkinak ohiltzeko posibilitateek mugarik ez izateak. Badago nabarmen negatiboa den eta giza eskubideei dagokien alderdi bat, alegia oso gaitasun judizial urria dagoela etorkinak ohiltzeko erabakietan esku hartzeko, behintzat herrian legez kanpo bizi diren etorkinen kolektiboaren kasuan. Harreman historiko-kolonialaren ondorioz erregimen bereziak aplikatu zaizkien herrietako etorkinei dagokienez, une hauetan horien eskubideak murriztu egin dira eta lehentasunezko tratua besterik ez dute jasotzen. Aipamen berezia merezi dute Ceuta eta Melillan bertako herritarrekin planteatuta dauden arazoek.

SOS Arrazakeria eta beste hainbat GKE (Gobernuz Kanpoko Erakundeak) bat datoz 1985eko Atzerritartasun Legea deritzonari buruzko ikuspegi horrekin. Estatuko administrazioak egitura horren baitan eta hori erabiliz jarduten du, Legeak ahalbideratzen dion nahi bezalako aplikazioa eginez. Jatorri guztietako ehundaka etorkinek Gasteizen, Tuteran, Bilbon... jasandako atxiloketa eta deportazioek ezin argiago erakusten dute Atzerritartasun Legea Askatasun eta Eskubideen Lege bat izan beharrean garbiketa etnikoko operazio bat dela eta, egin dutenagatik baino gehiago beren egoeragatik, etorkinen defentsa gabezia eragiten duela, horiek delinkuente bihurtuz. Testuinguru horretan oso botere handia ematen zaio poliziari nahi duen bezala aritzeko. Horixe erakutsi du Poliziako Sindikatu Bateratuak (SUP) berak Madrilen etorkinen aurka egindako sarekadei buruz azaldu duten kontrako jarreraren bidez.

FEDERICO GARCIA GONZALEZ
EUSKAL HERRIKO SOS ARRAZAKERIA

● Erredakzioan itzulia

BERRIAKZIRI

FLOREN AOIZ
Herri Batasunako bozeramailea
EGIN

«Madrilek, hartzaren larrua hil aurretik saldua zuenak, gogoeta egin behar du»

JESUS AIZPUN
UPNko lehendakaria eta Nafarroako diputatua
EL MUNDO

«PP eta IU berriro ere oposizioan egongo dira, nazionalista guztiak, Gobernuan edo hortik kanpo, PSOEren aurka joango direlako»



MARIO ONAINDIA
PSE-EEko senadorea Gipuzkoatik
EL DIARIO VASCO

«PSE-EE euskaldun mundura zabaldu behar da»

JOSE MARIA CUEVAS
CEOEko lehendakaria
ABC

«Inbertsioak urtebete baino gehiago darama geldiarazita eta ez bada funtsezko aldaketarik egiten ekonomi politikan, horrela jarraituko du»

ZAKILIXUT

© Olariagak

Atentatua Madrilen

Zazpi hildako Madrilen Armadako furgoi baten kontrako atentatuan

Sei militar eta beren gidaria dira hilak eta 25 lagun zaurituak

Sei militar eta beren furgoia gidatzen zuen zibila hil ziren atzo eta hogeita bost pertsona zauritu Madrileko erdigunean bi bonba-auto eztandarazi zituztenean. Lehenengoak bete-betean hartu zuen Estatuko Batzorde Nagusiko egoitzara zihoan furgoi militarra. Atentatugileek erabili zuten autoa handik ordubetera lehertu zuten.

MADRIL

Espainiako Armadako lau teniente koronel, fragata kapitain bat, sarjentu bat eta gidari lana egiten zuen zibila dira atentatuan hildakoak. Guztiak Nissan-Vanette furgoi militarrean zihoazen, baina ez zeraman Armadako inolako zeinurik eta matrikula ere plaka zibil batez zuen aldatua.

Goizeko 8.15etan, furgoia Madrileko Joaquin Costa kaletik pasatzean, lehergailuz betetako Opel Corsa auto bat urrunetik eztandarazi eta ibilgailu militarra bete-betean hartu zuen.

Bonba-autoa gaizki utzia zegoen, aipatu Joaquin Costa kalean dagoen zubia altxagarriaren azpian. Furgoi militarrak abiada gutxitu behar izan zuen ondotik pasatzean eta eztandak ibilgailua erabat suntsitu zuen su hartu ondoren. Horren ondorioz eta gorpuak kiskaliak zeudenez, zaila izan zen atzo goizean hildako kopurua eta beren nortasuna baieztea.

Furgoian zihoazen zazpi pertsonak hil ziren atentatuan. EFE

Arratsaldean ezagutu ziren zazpi hildakoen izenak: Lur Armadako Fidel Davila Garijo eta Javier Baro Diaz de Figueroa teniente koronela, Aire Armadako Juan Romero Alvarez eta Jose Carretero Sogel, Domingo Olivo Esparza fragata kapitaina, Armadako Juan Manuel Calvo Alonso sarjentua eta Pedro Robles gidaria.

INDAR HANDIKO LEHERKETA

Hiru armadetako militarrak Estatuko Batzorde Nagusiaren (EMACON) egoitzara zihoazen atentatua izan zenean, Defentsa Ministerioak ezagutzera eman zuenez. Armadaren koartel nagusian jarri dute zazpi hildakoen hil-kapera eta gaur goizean egingo da hileta.

Berrogei kilo leherkari zituen autoak eta eztanda izugarria eragin zuen. Kalte handia sortu zuen inguruko hiru etxebizitzetan eta ingurutik oinez edo beren autoetan pasatzen ari ziren 19 pertsona harrapatu zituen, batzuk oso larri zaurituz. Autobusaren zain zeuden zortzi eta 20 urte bitarteko hiru haur egoera larrian daude metrailak eragin zizkien zaurien ondorioz.

Leherketak nahasmen handia sortu zuen Madrileko erdigunean. Eztanda izugarriaren ondoren, sua, kea, oldoleztatutako jendea eta etengabeko anbulantzia hotsa etorri ziren. Poliziak inguruneak hartu zituen eta kaltetutako hiru etxebizitzak hustu egin zituzten.

BIGARREN AUTOAREN EZTANDA

Bigarren leherketa ordubete geroago izan zen, 9,15 aldera. Serrano kalean gaizki utzia zegoen matrikula faltsuko Ford Fiesta autoak egin zuen eztanda, eta inguruan zebiltzan hiru pertsona zauritu zituen. Hasieran beste atentatu bat izan zitekeela pentsatu zen, baina hipotesi hori baztertu zuen gero Poliziak.

Egileek atentatuaren lekutik alde egiteko erabili zuten autoa zela aipatu zuten iturri polizialek, eta atentzioa desbideratzeko lehertu zutela. Lekukoek azaldu zutenez berriz, ordu erdi lehenagoutzi zuten bertan. Barne Ministerioak berak ez zela bigarren atentaturik izan azaldu zion Copenhaguen zen Felipe Gonzalez jarduneko presidenteari. «Auto tranpa zela dirudi gehiago» adierazi zuen atzo Felipe Gonzalezek.

Poliziak ETAren 'Madril komandoari' egotzi dio atentatua

DONOSTIA

Poliziak ETAren 'Madril komandoari' egotzi zion Joaquin Costa kalean eginiko atentatua. Barne Ministerioak Javier Arizkuren, Maria Soledad Iparragirre eta Jesus Garcia ETAko ustezko militante liberatuei leporatu die atentatua. Dagoeneko karteletan dauden hiru pertsona hauek 1992an Madrilen gertatu ziren beste lau atentaturen erantzule egin ditu.

Poliziak esan zuen lehenengo biak abenduan identifikatu zituztela.

Barne Ministerioko bozeramaile batek azaldu zuen atentatuak ez daukala zerikusirik, itxuraz, Felipe Gonzalezek alderdi politiko nazionalistetako burukideekin gobernua osatzeko dituen bilerekin. Eledun berak esan zuen «ETAk ahal duen tokian eta unean» jarduten duela.

Euskal Herrian eginiko beste zenbait atentatuz gain, Poliziak otsailaren 6an lau militar eta funtzionari zibil bat hil zituen leherketa egotzi die. Maiatzaren 24ean zazpi polizia zauritu zireneko atentatua ere talde honen ekintza izan bide zen. Ekainaren 9an bederatzi ofizial, soldadu bat eta hiru zibil zauritu ziren atentatuan.

Madrilen eginiko azken atentatua azaroaren 30ean izan zen. Egun horretan bonba-auto baten leherketaren ondorioz Goardia Zibilaren tenienteorde bat hil zen. Atzokoa aurten ETAk Madrilen egin duen lehen atentatua izan da.

25 zauritu, lau oso egoera larrian

MADRIL

Bi leherketetan zauritutako 25 pertsonetatik lau oso larri daude —horietako bi hil-zorian—, bost larri eta beste hamar zaurituk alta jaso zuten atzo bertan.

Juana Cañizo zortzi urteko neskatoaren eta Maria Antonia Mezquita 20 urteko gaztearen diagnostikoa oso larria da eta biak hiltzeko arriskuan daude, Princesa ospitaleko Clerigue medikoak aditzera eman zuenez. Juana Cañizok bi hanketan eta hestean ditu zauri larrienak, gorputza osoan metraila sartuta badu ere. Maria Antonia Mezquitari bi ebakuntza egin behar izan zizkioten bularrak berrosatzeko. Honek ere metraila du gorputzean.

Maria Gabriela Cañizo —Juana Cañizoren ahizpa— Gregorio Marañon ospitalean ingresatu zuten oso egoera larrian. 15 urteko gazte hau hilzorian egon zitekeela uste bazen ere, bere bizia arriskutik kanpo dago, bere aitak azaldu zuenez. Dena den, begi bat galdu du, bi hankak hautsita ditu, eta metrailaren eraginez erredura eta zauri ugari ditu gorputzean.

Mari Gabriela eta Juana Cañizo eskolara joateko autobus geltokian zeuden atentatua gertatu zenean. Beraiekin zegoen Luis Gabarda Duran 8 urteko haurrak eskuetan eta hestean ditu zauriak, eta bere pronostikoa larria da.

Oso larri dagoen laugarren pertsona Carmen Redondo 28 urtekoa da. Gregorio Marañon ospitalean ingresaturik dagoen emakume honek ezkerreko hankan ditu zauri larrienak. Traumatologiako buruak esan zuenez, zauriaren bilakaerak okerrera joz gero, hanka gal lezake. Redondo bigarren eztandan zauritu zen.

Pronostiko larrian daude Miguel Alvero Suarez 26 urteko gaztea, Matilde Cuellar Garcia 49 urtekoa, Fernando Flores eta Juan Carlos Sobrino Ruiz. Alvero Suarez ezik, gainontzekoak furgoi militarraren kontrako leherketan zauritu ziren.

Zauritutako bat, lurrean, odoletan. EFE

Atentatua Madrilen

Gonzalez: «Beti bezala ETAren asmoa desestabilizatzea izan da»

Espainiako agintari eta buruzagi politikoek gaitzetsi egin zuten atentatua

Espainiako agintari eta buruzagi politikoek atzo goizeko atentatua gaitzesteko adierazpenak egin zituzten egunean zehar. Felipe Gonzalez Espainiako Gobernuko jarduneko lehendakariak «hilketa izugarritzat» jo zuen atzoko atentatua. «Beti bezala ETAren asmoa desestabilizatzea izan da», adierazi zuen Kopenhagetik, Europako Kontseiluaren atzoko bileraren amaieran.

Lehen planoan, militarren furgoia auto-bonbaren leherketaren ondoren. EFE

KOPENHAGE-MADRIL

Felipe Gonzalez Espainiako jarduneko gobernuburuak Armadaren kontrako atentatu bat izan dela azpimarratu zuen atzo Kopenhagetik egindako adierazpenetan. Europako Kontseiluaren bilerara sartu aurretik «hilketa izugarritzat» jo zuen Madrileko gertaera eta Corcuera Barne ministroarekin hitz egin ondoren erantzulea ETA dela konbentziturik zegoela adierazi zuen. «Armadaren kontrako izugarrizko laidoa dela gaineratu ahal dut bakar bakarrik», esan zuen Felipe Gonzalezek. Europako Komunitateko buruzagiekin izan zuen bilera amaitutakoan, atentatuaren atzean ETAren «desestabilizatzeko asmoa» dagoela nabarmendu zuen Espainiako jarduneko gobernuburuak. «Oso argi dago zer adierazten duen honek ETAren aldetik hauteskundeen ostean. Agerikoa da Armadaren kontrako atentatua izan dela, Bosnian betetzen ari den lanagatik iritzi publikoaren aurrean begirune handia duen unean», esan zuen Gonzalezek Kopenhagen. «Beti bezala ETAren asmoa desestabilizatzea izan da, eta nukleorik gogorrena zauritzea», gaineratu zuen. «Ez du merezi balorazio politikorik egiterik», jarraitu zuen, «benetan atentatu kriminal bat izan da, Armadaren kontra zuzenduta. Oso agerikoa da eta ezinezkoa da kriminal hauen buruan sartzea jakiteko zeren arabera egin duten atentatu hau une honetan».

Defentsa Ministerioaren agiri baten bidez, Julian Garcia Vargas jarduneko Defentsa ministroak ziurtatu egin zuen gertatutakoak ez dituela «Armadaren bake bokazioa eta eredugarritasuna aldaraziko».

Juan Carlos I Espainiako erregea harremanetan izan zen egun osoan agintari zibil eta militarrekin atentatuaren ondorio zehatzen berri izan ahal izateko. Atetntatuaren eragoinez, Juan Carlos I erregeak ez du parte hartuko Defentsako Ikasketa Zentru Nagusiko ziklo akademikoaren amaiera ekitaldian.

Atentatuaren gaitzespenei dagokionez, nazioartekoen artean, Europako Legebiltzarrak, Aita Sainduak eta John Major Erresuma Batuko lehen ministroak ezagutzera emandkoak aipa daitezke.

✓ Nazioartekoen artean, Europako Legebiltzarraren, Aita Sainduaren eta John Major Erresuma Batuko lehen ministroaren gaitzespenak aipa daitezke.

FRAGA ETA AZNAR GOGOR

Espainiako politikarien artean, Manuel Fraga Galizako Xuntako lehendakariak esandakoa aipa daiteke. «Nire ustez, espainiarren gehiengoak Gobernuaren erantzun tinko eta sendoa eskatzen du, duela egun batzuk hauteskundeetan adierazi zen legitimitate demokratikotik», esan zuen Manuel Fragak. «Hitzetik ekintzetara pasatzeko unea etorri da, propaganda instituzionaletik jazarpen polizial gordinera», gaineratu zuen Fragak.

Jose Maria Aznar PPko lehendakariak «terroristentzako zigorrak osorik betetzea» eskatuko duela adierazi zuen atzo bere alderdiko Zuzendaritza Batzordearen aurrean. «Bergizarteratzeko ahaleginek ezin dute izaera indiskrimatua izan, ez denboran ezta pertsonengan ere», gaieratu zuen.

PSOEk agiri baten bidez gaitzetsi zuen atzoko atentatua. PSOEren ustez, «krimen basati eta justifikaezin hauek» erantzun sendo bat izan behar dute, «baina lasatasunetik».

Jordi Pujol Kataluniako Generalitateko lehendakariaren ustez, «gainberan egon arren ETAk kolpe gogor eta oso mingarriak eman ditzake, baina erabat alferrikakoak, gizarte espainiarrak erakutsi duelako horrelako gertaeren aurrean amorerik ez ematen badakiela».

Rosa Conde Gobernuko jarduneko bozeramalearen iritziz, «hiltzaile batzuek bakarrik burutu ahal izan dute atentatu izugarri hau». Joaquin Leguina Madrileko Elkarteko lehendakariak «gaitzespen politikoa baino gehiago kondena judiziala eta urte askotako kartzela» behar dela esan zuen atentatuan zauritautakoak ikustera Princesa ospitalera iritsi zenean.

Nafarroako Gobernuaren eta Parlamentuaren gaitzespena

A.U. / **IRUÑEA**

Nafarroako Gobernuak eta Foru Parlamentuak agiri bana kaleratu zuten atzo Madrileko atentatuak gaitzesteko. Miguel Sanz Gobernuko lehendakariordeak irakurri zuen oharrak zioenez, Juan Cruz Alliren gobernu taldeak «gogor gaitzesten ditu ekintza basati hauek, beren egileak eta politikoki sostengatzen dituztenak Zuzenbideko Estatuan elkarbizitzeko gauza ez direla besterik ez baitute erakusten, herritarrek hau askatasun osoz aukeratu duten arren».

Honekin batera, Nafarroako Gobernuak doluminak eman dizkie hildakoen senideei eta elkartasuna adierazi die Espainiako Segurtasun Indarrei, «Espainiaren zerbitzura egin ohi dituzten safrifizioengatik».

Azkenik, «terrorismoari aurre egiteko» laguntza eskatu die herritarrei Iruñeko exekutiboak. Nafarroako Gobernuaren esanetan, «terrorismoa alternatiba politiko gisa sostengatzen edo justifikatzen dutenek gure gaitzespena baino ez dute merezi, beraien jokabideak horrelako gertaera basatiak dakartza eta».

Foru Parlamentuak antzeko gaitzespena egin zuen. Atentatuak salatzeaz gain, «lasaitasunari eta soseguari eusteko» dei egin zien herritarrei, espainiarren izpiritu demokratikoa bakea eta askatasuna defenditzeko bermagarri hoberena delakoan.

HB: «Atentatuaren irakurketa politiko egokia egin behar du Gobernuak»

DONOSTIA

Madrileko atentatua zela eta, HBk bere «kezka» azaldu zuen «Hego Euskal Herriaren eta Estatuaren arteko enfrentamenduaren adierazpen biolentoengatik», eta Pello Mariñelarenaren heriotza eta Txuma Olaberriren zauri larriak ere gatazkaren adierazpen biolentoak direla gaineratu zuen. «Elkarrizketaren bidez bake iraunkorra lortzeko konpromezu tinkoa» agertu zuen HBk prentsa oharrean.

«Deklarazio eta mezu interesatuak alde batera utziz, gertaeren irakurketa politiko egokia egiteko» eskatu zion HBk Felipe Gonzalezen gobernuari. Bere ustez, enfrentamenduaren jatorria «autodeterminazio eskubidearen ukazioa» da, «Euskal Herriak autodeterminazioan oinarritutako bakea izateko eskubidea du eta indarkeriari amaiera emateko bide demokratiko bakarra ukatzen digutenak larritasun handiko bidegabekeria egiten ari dira gure herriarekiko».

Hau dela eta, deia egin zion gobernu berriari «negoziazioari ausardia politikoz ekiteko, Hego Euskal Herrian normalizazio demokratikoa eta Estatuarekin adostutako elkarbizitza baketsua ezartzeko».

Garraixi Isilak 132 kontzentrazio antolatu ditu

BILBO

Garraixi Isila koordinakundeak isileko 132 konzentrazio antolatu ditu gaurko, Madrilen izandako atentatuak direla eta protesta egiteko. «Hurrengo orduotan elkarrizketaren eta negoziazioaren aldeko dei zinikoak entzungo ditugu berriro ere, eta ikusiko dugu presoen giza eskubideen alde joan den egunotan mobilizatu direnak isilik nola geratzen diren giza eskubideen bortxaketa handiena den hilketaren aurrean» dio Garraixi Isilak atzo zabaldu zuen agirian.

Armak berehala uzteko eskatu dio koordinakunde honek ETAri, «bere indarkeria behin eta berriz gaitzetsi duelako herri honen gehiengoak». «ETAk hiltzen duenean» dio Garraixi Isilak, «bere izenean egiten du, edo bestela, bere hilketak babesten jarraitzen duen gutxiengo baten izenean».

Atentatua Madrilen

Euskal alderdiek gaitzetsi egin dute erabat Madrileko atentatua

Gertatutakoak «Gobernu sendoaren premia» indartzen duela dio Jauregik

Euskal alderdi politikoek ETAri egotzitako atentatua gaitzetsi egin zuten atzo. «ETAk bere ahulezia» erakutsi duen unean irtenbide poliziala bultzatzearen beharra azaldu zuen PSE-EEk. EAJk «erradikalismo integrista» gisa definitu zituen egileak.

Ajuria Eneko Ituneko alderdiak uda baino lehen bil daitezkeela esan du Jauregik. OLALDE

BILBO

Ramon Jauregiren ustez atentatua «historiaren orri beltz hau amaitu nahi ez duten lau fanatikoren gauza» izan da. Burukide sozialistaren aburuz oraingoan ETAk bere existentzia erakutsi nahi izan du. Bere ustez, emaitzak beste batzuk izan dira. «ETAk bere ahulezia eta kontraesanak erakustea lortu du» esan zuen.

Burukide sozialistak gobernu koalizioa osatzeko eginiko harremanez mintzatzea saihestu zuen. Hala ere, Madrileko atentatuak «gobernu sendo eta trinkoen irudi eta premia» indartzen duela adierazi zuen PSE-EEko idazkari nagusiak. EAJk eta PSOEk «terrorismoaren kontrako borrokan harreman estuak daramatzagu hainbat urtetan, eta hau agerian geratu da ez bakarrik alderdi bien kasuan, baita Ajuria Eneko hitzarmenetan eta EAE eta Espainiako gobernuen artean ere» nabarmendu zuen Jauregik. Ildo berean gogorarazi zuen bi alderdiek «irakurketa bateratua» egiten dutela biolentziaren alorrean.

Jauregik jakitera eman zuen, bidenabar, Ajuria Eneko Mahaiko bilera izan daitekeela uda aurretik.

Ondorio politikoez galdetuta Jauregik bide polizialera jo zuen. «Basakeriak ez dauka erantzun politikorik, nahi dugun bakarra da egileak hainbat arinen harrapatu eta epaileen esku utzi, berauek kondena ditzaten».

HAUTESKUNDE EMAITZEI ERANTZUNA

Euzko Alderdi Jeltzalearen aburuz Madrileko atentatua hauteskundeetan HBk lortutako emaitza txarren ETAren erantzuna izan da. Prentsa agirian EAJk ENAMen barruko balizko diferentziak aipatzen ditu. «Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduan berrikusketa osoa plantaiatzen dutenei kontrajartzen zaizkie atentatu hau egin dutenak». Azken hauek —dio EAJk— «KASen egungo zuzendaritzak lagunduta, boto galera ETAren atentatu ezari egotzi diote».

> ✓EA: «ETAk erakusten duen arma eta autoritarismoaren aurrean, euskal gizartearen gehiengoak demokrazia eta konbibentzia baketsua aukeratu ditu».

Jeltzaleen aburuz «radikalismo integristak edozein azterketa erabiltzen du, berdin lortu nahi dituen helburen aurka badoa ere, bere mugikortasun eza eta etorkizunari dion beldurrari eusteko». Une politiko garrantzitsuetan «ETAk politika ulertzeko duen modu odoltsua» erakutsi ohi duela dio jeltzaleen agiriak.

ETAk atentatuak egiteko gaitasuna badaukala aitortu ondoren, jeltzaleek azaltzen dute beraien ustez «atzeraezineko egoeran» dagoela ETA.

BESTE GAITZESPEN BATZUK

Eusko Alkartasuna eta Euskal Ezkerrak ere Madrileko leherketak gaitzetsi zituzten. EAk nabarmentzen zuen «ETAk erakusten duen arma eta autoritarismoaren aurrean, euskal gizartearen gehiengoak demokrazia eta konbibentzia baketsuaren aldeko aukera» egin duela. EUEk dei egin zuen gaur izango diren ekitaldietan parte hartzeko.

PPk dei egin zien ETAren inguruei atentatuen gaitzespena egin dezaten. Beste alderdiek bezala elakrtasuna adierazi zien kaltetuei.

UAren ustez atentatua egin dutenek ez dute inoren babesik «ez bere kide askorena, ez presoena ez are gutxiago euskal gizartearena ere».

Elkarri: «ETAri igorritako gutunak indar handiagoa hartzen du uneotan»

DONOSTIA

Elkarri elkarrizketaren eta akordioaren aldeko giza mugimenduak «bere atsekabea» azaldu eta «sendotasunez ezetsi» ditu Madrilen izandako atentatuak.

Hori ez dela hala ere, nahikoa dio Elkarri-k atzo zabaldutako agirian: «Saminaren edo gaitzespenaren azalpena ez da nahikoa, beharrezkoa da herri honi eragiten dion indarkeria egoerari konponbide objetiboen bila urratsak ematea». Ildo horretan Elkarri-k uste du, «ETAri igorri genion gutunak eta proposamenek, martxan dauden beste ekimen batzuekin batera, indar handiagoa hartzen dutela uneotan».

Elkarri-k gutun bat igorri zion joan den ekainaren lehenean ETA erakunde armatuari, elkarrizketarako eta akordiorako bere proposamena aurkezteko, aipatu mugimenduak igandean ezagutzera eman zuenez. Proposamenak «erantzuna merezi» duela dio Elkarri-k. «Ekimen honek eta azkenaldian gure mugimendua bultzatzen ari den beste batzuek ere elkarrizketaren, akordioaren eta bakearen bidean aurrera egiteko balioko dutela espero dugu», azaltzen du.

Elkarri-k bakerako bere proiektua azaltzeaz gain, zenbait proposamen zehatz ere egiten dizkio ETAri aipatu gutunean. Euskal Herriak bizi duen gatazkan parte hartzen duten beste agente batzuengana ere jotzen ari dela, eta zeregin horren barruan sartzen dela ETAri zuzendutako gutuna dio. Asteburuan egindako batzarretan ekimen honen berri publiko egitea erabaki badu ere, Elkarri-k ez du ezagutzera eman idazkiaren eta egindako proposamenen edukia, «zuhur» jokatzearren.

Bestalde, Felipe Gonzalez Espainiako jarduneko presidenteari ere gutun bat igorriko diola iragarri du. Ekimen hauen helburua, «Euskal Herriarentzako elkarrizketaren, akordioaren eta bakearen bidean urrats eraginkorrak ematea» da, Elkarri-k dioenez.

Barne Sailak ordaindu beharko dio begi bat galdu zuen bati

BILBO

Jaurlaritzako Barne sailak 10 milioi pezeta (500.000 libera) ordaindu beharko dio Celedonio B.G.ri EAEko Justiziako Auzitegi Nagusiak erabaki duenez. Epaiak dioenez, ertzain batek gomazko pilota bat jaurti zion kaltetuari eta ondorioz begi bat galdu zuen. Celedonio B.G.k manifestaldi baten parte hartu zuen ekintzak gertatu aurretik.

Auzitegi Nagusiak, lekukoen adierazpenak ezagutu ondoren, frogatutzat eman du ertzainen eskuhartzea manifestaldia bukatu ondoren gertatu zela. Horregatik Auzitegiak uste du Ertzaintzaren jokabidea lekuz kanpo zegoela eta beste jokabide bat erakutsi behar zuela.

Manifestaldia Transportes Colectivas enpresako kideek egin zuten, greban zeudenean, Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzaren aurrean 1984. urteko azaroaren 5ean. Manifestarien helburua autobusen zerbitzua Udalak onartzea zen, baina negoziazioek ez zuten langileek espero zuten emaitzarik ekarri, eta orduan hasi ziren ekintza biolentoak Auzitegiak jakinarazi duenez.

Langile batzuen erantzuna indarrezkoa izan zen epaiaren arabera, eta segurtasun indarrek esku hartu zuten. Sakabanatzean Celedoniok eta beste kide batzuek ihes egin zuten. Epaiaren arabera bi ertzain langile hauen atzetik atera ziren eta batek gomazko pilota bat jaurtiki zion Celedoniori, nahiz eta agenteen aurkako egoera larria izan ez.

Ekintza hauen ondorioz, Celedonio B.G.k begia galdu egin zuen. Gainera 300 egun egon zen lanik egiteko gauza ez zela, eta lanpostua galdu egin zuen.

Kontua Bilboko Argibideetarako 2. Epaitegira eraman zuten, baina diligentziak bertan behera geratu ziren Barne sailak ez zuelako ertzainaren izena eman nahi izan. Gainera 1989. urteko uztailaren 7an Barne sailak uko egin zion kalteordainak ordaintzeari. Administrazioaren jarrera honen aurrean, kaltetuak errekurtsoa aurkeztu zuen EAEko Auzitegi Nagusian, eta honen epaia langilearen aldekoa izan da.

PSE-EEko parlamentariek batera jokatuko dute talderik ezean ere

Ajuria Eneko Ituna uda baino lehen bilduko dela dio Jauregik

Kongresuan eta Senatuan talde izaera hartuko ez duten arren, PSE-EEko parlamentariek lan elkartua egiteko asmoa dutela azaldu zuen Ramon Jauregik. Zereginak koordinatzeko bulego parlamentario bana jarriko dute hiriburuetan. Bestalde, Jauregik Ajuria Eneko mahaia uda aurretik bil litekeela ezagutarazi zuen.

IÑAKI URIARTE / **BILBO**



Ramon Jauregik azaldu zituen Madrileko Kongresurako asmoak. SIMAL

Madrileko Parlamentuan talde parlamentariorik osatuko ez duten arren, PSE-EEko diputatuek eta senadoreek jokabide koordinatua izango dute Madrilen. Atzo alderdi honetako batzorde eragilea diputatuekin eta senadoreekin bildu zen Bilbon hautatu bakoitzak zein alor edo batzordetan hartuko duen parte aztertzeko.

«Eztabaidatuko dugu zeintzuk diren alorrik interesgarrienak bertoko parlamentari sozialistek betetzeko» esan zuen Ramon Jauregik. Atzoko bileran aztertu zuten, halaber, zeintzuek izan behar duten eginbiderik garrantzitsuenak «talde trinko gisa» funtzionatzeko. PSE-EEko parlamentariek ez dute talde parlamentarioaren izaera formala eskuratuko. «Gure helburua da talde trinko gisa lan egitea Euskal Autonomi Elkartea ordezka dezan» gaineratu zuen alderdiko idazkari nagusiak.

HIRU BULEGO HIRIBURUETAN

Parlamentarien lana koordinatzeko PSE-EEk hiru bulego jarriko ditu EAEko hiriburuetan. Herrialde hauetako zeregina izango da —Jauregik azaldutakoaren arabera— alkate, Batzar Nagusietako kide, parlamentari, Ajuria Eneko sailburu zein herritar soilek aurkeztutako kezka eta proposamenak Parlamentuko PSOEko taldeari bideratzea.

Parlamentariek koordinatuko dituzten bulego horiek balio izango dute baita ere bide batez, PSE-EEko batzorde eragilearen eta parlamentarioen arteko lotura egiteko.

«Ez diogu entzungor egiten euskal herritarren aldetik jaso dugun mezuari, hots, PSE-EEri botoa ematean ez da azaldu bakarrik Gonzalezek gobernuari eutsi diezaion gogoa, adierazi da halaber EAEko parlamentari sozialistek ordezka dezaten» berretsi zuen Jauregik.

AJURIA ENEKO MAHAIA

Ajuria Eneko Mahaia uda aurretik bilduko dela baietsi zuen Ramon Jauregik. Hauteskundeen emaitzak eta ondorioz sortutako giroa aztertzeko balio dezakeen bilera prestatzeko Ardanzaz mintzatua dela adierazi zuen.

Jauregi aldez aurretik saiatu zen bileraren zioa ETAren atentatuek eragindakoa dela ezeztatzen. «Bilera ez da abaguneak ezarritako egoeren baitan izango» ziurtatu zuen. Jauregik ez zuen hitzik esan PSOE eta EAJren artean gobernua osatzeko egin diren bilerez.

EAE-ANVk igandean egingo du aurtengo Albertia Eguna

DONOSTIA

Datorren igandean, ekainak 27, ospatuko du EAE (Eusko Abertzale Ekintza) alderdi abertzaleak aurtengo Albertia Eguna. Urtero bezala, Arabako Legutio eta Uribarri Ganboa herrien arteko Albertia mendian bilduko dira EAEren jarraitzaileak, Gerra Zibilean hil ziren alderdikideak omentzeko.

Hain zuzen ere, 1936ko azaroan, euskal gobernuak Legutio herria hartzeko agindua eman zuen, hortik Gasteiza abiatzeko. Albertiako mendian izandako borroketan EAEko ehundaka gudari hil ziren, alderdi abertzaleak gogorarazi duenez.

Aurtengo edizioak 'Atzoko eta gaurko gudarien alde, Independentzia' lema izango du. EAEk azaldu duenez, «modu honetan gudari belaunaldi ezberdinak, atzokoak eta gaurkoak, Iparraldeko eta Hegoaldekoak omendu nahi dira eta bide batez proiektu independentistan sakontzearen premia aldarrikatu».

Hala ere, aurtengo Albertia Egunean beste mezu bat zabaldu nahi du EAEk, «Ipar eta Hegoaldeko ezker abertzalearen batasunaren beharra», alegia. «Gaur egun ezker abertzalea dugu Euskal Herriko eskualde guztietan ordezkaritza orekatua duen euskal indar politiko bakarra», alderdi abertzalearen esanetan, eta «horregatik berebiziko ardura dauka benetan nazionala den proiektu bat eraikitzerakoan».

Bi ekitaldi politikok osatuko dute aurtengo egitaraua, bata eguerdian egingo da Albertiako tontorrean kokaturiko oroitarrian, eta bestea arratsaldeko 13.30etan beheko hariztietan.

Barreda: «Bizkaiko gehiengoen alternatiba bilakatu da PP»

BILBO

Espainiako Legebiltzarrerako hauteskundeen emaitzak aztertu ondoren, Partidu Popularra Bizkaiko instituzioetan gobernatzeko alternatiba bilakatu dela uste du Leopoldo Barredak. PPko buruzagiaren esanetan, «PP gehiengo politikoak aldatzeko ardatz bihurtu da Bizkaian». Herrialde honetan hirugarren alderdi bozkatuena izan zen PP ekainaren 6ko hauteskundeetan.

Bizkaiko emaitzei buruz osatu duen txostenean, PPk herrialdeko Diputazioan eta udaletxe garrantzitsuenetan gobernatzen duen EAJ-PSOE koalizioaren alternatiba bultzatu behar duela iritzi dio Barredak. Gaur bilduko den Herrialdeko Zuzendaritza Batzordeak Barredaren txostena eta hauteskunde emaitzak aztertuko ditu eta gerorako helburuak zehaztuko ditu.

Bilbon lortutako emaitzak —botoen % 21— azpimarratu ditu Bizkaiko PPko presidenteak txostenean. Bere ustez, «HBren botoak bikoizteak eta sozialistekiko 5.000 botoko aldea besterik ez egoteak erakusten du PP Bilboko gobernagarritasunerako etorkizuneko formuletan alternatiba izateko prest dagoela».

Ibar Ezkerrean, Basaurin eta Ermuan PPk izandako gorakada «esanguratsua» da Barredaren iritziz, eta aldi berean «erabakigarria hurrengo udal hauteskundeetan gehiengo politikoak aldatzeko».

Halaber, Balmaseda, Gordexola, Urduña eta Leioa bezalako herrietan PP «bigarren edo hirugarren indarra izatea Bizkaiko normalizazio politikoaren adierazgarririk onena da», Barredak azaldu duenez. Inguru hauetan orain arte PP alderdi «testimoniala» izan da, Barredaren hitzetan.

Nafarroako Gobernua berreskuratzeko egoeran dagoela uste du PSN-PSOEk

IRUÑEA

Bi urte barru egingo diren foru hauteskundeetan Nafarroako Gobernua berreskuratzeko aukera izango dutela uste dute bertako sozialistek, asteburuan Iruñean bildu zen PSN-PSOEko Erregio Batzordeak egindako analisiaren arabera.

Bilerak ekainaren 6ko emaitzak aztertzea zuen helburu eta Gabriel Urralburu PSN-PSOEko idazkari nagusia oso pozik agertu zen, UPNk boto gehiago eskuratu arren alde txikia atera baitzion alderdi sozialistari. Hori dela eta, PSN-PSOEk UPNri aurrea har diezaiokeela ziurtatu zuen Urralburuk. Bere irudiko, «sozialistek argi utzi dugu Nafarroako lidergoa berreskuratu eta Foru Komunitateko indar bozkatuena izan gaitezkeela. Eta hori da, hain zuzen, hurrengo hauteskundeei begira egin behar dugun apustua».



Gabriel Urralburu. JOXE

Gogoratuko denez, Nafarroako Gobernua zazpi urtez bere esku eduki eta gero PSNk agintea galdu zuen 1991ko maiatzean.

Bestalde, partehartze handia sozialisten mesederako izan dela nabarmendu zuen Urralburuk. Lehendakari ohiaren arabera, «azken kanpainan izugarrizko tentsio demokratikoa nabaritu dugu, aurrekoetan ez zegoena, eta agerian geratu da partehartzeak gure alde jokatzen duela. Zenbat eta jende gehiagok bozkatu, orduan eta emaitza hobeak lortzen ditugu sozialistok».

Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernua ere aipagai izan zuen Urralburuk, batipat haren esanak ukatzeko, sozialistek hitzarmenak hauteskunde arrazoiengatik komeni zaizkienean bakarrik egiten dituztela esan baitzuen UPNkoak kanpainan. Sozialista nafarren buruaren esanetan, berriz, «hauteskundeen emaitzek frogatu dute Alliren iritzia faltsua zela. Sozialistek ez dugu sekula hitzarmenik egin ahultasunagatik. Edukiak begiratu izan ditugu beti eta horrela egingo dugu aurrerantzean ere».

UNIVERSIDAD PUBLICA DE NAVARRA
NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

MAHAINGURUA:
'VIENAKO KONFERENTZIA: GIZA ESKUBIDEENTZAKO ERRONKA'

Partehartzaileak:
— Jose Antonio Corriente, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Nazioarteko Zuzenbidean katedraduna.
— Pedro Lozano Bartolozzi, Nafarroako Unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako irakaslea.
— Javier Aisa, kazetari aditua nazioarteko gaietan.
— Maria Cañadas, Amnesty Internationaleko estatu Idazkaritzako Koordinatzailea Espainian.

Tokia: Larraona ikastetxea.
Eguna eta ordua: Ekainaren 22an, asteartea, 19.30etan.
Antolatzaileak:
Nafarroako Unibertsitate Publikoa **Amnesty International**

Kritika artean onartuko da bihar EAEko osasun erreformarako plana

Egitasmo honen akats eta gabeziak nabarmendu zituzten atzo HBk eta LABek

EAJ eta PSE-EE alderdien onespenaz, bihar onartuko da Gasteizko Legebiltzarrean Osakidetzaren Estrategi Plana. Egitasmo horren helburua, egungo osasun publikoaren egoera hobetzea da. Dena den, kritikak ere jaso ditu egitasmoak gizarteko zenbait sektoreren aldetik. HB eta LABek esaterako, «osasun publikoa pribatizatzeko bidea» dela adierazi zuten atzo.

L.K.G.-I.E. / **GASTEIZ-DONOSTIA**



Xabier Arberas, Rafa Diez eta Jon Barcena LABeko ordezkariak. GILLENEA

Tasio Erkizia eledun abertzaleak atzo Gasteizen emandako prentsaurrekoan adierazi zuen HBk 'Azkuna planaren' kontrako jarrera izango duela bihar Eusko Legebiltzarrak egingo duen bilkuran. Erkiziaren esanetan, Osasuna Zainduz planak «gizarteko txiroenak zigortu nahi ditu».

'Azkuna planari' «Abril Martorell plana» izena eman ondoren alderdi abertzalea osasun arloko «erreformarekin ados» dagoela esan zuen, «baina erreformarako irizpide nagusiak bestelakoak izanik».

HBk hiru kritika ditu 'Azkuna planaren' inguruan. Aurrena, Erkiziak konparazio batez aipatu zuenez, «terapia egin nahi du aurretik diagnostikorik egin gabe», hots, osasun arloko egungo jarduerari buruzko «analisi kritikorik ez» duela egin nahi izan.

Bestalde, «planak duen izpiritu merkantilista» ere kritikatu zuen eta joera horrek zerbitzu publikoen beraien existentzia zalantzan jartzen duela erantsi zuen, «merkatuaren legeen menpe kalitatea bera ere utzi nahi baita».

Azkenik, Erkiziak «aberatsen eta txiroen osasun arloak» bereizteko asmoa leporatu zion Osasuna Zainduz planari.

Beste alde batetik, HBk nahi duen osasun erreforma gauzatzeko hiru ardatz nagusi aipatu zituen, osasun arloko langileei motibazioa ematea, burokrazia errotik kentzea eta zerbitzu publikoei eustea, hain zuzen ere.

Jaurlaritzako Osasun Sailak landutako planak «sindikatu guztien eta medikuen elkarte askoren gaitzespenak» jaso dituela nabarmendu zuen. Hortaz, motibazioa ezinbestekoa dela esan zuen, «plana egin dutelako langileak aparte utzita».

LAB: GIZARTE ADOSTASUNIK EZ

Bozeramaile abertzaleak deialdi berezia egin zuen zerbitzu publikoei eusteko, «alabaina, zenbait elementu zuzentzaile sartuz». Erkiziak deklaratu zuen arlo publikoak eta eraginkortasunak ez dutela zertan elkarren aurka egon behar, «oso loturik baizik».

Oro har, HBk egindako kritikekin bat etorri ziren atzo Donostian prentsaurrekoa eman zuten LABeko ordezkariak. Dena dela, Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako plangintzaren inguruan gizarte adostasunik ez dagoela azpimarratu zuten. «Zeresan garrantzitsua duen mugimendu sindikala egitasmoa bideratzeko prozesutik kanpo utzi du Jaurlaritzak», azaldu zuen Rafa Diez aipatu sindikatuko koordinatzaile nazionalak. «Honela, Gasteizko Gobernuak nabarmen utzi du berriro ere gizarte sentsibilitaterik ez duela, are eta gutxiago gai honek gizarte osoan duen eragina kontuan hartzen bada».

Berak ordezkatzen duen sindikatua ezezik, gainontzekoak ere Osasuna Zainduz plangintzaren kontra daudela erantsi zuen segidan Diezek. «ELA eta CCOOk publikoki erakutsi dute jadanik egitasmo honen aurkako jarrera, eta gurekin elkarlanean ari dira gai honen inguruan. UGTk ere ez du begi onez ikusten erreforma», argitu zuen.

Izan ere, LABeko ordezkarien esanetan Osakidetzaren Estrategi Planak kalte handia lekarke gizartera, behartsuen eta aberatsen arteko aldea izugarri handituz. «Egitasmoak bere baitan gordetzen dituen zenbait kontzeptu oso arriskutsuak dira, osasun publikoko edozein sistematan ezinbestekoak diren berdintasuna eta doatasuna ezbaian jartzen baitituzte», esan zuen Jon Barcena LABeko osasun arloko koordinatzaileak.

Barcenak hitzartean izandako kontzeptuak bi dira finean: alde batetik oinarrizko zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak bereiziko dira hemendik aurrera, eta osagarri deiturikoen kostua erabiltzaileak ordaindu beharko du. Bestetik, osasun publikoak emandako zerbitzuak erabiltzaileen eta Osakidetzaren artean ordaindu beharko direla ezartzen du osasun erreformarako planak. Ordainkidetza deitu zaio azken kontzeptu honi.

Osasun sistema publikoa aldatuko duen plana

JOXANJEL ALDAI / **DONOSTIA**

Iñaki Azkuna jeltzalea buru duen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Osasuna Zainduz izeneko Osakidetzaren estrategi planaren lehen berriak ezagutarazi zituenetik, aldeko zein kontrako makina bat iritzi kaleratu da. Izan ere, aldaketa handiak ekarriko ditu 'Azkuna plana' deitu denak EAEko osasun sistema publikora.

Osasun sistema publikoak aldaketak behar zituela eta, oinarrian osasun zerbitzu publiken zein pribatuen arteko konpetitibitatea ezartzea izango duen plana egin zuten Osasun Saileko teknikariek. «Egitura aldaketak» bultzatu nahi dira eta horretarako osasun sistema publikoaren kudeaketan sumatuko dira batez ere berrikuntzak.

Zerbitzuen arteko bereizketa proposatu du Osasuna Zainduz planak, eta «osagarriak» direnetako batzuk —oraindik zehazteke daudenak— neurri batean gaixoak ordaintzea eskatuko du. Dena den, ordainkidetza hori gogoeta modura, eta ez segituan ezartzeko neurri gisa, mahaigaineratu dutela nabarmendu zuen Azkunak.

Jaurlaritzak martxoaren 30ean egin zuen bileran eman zion bere onespena planari, gero apirilaren 20an aurkeztu zioten Eusko Legebiltzarrari eta honek bihar eztabaidatuko du. EAJ eta PSE-EEk agertu dute dagoeneko aldeko iritzia, EA eta PP alderdiek ere oro har aldeko direla adierazi dute, baina plana zehaztu beharrekoa dela esan eta kritikatu ere egin dute. Herri Batasunak eta Unidad Alavesak guztiz kontrako iritzia dute.

Sindikatu gehienek, neurri batean edo bestean, planaren kontra egin dute gogor. Medikuen sindikatu eta elkargoek, berriz, planak aurrera egin dezan oztoporik ez dutela jarriko jakinarazi dute.

HILDAKOAK

ARABA

- GASTEIZ **Vidal Perez de Onrraita Ortiz,** 20 urte. **Claudio Alonso Zamarrillo, 60 urte.**
- ZUIA **Jose Luis Rodriguez Saenz de Lafuente,** 40 urte.

BIZKAIA

- BILBO **Concepcion España Angiano,** 69 urte. **Juan Manuel Blanco Hernandez,** 88 urte. **Rafaela Monge Garran,** 86 urte. **Jose Luis Corral Sainz,** 53 urte.
- ALGORTA **Aurora Zalduondo Uruburu,** 90 urte.
- BARAKALDO **Jose Luis Corral Sainz,** 53 urte.
- ERMUA **Rafael Urreta Suinaga,** 83 urte. **Antonio Sanchez Santos,** 78 urte.
- MARKINA **Hodei Arrieta Martinez,** 10 urte.
- PORTUGALETE **Gloria Heredia Jimenez. Angela Garcia Urkulu,** 78 urte.
- SANTURTZI **Maria Angeles Egia Catalina,** 65 urte.
- SESTAO **Marcelino Zaballa Gutierrez,** 83 urte.
- SOPELA **Lucia Martinez Alcubilla,** 84 urte.

GIPUZKOA

- DONOSTIA **Margarita Saez de Arregi Angulo,** 97 urte. **Trinidad Toledo Trifol,** 86 urte. **Alicio Vallejo Oses,** 83 urte. **Manuela Vitoria Gurrutxaga. Antonio Llopis Oltra,** 75 urte. **Francisco de Asis Alonso Areizaga.**
- ARRASATE **Santiago Narbaiza Larrañaga,** 66 urte.
- ELGOIBAR **Rafael Cobos Nuñez,** 60 urte.
- HONDARRIBIA **Maria Victoria Sanchez Lopez,** 40 urte.
- IRUN **Emilio Morales Carrasco,** 75 urte.
- LARRAUL **Jose Angel Zumeta Mimendia,** 72 urte.
- LEGAZPI **Teodora Mutiloa Berasategi,** 86 urte.
- ORIO **Romana Leunda Azkue,** 88 urte.
- ZUMARRAGA **Cipriano Boillos Minguez,** 61 urte.

LAPURDI

- BAIONA **Josephine Garcia. Roger Guilhon,** 72 urte.
- ANGELU **Ida Cany Martiren,** 60 urte. **Jean Marie Langlere,** 81 urte.
- BIDARTE **Magdeleine Valencia,** 82 urte.
- DONIBANE LOHIZUNE **Anita Etxarte,** 60 urte.
- MIARRITZE **Balbino Pedrouzo,** 67 urte.
- ZIBURU **Joseph Garat,** 72 urte. **Medeleine Dequick Hastoy,** 77 urte.

NAFARROA

- IRUÑEA **Jose Luis Pascualena Goiena,** 51 urte. **Yolanda Garcia Sagasti,** 43 urte. **Nicasia Nuñez Lanas. Maria Concepcion Beunza Larunbe,** 66 urte. **Francisco Salinas Vicente,** 82 urte.
- BAKAIKU **Francisca Fernandez Baztarrika,** 87 urte.
- LARRAGA **Adela Fernandez Munarriz,** 66 urte.
- LERIN **Resurreccion Resano Ontoria,** 83 urte.
- PITILLAS **Joaquin Napal Adot,** 88 urte.
- SAN ADRIAN **Ignacio Muro Lapedriza,** 34 urte.
- URRITZA **Valeriana Olaetxea Zubeldia,** 77 urte.
- ZARRAKAZTELU **Jose Arpon Miranda,** 65 urte.

NAFARROA BEHEREA

- GARAZI **Prosper Denard,** 81 urte.
- IRRISARI **Pierre Errotabehere.**

ESKELAK

ESKELAK HARTZEN DIRA:
ARRATSALDEKO
4ak ARTE: (943) 46 90 22
4etatik 7etara: (943) 37 15 45

Estortsioa egiteagatik atxilotua Getxon

BILBO

Getxoko (Bizkaia) enpresari bati estortsioaren bidez bost milioi pezeta (228.000 libera) kendu zizkion lagun bat atxilotu eta kartzelaratu du Ertzaintzak. Getxoko Jose Vicente O. S. 28 urtekoa da joan den ostiralean atxilotu eta atzo Basauriko kartzelan sartu zutena.

Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, zorrak ito beharrean zegoen, agi danez, gaztea, eta besterik gabe, edozein enpresari estortsionatzea erabaki zuen. Getxoko Gida Komertziala hartu zuen gazteak, Ertzaintzak jakinarazi duenez, eta telefonoz zein postaz harremanetan jarri eta enpresariari bost milioi pezeta eskatu zizkion, ordaintzen ez bazion berak eta bere familiak ondorioak jasan beharko zituztela mehatxu eginez. Joan den asteko ostegunean beste gutun bat bidali zion dirua non eta nola utzi behar zuen esateko.

Enpresariak utzitako dirua ostiral goizeko ordubietan jaso zuen gazteak, Ertzaintzak informatu duenez, eta ordurako zainketa operazio berezia jarria zutenez, han bertan atxilotu zuten.

SOS Balkanes Jugoslavia ohira laguntza bidaltzen ari da etengabe

DONOSTIA

SOS Balkanes erakundeak bideratuta etengabe ari dira abiatzen arropaz eta jakiz betetako kamioiak Jugoslavia ohira. Iragan larunbatean goizeko hamarretan atera zen azkenekoa, Arrasateko (Gipuzkoa) biztanleek emandako eta Baztango (Nafarroa) sei parrokiatan jasotako 24 tona arroparekin beteta. Azken kamioi trailer honek Kroaziarako bidea hartu du, Zagreb hiriburura joango da zehazki. Bertan Merhamet elkarteak hartuko du bidalitako laguntzaren ardura eta ondoren, Bosnian banatuko dute jasotako arropa.

Aipatzekoa da SOS Balkanes elkarteak berriro eskatu duela euskal herritarren laguntza, «batez ere, itxura guztien arabera gatazkak luze iraungo duela kontuan hartuta».

Emakume elkarteak bilduko dituen batzorde berria eratu du Emakundek

Atzo bildu zen lehendabiziko aldiz proposamenak jasotzeko helburuz

EAEko emakume taldeen partaidetza bilduko duen aholku batzorde berria eratu du Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak. Asmo zehatz batekin sortu da aipatu batzordea: emakume taldeen eta Emakunderen artean komunikazio bide egonkorrak ezartzeko helburuarekin alegia. Era berean, emakumeentzako elkartegintzari buruzko gidaliburua argitaratu berri du Emakumearen Euskal Erakundeak.

Txaro Arteaga, Emakunderen zuzendaria. BAYO

DONOSTIA

Atzo bildu zen Gasteizen lehendabiziko aldiz EAEko emakume talde desberdinetako eta Emakundeko ordezkariak bilduko dituen aholku batzorde berria. Hamazazpi emakume bildu ziren guztira, EAEko emakumeen egoera hobetzeko proposamenak egitea eta jasotzea helburu zutela. Bildutakoetatik bost Emakundeko ordezkariak ziren eta gainontzeko 12ak emakume elkarteetako kideak.

Batzorde osatu berri honen helburu nagusia, Emakundeko kideak eta emakume taldeetakoak elkarrekin harreman iraunkorretan jartzea da, Emakumearen Euskal Erakundeko iturriek zehaztu dutenez. Batzordea osatu aurretik, Emakundeko kideak EAEko 200 emakume taldetako ordezkariekin elkarrizketatu ziren herrialdeka. Lehendabiziko harreman horren ondoren jarri zen martxan batzordea, bi aldeen adostasuna jasota.

Lehenengo bileraren ostean, lau arlotan banatuta gelditu da batzordea: arlo sozio-kulturala, formazioari dagokiona, osasun asistentziaz arduratuko dena eta gogoeta ideologiko-feminismoa / lesbianismoa arloa. Batipat, emakume taldeei Emakunderen asmoen berri eman eta alderantziz, emakume taldeetan jasotako proposamenak Emakundera bideratzea izango da aholku batzordearen eragina.

Txaro Arteaga Emakundeko zuzendariak adierazpen onak egin zituen atzoko bilkuraren ondoren. Bere esanetan, emakumeak gero eta gehiago ari dira mugitzen eta ekintza desberdinak aurrera eramaten. «Horren adibide dira EAEn dauden emakume taldeak, berrehundik gorakoa baita kopurua», erantsi zuen. Berrehun talde horietatik, benetan funtzionatzen dutenak gutxi gora-behera 150 direla zehaztu zuen Emakundeko zuzendari nagusiak.

EMAKUMEEN ELKARTEGINTZARAKO GIDALIBURUA

Aurrekoarekin lotuta, aipatzekoa da emakumeei elkarteak eratu edo osatutakoetan sartzeko argibideak ematen dizkien gidaliburua argitaratu berri duela Emakundek. «Emakumeak gure herriko bizitza publikoan parte hartuko badu, elkarte mugimenduan sartzeko bideak indartu eta erraztu beharra dago», azaldu zuten Emakumearen Euskal Erakundeko iturriek gidaliburuaren argitalpenaren albistea eman zutenean, eta horixe izango da hain zuzen liburuska honen helburua.

Kazetaritzako irakasle batzuk ez dira epaimahaikide izango

BILBO

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Informazio Zientzietako zenbait irakaslek uko egingo diote hurrengo egunetan epaimahai berezietako kide izateari. Irakasle kaleratuen auzia dela eta, kaltetuak izan diren ikasleen ekaineko lanak zuzentzeko Gobernu Batzordeak epaimahaikide izendatu zituen Kazetaritzako zenbait irakasle.

Kazetaritza Departamentuko iturriek atzo jakinarazi zutenez astean zehar zenbait irakaslek uko egingo diote epaimahaiko partaide izateari. Departamentu honetako Kontseiluak, bestalde, hurrengo egunetan bildu eta neurri berriak proposatzeko asmoa du.

Aipaturiko iturriek ez zuten inolaz zehaztu epaimahaikide izateari uko egitea aho bateko erabakia izan den. Baina dirudienez, erabakia aho batekoa izango da, Kontseiluak bere azken bileran «legez kanpokotzat» jo baitzuen Unibertsitateko Gobernu Batzordearen erabakia eta epaimahaiak desegitea ere eskatu zuen.

Gizarte eta Informazio Zientzietako dekanoa den Santos Zunzunegiren hitzetan, bestalde, «Kazetaritzako irakasleek legez kanpokotzat jotzen badute Gobernu Batzordeak hartutako erabakia, inpugnatu egin beharko dute, hori baita erabakia aldatzeko bidea».

Guztira hemeretzi intsumiso epaituko dituzte aste honetan Iruñeko auzitegian

IRUÑEA

Hemeretzi intsumiso epaituko dituzte aste honetan Iruñean, gaur, bihar eta etzi egitekoak diren epaiketetan. Datorren astean ere izanen da epaiketa gehiago, uda aurreko azkenekoak, uztailean eta abuztuan ez baita epaiketarik izanen. Irailean hasiko dira berriro intsumisoen kontrako auziak.

Gaur goizean bi gazte epaituko dituzte soldadutzari uko egiteagatik, Jesus Sopeña Segura eta Felix Vicente Alzuaz hain zuzen. Azkeneko honen aurka fiskalak bi urte eta lau hilabeteko kartzela zigorra eskatu du, Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egiteagatik.

Bihar, berriz, hamar epaiketa izanen dira. Rafael Sanchez, Ivon Lucas Arza, Arturo Arrizabalaga, David Lopez Goñi, Juan Iturbide Telletxea, Antonio Etxetxipia, Francisco Javier Morote Donazar, Carlos Amatria eta Ignacio Diazen aurka fiskalak hemezortzi hilabeteko zigorra eskatu du. Alfredo Allesen aurka, berriz, bi urte eta lau hilabeteko zigorra eskatu du, Ordezko Zerbitzu Sozialari uko egiteagatik.

BESTE BI EPAIKETA BARAKALDON

Etzi, ostegunean, beste zazpi intsumiso eseriko dira akusatuen aulkian. Jose Antonio Olaizola, Juan Maria Navarro, Carlos Ripa eta Jon Arkaitz Yaben gazteen aurka hemezortzi hilabeteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak. Jose Andres Iribarren, Antonio Barrena eta Alfonso Beorlegiren aurka, berriz, bi urte eta lau hilabeteko zigorra, iaz intsumiso egin zirelako.

Fernando Blanco eta Anskar Gomez intsumisoak epaituko dituzte gaur eta etzi, ekainak 24, Barakaldoko bi zenbakiko Penaleko Epaitegian. Fiskalak hemezortzi hilabeteko kartzela zigorra eskatu du Barakaldoko bi intsumisoentzat.

ZIZURKILGO UDALA

IRAGARKIA

Udal Batzarreak 1993ko maiatzaren 31an ospatutako bileran onartuak aurren batean, Zizurkilgo Lardamuño baserrian zaldi-hazkuntza instalaziorako Ordenamenduko Plan Berezia, MIKASUR S.L. bultzatua eta J.R. Lonbera Jaun Arkitektoak idatzia, jendaurreko informaziora zabaltzen dira hilabeteko epean iragarki hau GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontatuta, epe horretan agiriak aztertu eta egoki eritzitako erreklamazioak eta alegazioak aurkez daitezkeelarik.

Zizurkil, 1993ko ekainak 10
ALKATEA

ZIZURKILGO UDALA

IRAGARKIA

Udal Batzarreak 1993ko maiatzaren 17an ospatutako bileran onartuak aurren batean, Iñaki Echeverria Izaguirre Jaun Arkitektoak idatzitako Zizurkilgo Planeamenduko Arau Subsidiarioak (B Motatakoak) Testu Birmoldatuan aldaketak, Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Goreneko Diputatu Kontseiluak 1991ko maiatzaren 28an hartutako akordioari egokituak, jendaurreko informaziora zabaltzen dira hilabeteko epean iragarki hau GIPUZKOAKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontatuta, epe horretan agiriak aztertu eta egoki eritzitako erreklamazioak eta alegazioak aurkez daitezkeelarik.

Zizurkil, 1993ko Ekainak 1.
ALKATEA

ARABA EUSKARAZ 93

Araba Euskaraz-ek badu marka eta datozen urteetarako erreferentzia moduko edizioa: iragan igandean Laudion ospatu zena. Dirua, inoiz baino gehiago; jendea, beste horrenbeste; giroa, jatorra eta alaitsua; zirkuitua, ederra benetan eta eguraldia, udakoa oso. Hori guztia dela eta, 'Etorkizuna euskaraz' eta 'Ikastola bizirik' leloak ezin sendotuago atera dira Aiarako festatik.

Arabak badu marka

LUIS KARLOS GARCIA / **LAUDIO**

Araba Euskaraz-en hamahirugarren edizioak ez dio zenbaki malapartatu horren patuari inolako jaramonik egin nahi izan eta ia elementu guztiak alde izan zituen iragan igandean Laudion. Antolakuntzak orain arte egindako behin-behineko balorazioetan «benetako edizio arrakastatsua» izan dela aditzera eman du, baina kontua da oraingoan ez zaiola batere arrazoirik falta.

Araba Euskaraz 1993 ez zen igandean goizeko 10etan hasi. Araba Euskaraz 1993k joan zen urteko azkeneko hilabeteetan izan zuen hastapena, antolakuntza batzordeak herenegun muntatu zenaren lehen pausoak eman zituenean. Hala adierazten zuten antolatzaile eta laguntzaile askok igandean izerdi patsetan zeuden bitartean.

Baina Euskal Herrian egiten diren jai hauetan gertatzen den bezala, festa larunbat gauetik zetorren. Antolakuntzak pare bat kanpaleku prestatu zituen, eta bete egin ziren, Laudioko eta inguruetako hotelak eta ere bai. Bezpera gogorra oso gertatu zen, kasu batzuetan jaiak ibilbidea hasteko ordu gutxi batzuk falta ziren arte iraun zuen eta jakin egin da zenbaitzuek 'makina' musika geratu gabe dantzatu zutela.

Sasoi hobean zeuden, bestalde, goizeko 10etan Herriko plazan ibilibideari ekiteko prest ziren agintari politikoak. Buruan, behar den bezala, Alberto Ansola diputatu nagusia. Hortik aurrera, edo atzera, alderdi abertzaleetako ordezkari askotxo, baita Laudio, Amurrio, Aiara eta Okondoko udaletakoak ere eta Eusko Jauralaritzak ikastolen aldeko festa hauetarako daukan emisari bikoterik onena, Mari Karmen Garmendia eta Jose Mari Zeberio Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko arduradunak, hain zuzen. Gasteizko Hezkuntza Sailak, sozialistak daudenetik ohi duenez, ez zuen inortxi bidali Laudiora. Igande aurreko egunetan Fernando Buesa kontseilariaren sailetik esan ziguten hobe zela festaren eguna itxarotea ea baten bat agertzen zen. Hori itxaropena!

Yolanda eta Irati umeek zinta moztu eta egunari hasiera eman zioten. Hasiera ematea nolabaitekoa baino ez zen izan, atzerapen apur batez egin zelako ekitaldia, baina harrezkero gertatu zena kontatzea oso zaila da, 50.000 lagunek baino gehiagok zirkuituak, Laudiok eta Araba Euskaraz-ek gainezka egitea eragin zutelako minutu apur batzuetan.

> ✓ Guztira 1.500 laguntzailek lanean jardun zuten. Pertsona guzti hauen lana ondotxo sumatu zen eta horregatik jaiaren amaiera momentuetako poza.

50.000 horietariko bakoitzak gauza bat egin zuen. Batzuek Lamuzako parkearen lasaitasuna nahiago zuten bitartean, hainbatek eskeletoa mugitu zuten trikitixa, rock, saltsa eta abarreko musikaz. Denetarik, baina hori bai, 50.000 horietariko guztiek bat egin zuten tabernetara hurbildu eta edariak hartzean. 25.000 litro edari zerbitu zituzten eta aurrikuspenek gainezka egin zuten alde honetatik ere, iaz baino % 40 gehiago kontsumitu zelako edari eta janariei dagokienez.

Garraioei buruzko arloan ere gogor aritu behar izan zuen antolakuntzak. Batetik, Bilbotik joan behar zuen jendearentzat eskaini zituzten tren zerbitzu bereziak lan ikaragarria egin zuen eta 10.000 lagun inguruk erabili zuten. Kotxez hurbildu zirenek, bestalde, aparkalekuak bete egin zituzten.

Guztira 1.500 laguntzailek lanean jardun zuten Araba Euskaraz-en, baina gehiago ziren jaiarekin zerikusiren bat edo beste izan zutenak. Laudion izan ziren pertsona guzti hauen lana ondotxo sumatu zen eta horregatik jaiaren amaierako poza.

Antolatzaileak pozik egoteko moduko datuak dira, azkenik, 20 milioi pezeta inguru jaso zituztela. Jai hauek helburu ekonomiko garrantzitsua dutela argi dago eta baita jendeak badakiela ikastolek munta handiko proiektuak dituztela, diruz hornitu behar direnak. Horrexegatik edo, ibilbidean lagun batek bota zuen «Ondo pasau eta gutxi gastau!» esaldiari aldameneko batek erantzun zuena: «Bai, ondo pasau eta asko gastau!».

Goizean goizetik gainezka egin zuen Laudion prestatu zuten zirkuituak. JONTXU

«Jai beharrezkoa»

I.K.G. / **LAUDIO**

■ Agintari politikoak bazter batetik bestera ibili ziren. Zirkuituaren hasiera zela edo Laudio ikastolan Ikastolen Elkarteak egin zuen hartze ofiziala zela, nahikoa lan izan zuten, eta hori ibilbide nekeza egitean egin zituzten ahaleginak kontuan hartu gabe. Baina hitz egin zuten eta bat egin ere bai ikastolen aldeko jai hauek «beharrezkoak» direla aipatzean, juxtu Hezkuntza Saileko agintaritzatik ikastolak dagoeneko historiaren baitan besterik ez direla esaten ari den garaian.

Alberto Ansola diputatu nagusiak, adibidez, «beharrezkotzat» jo zuen gaztelania Araban normalizaturik dagoela eta euskara oraindik normalizatzeko dagoen hizkuntza dela aintzat harturik. «Ildo horretatik, Araba Euskaraz gure herrialdearen beharrezko hizkuntz normalizaziorako beste pauso bat da», esan zuen Ansolak. Beste alde batetik, Mari Karmen Garmendia Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiko buruak maiatzaren 25eko erabakien arabera jardun beharra baina baita «bidean aurrera jarraitu beharra» ere badagoela aipatu zuen.

ARABA EUSKARAZ 93

Atseden hartzeko gerizpe ederra aurkitu zuen batek baino gehiagok. JONTXU

Plazatik Larrañora: etapa 'erregina'

L.K.G. / **LAUDIO**

Piotr Ugrumov Arraten aurtengo Euskal Bizikleta ziurtatzen ari zen bitartean baziren milaka euskaldun etaparik gogorrenean: Herriko plazatik Larraño mendiraino zihoan ibilbide gogorrean. Zeren eta polita zela askok onartu zuten, baina baita 'profesionalentzat' bakarrik zela ere.

Laudioko Herriko plazan hasi zen, non megafoniak egun osoz atera zuen musikak aurtengo kanta ezagutarazi zuen. Hantxe dantzan dozenaka gazte egon ziren goizean, eguerdian eta arratsaldean, txosnak parean zituztela, eta eromena arratsaldean iritsi zen Eganen kontzertuarekin. Baina eromenaz gainera euri-jasa etorri zenez...

Bigarren area Laudio ikastolan zen eta plazatik ikastolarainoko bidea eguneko etapako lehen mendate gogorra zela esan behar. Zaila zen igoera, eskaileraz betea, baina ezin arriskutsuagoa jaitsiera. Burua apurtzeko modukoa, bai. Eskerrak igo ondoren eta jaitsi aurretik egonaldi polita izan zela, umeen jokoak, bertsolariak eta bazkaria zirela eta.

Laudio ikastolatik Lamuzako parkea den 'marko konparaezinera'. Hemen pelotoiak atseden hartzeko aprobetxatu zuen eta ederto lagundu zuten abesbatzek, bertsolariek, eta atseden hartu beharrean gorputzak tente jartzeko, Tapia eta Leturiak. Hantxe ikusi genituen behin, bitan, hirutan EUSKALDUNON EGUNKARIAko lankideak, eskuak eta aurpegia tintaz zikinduta baina etengabean '44.000 irakurle konponbide bila' izenburuko idazkia partitzen.

UGARTE, ELLAKURI, LARRAÑO

Lamuza atzean utzirik, errepidea berriro gora jarri zitzaigun Ugarterako bidean. Onenek besterik ez zuten eusterik, eta beraz, askotxo ziren umez gainezka pasatzen zen tren txikitxora igo nahirik zeudenak. Hala ere, txanoan ehun bat txapa zeramatzan treneko jefeak ez zien utzi eta etapak aurrera jarraitu zuen Letziagarako bidean barrena. Eta sorgina?

Ugartetik Ellakurira jendea urduri jartzen hasia zen, zetorrena gogorrena baita. Herri kirolen edertasuna eta Arabako Dantzarien Biltzarraren ikuskaria espejismo hutsa baino ez zen, berehala Larraño mendia zetorrelako eta tropela guztiz sakabanaturik zegoelako jadanik. 50.000 txirrindulariz osotutako pelotoiak eutsi egin arren bereak eta bost pasatu zituen Larrañoaldean.

Larrañotik Herriko plazara iritsi zirenek txosnetara jo zuten edariak hil edo bizikoak zituzten eta. Izan ere, etapak eguzki izugarri baten konpainia izan zuen eta desagertzen hasi zen txirrindulari askorik ez zegoenean, arratsalde partean, hain zuzen.

Egun osoz jende oldeak bete zituen Laudioko bazter guztiak. JONTXU

Hasiera ekitaldian ederki astindu zuten danborra ikastolako haurrek. JONTXU

Goardia zibilak euripean

Jai hauek nahikoa egitura propioa eskatzen dute. Baina horrezaz gainera, bereak ez dituen gauza asko mugitzen ditu. Esaterako, fanfarre, trikitilari eta oro har musikari talde batzuek parte hartu nahi izan zuten nahiz eta antolakuntzak ez aurrikusi. Mugimendu sozialek nahiz elkarteek, berauen aldarrikapenekin bat egin ahal izateko eskaintza zabala egin zuten atzo. Azkenik, goizeko 9.30etan gutxi batzuk baino ez ziren kaleko saltzaileak eguerdialdean makina bat ziren. Hasieran Laudioko udaltzainak kaletik botatzen saiatu ziren, baina saltzaile goiztiarrei errieta egitea baino ez zuten egin, azkenean denak geratu zirelako.

Poliziez ari garela, ikusle bereziak izan zituen Araba Euskaraz-ek: Goardia Zibila. Zirkuitua koartelaren ondotik pasatu zenez, ibiltari bakoitzak ikusi ahal izan zituen Goardia Zibilaren bi Patrol, auto bat eta hiru 'numero' goardia egiten, metraileta eta guzti. Goardia zibilek, berriz, denetarik ikusi ahal izan zuten: hankapaluak, trikitilariak, erraldoiak... Babesa, beraz, primerakoa.

Arratsaldeko 6.30ak aldera izugarrizko euri-jasa egin zuen. Egundoko ekaitza izan zen, jendea ia ohartu gabe harrapatzen dutenetakoa. Hala izan zen, Lamuzan lasai-lasai, zirkuituaren erdian edo Eganekin bete-betean zegoen jendetzak bat-batean ospa egin eta herriko tabernetara joan behar izan zuen. Laudioko Araba Euskaraz eta euria, nonbait, elkarren artean oso-oso loturik daude.

Aurrezki kutxek kostuak gutxitu eta gestioa hobetu egin behar dute

Berankortasunaren erantzukizuna kreditu entitateei egotzi die Luis Angel Rojok

Aurrezki kutxek kostuak gutxitu, zerbitzuen kalitatea hobetu eta gestioa egokitu beharra daukatela adierazi zuen atzo Luis Angel Rojo Espainiako Bankuko gobernadoreak, entitate hauek biltzen dituen konfederazioaren (CECA) urteko batzarrean.

Luis Angel Rojo Espainiako Bankuko gobernadorea eta Braulio Medel CECAko presidentea.

MADRIL

Luis Angel Rojok kreditu entitateei egotzi zien maileguetan inbertitutako dirua berreskuratzeko 'berankortasunaren' errua, beren «arriskuen gestio eskasagatik».

Espainiako aurrezki kutxen konfederazioaren LXVII. batzarrean egin zituen adierazpen hauek Espainiako Bankuko gobernadoreak.

Entitate hauek «kostuak gutxitu, zerbitzua hobetu eta beren estrategia, komertziala egokitu» beharra daukatela ohartarazi zien Rojok entitate hauetako arduradunei, batez ere bankuek beraien ohizko esparruak betez egiten dieten konpetentzia dela eta.

Gehiegizko komisioak edo zerbitzurik ematen ez duten kontzeptuen gaineko tasak ezartzearen arriskuez ere ohartarazi zien banku zentraleko arduradunak entitateetako arduradunei, Efe berri agentziak jakinarazi zuenez.

Gehiegizko komisio hauek kobratuz entitateek kontsumitzaileen eskubideak errespetatzen ez badituzte, eskubide hauek betearazteko arauak ezarriko dituela mehatxatu zien gobernadoreak.

Neurri hauek hartu behar ez izatea «banku eta aurrezki kutxen esku» dagoela esan zuen Rojok CECAren batzarrean.

Maileguen kobrantzan berankortasuna gehitzen ari dela eta, «fenomeno hau arriskuen gestioari lotuta» dagoela adierazi zuen, «entitateek ez baitute jakin erreakzionatzen, merkatu askatasunak eta konpetentziak negozio arlo berrietara sartzen uzten zietenean».

AURREZKI KUTXEN OZTOPOAK

Azkenik, dibertsifikazio proiektuak «kontu handiz aztertu» behar izango dituztela azpimarratu zuen banku zentraleko buruzagiak. Entitateen arteko bategite askotan egindako hutsegiteak zuzentzea ere eskatu zuen, bategite horien ondorioz kostuak asko gehitu direla argudiatuz.

German Perez Ollauri CECAko presidenteak ere, berankortasuna gehitzen ari dela eta, aurrezki kutxek gero eta dotazio gehiago egin beharko dituztela nabarmendu zuen eta entitate hauek gorde behar dituzten koefizienteengatik oso kezkaturik azaldu zen, koefiziente hauek Europako beste lurraldeetan baino askoz handiagoak izanik entitateen konkurrentzialtasuna oso kaltetua dagoelako.

Aurrezki kutxei kaltea dakarkieten beste traba batzuk aipatu zituen Perez Ollaurik, hala nola babestutako sektoreen konpetentzia eta Altxor Publikoarena eta, «bitartean, herri-aurrezki planak ateratzeko garaia dela entzun behar dugu».

Azkenik, Braulio Medel CECAko lehendakariak ere parte hartu zuen batzarrean. Medelek agintaritzari «aurrezki kutxen ohizko izaerarekiko errespetua» eskatu zion eta «ortodoxia fundamentalistatik» urrundutako ekonomi politika beharrezkoa dela iritzi zion.

Celulosas del Nervionek 2.000 milioi galdu ondoren kapitala zabalduko du

BILBO

Celulosas del Nervion S.A. enpresak 2.138 milioi pezeta (97,18 milioi libera) galdu zituen iazko ekitaldian eta emaitza honi aurre egiteko bi mila milioitik gorako kapital zabalkuntza egingo du. Iurretako (Bizkaia) paperfabrikak ez du irabazirik izango sektoreak krisia gainditu arte.

Paper enpresako akziodunek atzo egin zuten Bilbon batzar nagusia eta bertan onartu zuten kapital soziala berriz ere handitzea. 1992aren bukaeran 1.450 milioi pezetako zabalkuntza egin zuen Celulosas del Nervionek. Horrela, azken operazioaren ondoren 6.871 milioi pezetako (312,31 milioi libera) kapital soziala izango du paper ekoizleak.

Paper industriak sekula izan duen krisirik sakonenean murgilduta, Celulosaseko arduradunek ez dute emaitza ekonomiko positiborik aurrikusten sektorearen egoera aldatu arte. 1992ko galerak aurreko urtean izandakoak baino % 7,3 handiagoak dira, nahiz eta taldearen salmentak % 4,8 gehitu diren azken ekitaldian.

MARTXORA ARTE 515 MILIOIKO GALERAK

Francois Vittoz enpresako zuzendari nagusiak jakinarazi zuenez, aurtengo lehen hiruhilabetekoan 515 milioira iritsi dira galerak eta fakturazioa 1.998 milioikoa izan da.

Paperaren prezio apalek, diruaren kanbio gora-beherek eta finantza kostuen hazkundeak eragin handia izan dute, Francois Vittozen esanetan, Celulosaren emaitzetan. Pezetaren azken debaluazioak esportazioak bultzatu eta inportazioei ateak itxiko dizkiela espero du zuzendari nagusiak.

Iurretako papelerako plantila 300 pertsonaz osatuta dago gaur egun, baina zuzendaritzako ordezkariek erretiroen bitartez lanpostuak gutxituko direla iragarri dute.

Celulosas del Nervionek zakuak egiteko paper lodia eta kartoia egiteko *kraft liner*-a produzitzen du. Konpainiaren % 49,40 Cristaleria Española S.A. enpresaren esku dago, beste % 26,36 La Cellulose du Pin-ena da (biak Saint Gubain taldekoak) eta azkenik, gainontzeko % 17,22 Banestoren Industria eta Finantza Korporazioak kontrolatzen du.

Aurtengo ekitaldian produkzioaren kalitatea eta erregularitatea hobetzeko ikerketa lanetan jarraituko du Celulosas del Nervionek, zuzendari nagusiak akziodunei azaldu zienez. Era berean kostuak murrizteko plangintza jadanik martxan dagoela jakinarazi zien.

Paper sektoreak gaur egun dituen arazo nagusienen artean gehiegizko eskaintza, inportazioak eta prezioen jaitsiera gogorra azpimarra daitezke. Azken urteotan salneurriek % 15 egin dute behera.

LABURREAN

ARABAn jarriko ditu Gamesak bi filialak

IBV Korporazioko kide den Gamesa taldeak Arabako Teknologi Parkean kokatuko ditu sortuko dituen bi sozietate filial berriak. Producciones Aeronauticas eta Desarrollos Aeronauticos de Euskadi izango dira Gamesak sortuko dituen enpresak, modu honetan Brasileko Embraer konpainiaren EMB-145 hegazkinaren osagaiak ekoizteko. Proiektuaren aurrekontua 24.500 milioi pezetakoa da ●

ESABEko langileen kontzentrazioak Bilbon

Esabe segurtasun enpresak 32 kontratu bertan behera uzteko aurkeztu duen enplegu-erregulazio espedientearen aurka protesta egiteko Central Hispano eta Santander bankuen aurrean eta BBKren egoitzaren parean bildu ziren langileak ELA, LSB, CCOO eta UGT sindikatuek deituta. Finantza erakunde hauek dira Esaberen bezero nagusiak ●

FOGASAk 51.000 milioi bideratu ditu soldatak osatzera

Fogasa Espainiako soldata garantia fondoak 50.810 milioi pezeta (2.309,54 milioi libera) bideratu zituen iaz enplegu erregulazioan zeuden beharginen eta ordaintzeko arazoak zituzten enpresetako langileen soldatak osatzera. Baldintza hauetan zeuden langileak 108.384 izan ziren iaz ●

JAPONIA da lurralderik konpetitiboena

Munduko lurraldeetan konpetitiboena Japonia izango da 1993. urtean, aurrekoetan bezala, eta ondoren EEBB eta Danimarka. Alemania, berriz, iaz bigarrena zena, bostgarrena izango da aurten, Munduko Foro Ekonomikoaren (MFE) arabera. Erakunde honek dioenez, bategitea asko kostatzen ari zaio Alemaniako konpetitibitateari ●

Gonzalezekin ezezik PSOErekin ere negoziatu nahi du Duranek

Datorren astean biltzea proposatu die gobernuburuak UGT eta CCOOri

CiU koalizioa osatzen duten CDC eta UDC alderdiak bakoitza bere aldetik bildu zen atzo Bartzelonan Felipe Gonzalezek koalizio gobernua osatzeko egindako proposamena aztertzeko. Goizean bildutako Uniok Gonzalezekin baino PSOErekin negoziatzea eskatu zuen eta ez dela koalizio gobernuaren oso aldekoa erakutsi zuen.

BARTZELONA-MADRIL

UDCren Gobernu Batzordearen bileraren ostean emandako prentsaurrekoan, Josep Antoni Duran Lleida demokristau katalanen buruak berretsi egin zuen bere alderdia gobernua osatzeko negoziazioetan parte hartzeko prest dagoela, baina Gonzalezekin soilik eztabaidatu beharrean, PSOEren ordezkaritzarekin negoziatu nahiago duela jakinarazi zuen. «Ez zaigu pertsonen iritzia axola, alderdien iritzia baizik» esan zuen Duranek, Gonzalezek eta PSOEk uste dutena desberdina izan litekeela komentatuz.

UDCko buruak ez zuen PSOE-CiU-EAJ koalizio gobernua baztertu, baina horretarako «gero eta zailtasun gehiago» ikusten dituela adierazi zuen. Gonzalezekiko negoziazioa «programa oinarri moduan hartuta» egin behar dela esanda, Unioren ordezkaritzak ere bertan egon beharko lukeela ziurtatu zuen. Bilera aurretik eta ondoren, Duranek Xabier Arzalluz EAJko lehendakariarekin hitz egin zuen eta bi alderdiek «agian proposamenari erantzun bera emango diogu» iragarri zuen. Oraingoz Arzalluz, Pujol eta beraren arteko elkarrizketarako datarik ez dagoela jakitera eman zuen. Gauean, CiU koalizioko alderdi nagusia den CDC bildu zen Bartzelonan.

Gonzalez eta euskal eta katalan nazionalisten negoziazio hauek direla eta, Julio Anguitak damu zuen atzo gobernuburuak IUren proposamenari muzin egin izana, «proposamen bikaina baitzen». Anguitaren arabera, Gonzalezek «politika kontserbadorea» egingo du ezkerraren botoa eskatu arren. «Hori izarretan ere idatzita dago».

Bestalde, alderdi politikoekin gobernua osatzeko gehiengoa lortu ondoren, Felipe Gonzalez jarduneko lehendakaria Nicolas Redondo eta Antonio Gutierrez UGT eta CCOOko idazkari nagusiekin bilduko da datorren astean, atzo sindikatu bietako iturriek onartu zutenez. Gutierrez eta Redondorekin kontaktuan jarri den Narcis Serra lehendakariordeak ez du bilera horretara CEOE gonbidatu.

Andaluzisten batasunik ez oraingoz

Alderdi Andaluzistako (PA) lehendakaritzatik dimititu egingo duela iragarri duen Alejandro Rojas Marcos Sevillako alkateak baztertu egin zuen atzo bere alderdia eta Pedro Pachecoren PAP alderdia batu daitezkeela. Bere dimisioaren berri emateko antolatutako prentsaurrekoan, Sevillan lortutako emaitza kaskarrei (botoen % 3 besterik ez) leporatu zien errua eta bere gain hartu zuen erantzukizun osoa. Miguel Angel Arredonda PAko idazkari nagusia defenditu zuen eta gogor ekin zion Pacheco «probokatzailearen» aurka, PAk baino boto gutxiago eskuratu dituela PAPek gogoratuta. Bitartean, Sevillako PSOEri alkatetza uztea exigitu zion, botoen % 3rekin «ez duelako legitimitate moral edo politikorik».

Aznar: «PPk ez dio Gobernuaren bizikletari makilarik jarriko»

MADRIL

PPk ez dio Felipe Gonzalezen gobernu berriari oposizio erradikalik egingo, atzo Jose Maria Aznar alderdi eskuindarreko presidenteak ziurtatu zuenez. Aznarren hitzetan, «PPk ez du Gobernuaren bizikletaren gurpiletan makilarik jarriko, nahiz eta txirrindulariaz fio ez garen».

PPko Zuzendaritza Nazionalaren bileraren ostean emandako prentsaurrekoan Aznarrek bere alderdiaren gorakada azpimarratu zuen eta dei egin zien bere burukideei «muturreko erradikalismorik gabe eta ezertarako balio ez duen oihurik gabe» oposizioa egin dezaten. «Gobernurako balio duen alderdi baten heldutasuna erakutsi behar dugu oposizioan egiten dugun lanaren bitartez. Gure oposizioa zuhurra, serioa eta onerako izango da».

Legegintzaldi berri honetan Kongresuko zein Senatuko PPko talde parlamentarioetako eledunak oraingo moduan Rodrigo Rato (Kongresua) eta Alberto Ruiz Gallardon (Senatua) izango direla baieztu ondoren, Gonzalez gobernua osatzeko egiten ari den negoziazioak aipatu zituen Aznarrek. Bere iritziz negoziazio horiek «gutxiengo zabalenari» dagozkio eta errespetua merezi dute, baina Erregeak ofizialki agindu aurretik gobernua osatzen hastea «bitxia» dela ziurtatu zuen.

Espainiaren egonkortasunean «gure 141 diputatuek talde txikikoek baino zeresan gehiago» dutela esan eta gero, Aznarrek PPren barnean «berriro berrikuntza» egingo dela iragarri zuen.

«Guztia muntaia da» dio Juan Guerrak bere bigarren epaiketan

SEVILLA

Bere kontrako akusazioak «muntaia hutsa» direla eta «dena argituko» dela esanez hasi zuen atzo Juan Guerrak bere aurkako bigarren epaiketa. Sevillako Entzutegian ikusmin gutxi sortu duen Alfonso Guerraren anaiaren aurkako bigarren auzi honen lehen egunean, akusatuak deklaratu gabe geratu ziren, defentsako abokatuek epaiketa bertan behera geratzea eskatu baitzuten.

Juan Guerraren aurkako bigarren epaiketa eragin duten gertakizunak 1988an jazo ziren Sevillako Alcala de Guadaira herrian. Juan Guerrak eta bere bi bazkideek, Juan Jose Arenas eta Manuel Macias-ek, CIMPA enpresaren bitartez Fridex industrialdean eta La Espadillan orube bana erosi zioten Ensidesa enpresa publikoari, nekazaritzarako lurraren prezioa ordainduta. Akusazioaren arabera, Juan Guerra eta bere bazkideek jakin bazekiten Alcala de Guadairako Udalak lur horiek urbano izendatzeko asmoa zuela. Lurren izendapena aldatu zuten Manuel Hermosin alkate sozialista, Bernabe Sanchez Hirigintza zinegotzia, Ernesto Ollero udal arkitektoa eta Hirigintza batzordeko bi zinegotzi ere akusatuen aulkian eseri dira, Juan Guerrari orubeak saldu zizkioten Ensidesako bi buruen —Fernando Castro eta Francisco Lorente— modura.

Fridex lurren izendapena aldatzen saiatzeagatik —ez zen gauzatu— hamar akusatuei prebarikazioa eta gauzen benetako prezioa aldatzeko amarruak leporatzen zaie. Juan Guerrari, gainera, prebarikazioa bultzatzea egotzi diote izendapena aldatzeko presioak egin zituelako. Delitu hauengatik, fiskalak hiru urteko kartzela zigorra eta 750.000 pezetako isuna eskatu du hamar akusatuentzat.



Orube batzuen erosketa irregularra leporatzen diote Juan Guerrari.

ALTZA
MONPAS
ORTZADAR
RIKARDO ARREGI
euskaltegiak
Irakasle ikastaroa
uztailak 14 - 28
(praktikak barne)
OHARRA:
Beharrezkoa da EGA eta diplomatua/lizenziatua izatea.
matrikula:
R. ARREGI: Sanchez Toca,1
(943) 46 46 55

Mehaignerie eta Veil zentristek 'Pasqua legea' aldatzea eskatu dute

Atzerritar nortasunaren ustezko ezaugarriek piztu dute eztabaida

Edouard Balladur Frantziako gobernuburuak gaur bertan edo bihar Simone Veil eta Pierre Mehaignerie ministro zentristekin hitz egingo du. Giza Arazoetarako eta Justiziako ministroek inmigrazioaren murrizteko legean sartutako zuzenketa bat berrikusteko eskatuz ezustea sortu dute eta Gobernuaren baitan dauden iritzi ezberdintasunak nabarian jarri.

ALLANDE SOKARROS / **BAIONA**



Veil eta Mehaignerie zentristek Pasqua eskuindarraren legearen atal bat salatu dute. EPA

Pierre Mehagnerie Justizia ministroak eta Simone Veil Giza Arazoetarako arduradunak lehen ministroari dei egin zioten joan zen larunbatean, egun horretan bertan ontzat hartu zen inmigrazioaren murrizteko legean sartutako zuzenketa baten aldaketa eskatuz. Zuzenketa hau Alain Marsaud RPRko diputatu eta epaile ohiak aurkeztutakoa zen eta honen arabera, Poliziak «arraza ezaugarriez aparteko edozein elementutan oinarrituz, ustezko atzerritarren identitateaz ziurtzeko» kontrolak egitea zilegi izango du.

Justizia ministroaren arabera, «irizpide honekin legezko egoeran dauden atzerritarrek bazterketa jasan dezakete» eta Simone Veilekin batera, «etorkin gazteei begira neurri onuragarriak indarrean jartzeko» eskaera zuzendu dio Edouard Balladur gobernuburuari. Jarrera honek Gobernuaren baitan, segurtasun gaiei begira, iritzi ezberdinak daudela nabari utzi arren, bi ministro zentristek hauxe gehitu zuten: «Gure eginbidea besterik ez dugu bete eta, oro har, lege horretan, legez kanpoko inmigrazioari aurre egitea eta herritarren askatasuna babestea gogoan zeuden bi helburuen artean oreka ona egitea da».

KONPONKETA BALLADURREN GAIN

Simone Veil Giza Arazoetarako ministroak Frantziako Legebiltzarrak joan zen larunbat goizean ontzat hartutako legearen «zuzenketa batzuk berrikusi behar lirateke, funtsez ez baitute ezer ekartzen eta, aldiz, gaizki hartuak izaiten ahal bailitezke» adierazi zuen igandean, Charles Pasquarekin batera zelarik bilera batean. Barne ministroak, ordea, iritzi zionez, «Parlamentuak bakarrik erabaki dezake atzerritarren kontrolari buruzko legean aldaketak egitea». Dena den, gaur arte Europako Komunitatearen gailurrean dagoen Edouard Balladurrek jakinarazi du Mehaignerie eta Simone Veilekin hitz egingo duela Kopenhagetik itzuli orduko.

Anartean, Pasquak moldatu eta aurkeztutako lege honek salaketak eragin ditu arraza bazterketaren aurka diharduten elkarteetan, ezkerreko alderdietan eta ekologisten artean. Inmigrazioaren murrizteko legea ontzat hartu orduko, protestaldiak izan ziren Frantzian zehar eta manifestaldi jendetsuena Parisen egin zen, bertan 20.000 lagun baino gehiago elgarretaratu baitziren. Antolatzaileen iritzian «arrakasta handiko ekintza» izan zen manifestaldiaren amaieran jakinarazi zenez, Parisen bukatuko den arrazismoaren aurkako ibilaldia eratuko dute udazkenean. Parisekoaz gain, Frantziako eskualde gehienetan 'Pasqua legearen' gaitzesteko elgarretaratzeak egin ziren joan zen larunbatean eta hauetarik arrakastatsuenak Toulouse, Lille, Saint Etienne, Marseille eta Strasburgekoak izan ziren.

Kortsika: 12 etxebizitza txikitu ditu atentatu batek

AIACCIU

Calvi-n (Kortsika mendebaldean) eraikitzen ari ziren 12 etxebizitza txikitu zituen atzo goizean eztanda egin zuen lehergailu batek. Polizi iturriek jakinarazi dutenez hamar kilo dinamitak osatzen zuten lehergailua.

Txikitutako etxebizitzen eraikitzailea Rodolfo Cagliata italiarra da. Oraindik inork bere gain hartu ez badu ere, Poliziak Kortsikako Nazio Askapenerako Frontearen (FLNC) bi adarretako bati leporatu dio atentatua. Kortsikako abertzaleek frantziarren esku dauden turismo ondasunen aurkako atentatuak egin ohi dituzte, «kolonialismo frantziarra» salatzeko eta inbertsio turistikoen etetea eskatzeko.

Eskuin muturreko liburudenda bat zartatu dute Parisen

PARISE

Goizeko laurak t'erdi aldera lehergailu batek eztanda egin zuen atzo Pariseko Dark Side liburudendaren aurrean. Oraingoz inork bere gain hartu ez duen atentatu honek ez zuen biktimarik eragin, baina kalte material ugari izan ziren leiho eta ateetan batez ere. 'Dark Side' liburudenda ultraeskuineko bezero eta militanteen topaleku dela ziurtatu du Frantziako Poliziak.

EUSKALDUNON Egunkaria
egoitza berria BILBON
ekainaren 28tik aurrera
Helbide berria: ZABALBURU ENPARANTZA, 2-1. ezk. 48003 BILBO
TELEFONOAK:
Erredakzioa 410 40 46 / 410 42 41
Publizitatea 410 38 55
Harpidetza / gidak 410 38 46
FAXA: 410 37 15

IUk Solansen dimisioa eskatu du «arrazakeria bultzatzeagatik»

MADRIL

Madrileko Izquierda Unidak (IU) komunitate horretan Gobernuaren ordezkari den Miguel Solansen dimisioa eskatu du, joan den astean kaleratutako txosten batean «ekintza arrazista eta xenofoboen ugaltzea bultzatu zuelako».

Joan den ostiralean Madrileko Gobernu Ordezkaritzak 1992ko delikuentzari buruzko txostena kaleratu zuen. Bertan esaten zenez, «antzeman dugu zenbait talde atzerritar marjinalek Madrileko herritarren segurtasunean eragin txarra dutela». Agiriak gaineratzen zuenez, «droga banatzen den giroetan ere jakin badakite, atzerritarrak hiriguneaz jabetzen ari direla eta salmenta gehiena beren esku dagoela jadanik».

Madrileko Izquierda Unidak gogor gaitzetsi du agiri hau, bere ustetan, «elkartasunik eza indartzen duelako eta etorkinen aurkako eraso arrazista eta xenofoboak bultzatzen dituelako». Agiriaren bitartez, «bidezkoa ez den mundu batekiko eta langabezia, segurtasunik eza eta marjinazioa bultzatzen dituzten politikoekiko erantzukizun politikoak eta gizartekoak estali» nahi ditu Gobernu Ordezkaritzak, beti ere IUren arabera. «Agiriaren larritasun sozio-politikoa ikusita», eta bere erantzulea delakoan, koalizio ezkertiarrak Miguel Solans gobernu ordezkariaren dimisioa exigitu dio Gobernu espainiarrari.

EK-ko estatu eta gobernuburuen gailurra

Krisi ekonomikoak auzitan jarri du Europako babes sozialerako politika

Majorrek lege «zorrotzei» eraso egiteko aprobetxatu zuen Delorsen diskurtso ezkorra

Europako Komunitateak babes sozialarekin segitzeko asmoa dauka krisi ekonomikoan eragina duela onartu arren. EK-ko estatu eta gobernuburuen gailurrean (Europako Kontseilua) krisi ekonomikoan zentratuta jardun zuten atzo Kopenhagen, eta Erresuma Batuak gogor kritikatu zituen EKren babes sozialerako neurriak.

EK-ko estatuburu edo gobernuburuak, Delors, Klepsch eta Danimarkako Margarita erreginarekin. EFE

KOPENHAGE

Krisi garaian gertatu ohi den moduan, elkartasuneko neurrien aurka Pandoraren kutxa zabalduta geratu zen atzo Kopenhagen, eta John Major lehen ministro britainiarrak ireki zuen. Aurretik, Europako Komunitateak konpetitibitatea galtzearen zergatiak esplikatu zituen Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakariak.

Delorsek EEBB eta Japoniarekiko enplegu galeraren egiturazko ahultasunak azaldu zituen. Langabezia masiboari buruz, 1970etik 1990era bitartera EEBBek 28,8 milioi eta Japoniak 11,7 milioi lanpostu berri sortu zituzten, eta EK-k, berriz, zortzi milioi baino ez. «Oso larria da, 1991n EKn 25 urtez behetiko bost langabeetatik bat duela bi urtetik enplegu baten zain egotea eta langabetuen % 45 duela urtebetetik enplegurik gabe egotea» azaldu zuen Delorsek. Gainera, EKn 100 pertsona aktiboko 124 inaktibo dauden bitartean, EEBBetan inaktiboak 98 dira eta Japonian 89.

Langabeziarekin batera, konpetitibitatea gutxitu egin da EKn duela bi urtetik hona. 1980etik hona EK-k nazioarteko merkatuaren % 3,7 galdu du, EEBBek eta Japoniak, berriz, % 2,2 eta % 0,5 irabazi dituzte.

Nazioarteko lanaren banaketak EKri egin dio kalterik handiena Delorsen arabera. Lanaren zatiketak zuzen-zuzenean erasotzen dio EKri. «Honek barne elkartasuna, hau da, langabeziaren aurkako borroka, kanpo elkartasunarekin, herri txiroen garapenerako lagunitzekin bateratzea zail egiten du».

Garapen teknikoak EKn langabezia ekarri du epe laburreko ondorio gisa, hazkunde ekonomikoa beharrezkoa da enplegua sortzeko baina EKn ez da nahikoa, Delorsen arabera. Enplegua sortzeko lehendabiziko neurrietako bat enplegu bulegoen eraginkortasuna handitzea da Europako Batzordeko lehendakariaren arabera, «frogatu baita EKren langabezia tasaren azpian dauden estatuek -Alemania eta Suedia- pertsonal gehiago dutela langabetuei laguntza emateko».

Delorsen analisiaz baliatuz, John Majorrek Europako legearen «zorroztasuna» kritikatu zuen, EK-k dituen «gaixotasunak eragin dituen zorroztasuna», hain zuzen. Burugazi kontserbadorearen arabera, benetako arriskua babes sozialak ekar lezake, honek «guri konpetentzia egiten diguten herrietara bidal bailitzake inbertsioak». Erresuma Batua da aurten hazkunde ekonomiko posibleena izango duen Europako estatu bakarra, eta aldi berean, Europako Gutun Soziala sinatu ez duen bakarra. Iturri komunitarioen arabera, ordea, ez da Major babes soziala kentzea exigitzen duen bakarra. Ruud Lubbers lehen ministro holandarra ere langabe tasa handiari aurre egiteko neurri neoliberalen berrezarpena exigitzen duten horietako bat da.

Baina ez dirudi EK-k bere politika soziala aldatzeko asmoa duenik, Delorsek eta Europako Kontseiluko lehendakaritzak (Danimarka) argi utzi zutenez. Dena den, ez dira gai izan langabezia eta krisiari aurre egiteko neurri zehatzak proposatzeko. Horren ordez, Delorsek aztertuko dituen puntu eta proposamen batzuen zerrenda aurkeztu zuen.

BOSNIAKO GERRA AZTERGAI

Krisi ekonomikoaz gain, atzoko gai zerrendan Europako segurtasuna eta Jugoslavia ohiko gerra zituzten aztergai Europako Kontseiluan. Hauek iluntzeko afariaren ostean aztertu behar zituzten estatu eta gobernuburu europarrek.

PUNTUZ PUNTU

Delorsen proposamenak

Jacques Delors Europako Batzordeko lehendakariak Europaren konpetitibitate falta gainditzeko zortzi puntuko proposamena egin zuen atzo:

- **BATASUN EKONOMIKO** eta diru batasunaren bideari eutsi behar zaio, barne merkatua sendotu eta konpetentzia leial eta emankorra eragiten duelako.
- **EK-K IREKIA** eta elkartasunekoa izan behar du beste herriekiko.
- **I+G:** Ikerketa eta Garapenean elkarlana areagotu behar da. Barne Produktu Gordinaren % 3 erabiliko da horretarako gaur egungo % 2ren ordez.
- **AZPIEGITURAK:** Garraio eta telekomunikazioen azpiegiturak indartu behar dira, kohesio ekonomiko eta sozialean lagunduko baitu, eta azpiegituretako industria indartu.
- **INFORMAZIOA:** Informazio enpresak bultzatzeko bideak ireki behar dira, etorkizuneko ekonomiaren oinarri izango baitira.
- **HEZKUNTZA:** Hezkuntza sistemen aldaketa sakona. Bizitza osoan ikasi behar da eta jakintza, egiten-jakitearekin konbinatu.
- **GARAPEN EREDU BERRIA:** Produktibitatean hobekuntzak egiteko orduan bizi kalitatea hobetzea hartuko da kontuan.
- **LAN MERKATUA:** Politika aktiboagoa behar da. Aldaketa teknologiko edo ekonomikoak aurrikusi eta tratatu behar dira.



Klepsch.

EK-ko erakundeen elkartasun falta salatu du Egon Klepschek

KOPENHAGE

Egon Klepsch Europako Parlamentuko lehendakariak gainontzeko erakunde komunitarioek Maastrichteko Hitzarmenak biltzen dituen puntu zenbait indarrean jartzeko duten elkartasun falta salatu zuen atzo, Kopenhageko gailurreko sarrera hitzaldian.

«Herritarrenganako hurbiltasunaz, gardentasunaz, kontrol demokratikoaz eta elkarlanaz Maastrichteko hitzarmenean onartu ziren proposamenei» erantzun garbirik eman ez zaiela adierazi zuen Klepschek. «Deitoragarria da guztiz zuek, estatu eta gobernuetako buruek, onartu dituzuen gaiak gorpuzteko Europako Batzordeak erakutsi duen eraginkortasun falta», kritikatu zuen Europako Parlametuko lehendakariak. Europako Kontseilua, Parlamentua eta Batzordea negoziaketetan aritu diren 6 hilabeteek emaitzarik batere ez dutela eman ere azaldu zuen hitzaldian.

Guzti honen artetik Europako Herri Defendatzailea izendatzeko erabakia ezin onartu izana azpimarratu zuen Klepschek. Honen arabera, «Europako instituzioetatik dokumentazioa jasotzeko moduez» Batzordeak eta Kontseiluak izan dituzten ezberdintasunek eragotzi dute akordioa.

Klepschek aurrikuspen ekonomiko txarrak ere azpimarratu zituen sarrera hitzaldian, eta Europarlamentuak Kopenhageko gailurrari begira krisitik irteteko egindako proposamenak ekarri zituen gogora.

ILazKI EUSKALTEGIA
UDA IKASTAROAK
Matrikula zabalik
EGA eta ALFABETATZEA
Tf.: 42 49 10 Kostituzio Plaza, 5
DONOSTIA

Krajinaz eztabaidatuko dute gaur bertako ordezkariek eta Kroaziakoek

Bihar Bosniaren hirutan banatzeko egitasmoaz ariko dira Geneban hiru aldeak

Emaitzak bihar artean ofizialki zabalduko ez diren arren, inork ez du ezbaian jarri Krajinako serbiarrek erreferendumean subiranotasunaren alde emandako baietza zabala. Gaur bertan baina, NBE eta EK-ko bitartekariek Krajinako eta Kroaziako ordezkariak parez pare eserraraziko dituzte Bosniako etorkizuna baldintza dezakeen akordio bakezalea lortzeko asmotan.

Biharko bileraren zain gatazkak baretu egin dira apur bat frontean.

GENEBA

Joan den apirilaren 6an Zagrebeko agintariek eta Krajinako 'errepublika' serbiarreko (Kroazia) ordezkariek euren arteko gatazkari amaiera emateko bake akordioa sinatu zuten arren, bihar mahai beraren inguruan eseriko dira seguruenik Goran Hadzic «errepublika» horretako lehendakari serbiarra eta Goiko Suzak Kroaziako Defentsa ministroa.

Europako Komunitateko eta Nazio Batuetako iturriak ez dira oso baikor agertu gaur Geneban egingo den bilera hauen emaitzaz, nahiz eta aurrez aurre negoziatzeari ekinez gero, Bosniaren etorkizunean eragin handia izan dezaketen aurrerapausoak lor daitezkeela zehaztu zuten.

Atzo arratsaldean artean zalantzan zegoen bilera gauzatu ezinean geratuz gero ere, Slodoban Milosevic Serbiako lehendakariak eta Franjo Tudjman Kroaziakoak Krajinako gaiari eutsi beharko diote etzi Geneban bertan egingo den hiru aldeko bileran.

Ez nazioarteko erakundeek ezta Belgradeko serbiarrek ere ez dute onartu larunbatean eta igandean Krajinan egindako galdeketa. Dena den, emaitzek oraindik gehiago korapilatuko dute dagoeneko guztiz nahastua dagoen egoera latza.

BOSNIA BANATZEKO PRESTAKETAK

Krajinako arazoa eztabaidatzen ari diren bitartean, bihar egingo den bilera garrantzitsua prestatzen eman dituzte ordu gehienak Bosniako gerran nahastuak dauden serbiar, kroaziar eta bosniarrek.

Igandean euren aldeek Genebako bileran aldarrikatuko dituzten eskualdeei buruz mintzatzeko bildu ziren Mate Boban Bosniako kroaziarren burua eta Radovan Karadzic serbiarrena. Biharko bilera garrantzitsuari buruz eztabaidatzeko musulmanena izan zen atzo txanda.

Bosnia hiru estatu federatutan banatu asmo duen egitasmoari Alija Izetbegovicek ezezko biribila eman zion arren, Sarajevoko Gobernu kolegiatuan aurkakoak ere sortu zaizkio Bosniako lehendakari musulmanari. Atzo gobernuak Zagreben egindako bileran Fikret Abdic Izetbegovicen arerio nagusiak Bosnia bake bidean jarriko duen egitasmo oro defendituko duela azaldu zuen.

Genebako bilera garrantzitsuaren zain, gerra frontean erasoak baretu egin dira antza. Serbiarrek inguratuta daukaten Gorazden ere aspaldian ez bezalako lasaitasuna izan zuten. Ez zen hala ere, atzoko jarduna erasorik gabe burutu. Serbiarrek kontrolpean duten hiri handienean, Banja Lukan, NATOko hegazkinak ametrailatu egin zituzten «hegaldi probokatzaileek amorratutako herritarrek», Serbiako Armadak jakinarazi zuenez.

Nazio Batuen Giza Eskubideei buruzko Konferentzia

Haurren eskubideen babesa exigitu du Unicefek

VIENA

Nazio Batuek onartutako Haurraren Eskubideen Konbentzioari entzungor eginda, oso ugariak dira munduan gaztetxoenek dituzten eskubide funtsezkoenen aurka egiten diren bortxaketak. Unicefek (NBEren Haurren Laguntzarako Fondoa) guzti hauek salatu zituen atzo Vienan egiten ari den Giza Eskubideei buruzko Konferentzian, eta egoera honi amaiera emateko beharrezko neurriak exigitu zizkion nazioarteari.

Atzo Vienan aurkeztu zen 'Munduko haurren egoera 1991n' txostenak haurren giza eskubideen aurkako bortxaketa larriak ezagutarazten ditu. Aspaldian atzean geratu zirela ziruditen egoerek munduan zehar egunero-egunero jarraitzen dutela agerian utzi dute Unicefek atzo Giza Eskubideen Konferentzian atzo aurkeztutako datuek.

Jugoslavia ohiko gatazkan gertatzen ari den moduan, II. Mundu Gerraren ostean herritar zibilak izan dira gudetako biktima nagusiak, eta hildako 20 milioien artetik gainera, haurrek osatzen dituzte zenbakirik altuenak. Soldadu gisa aritzen diren haurren kasuak ere biltzen ditu txostenak eta hauen artetik euren sendiartekoak hiltzera behartu edota erasoetan ezkutu gisa erabili dituztenak badirela salatzen du, «erokeria honi amaiera eman beharra» dagoela gaineratu aurretik.

Unicefen datuen arabera, garapen bidean dauden herrialdeetako egoera are okerragoa da, gerrari, lehorteak, goseteak eta bestelako hondamendi naturalek eragindako sarraskiak gehitu behar baitzaizkio.

Baina ez dira gerra egoerakoak haurren giza eskubideak noiznahi bortxatzen diren egoera bakarrak. Brasilen esaterako, 3.000 neskato dira saldu ostean prostituzioan aritzera behartuak daudenak. Latinamerikan, 5 urtetik beheko 114 haur hiltzen dira orduero munduko herri garatuetan guztiz sendagarriak diren gaitzek jota, eta desnutrizioa kronikoa da Latinamerikaz gain mundu osoko beste herrialde askotan.

HEGOALDE euskaltegia.
IKASTARO TRINKOAK Uztailean
5 ordu egunean. Urrats guztiak
Florida 58, behea Tf.: 28 41 96 01005 GASTEIZ

LABURREAN

ARMADAREN agintea banatu egingo dute Kanputxean

Behin-behineko gobernu koalizioa osatzen duten Funcipec alderdi monarkikoak eta Kanputxea Herriko Alderdiak Armadako agintea ere elkarrekin banatzea erabaki berri dute, atzo Phon Penhen zabaldu zenez. Orain artean Armadaren agintea Kanputxea Herriko Alderdiak kontrolatu izan du osotara ●

GALIRI eskutitz bat zuzendu dio FMLNk

El Salvadorreko FMLN gerrilari talde ohiak Butros Gali Nazio Batuetako idazkari nagusiari eskutitz bat bidali dio azken asteburuan entregatzeko falta zaizkien armak nola utziko dituzten azaltzeko asmotan. Galik igandera arteko epea eman zion orain talde politikoa denari, bake akordioak exigitzen duen moduan gerra material guztia NBEko indarren eskuetan utz zezaten ●

HAZKUNDE tasak gorantz doa Indonesian

Indonesiak 267 milioitik gora herritar izango ditu 2020 urtean, bertako Gobernuak atzo zabaldutako txostenak dioenez. Egun, 187 milioi biztanle ditu herrialde honek, eta jaiotze tasa 1,9tik 1,7ra jaitsi den arren, Indonesiak hazkunde izugarriari egin beharko dio aurre oraindik. Herrialde honek gainera, erditzeko momentuan izandako heriotza tasarik altuena du Asia guztiko herrialdeak kontuan hartuz gero ●

LAU lagun hil dira Perun izandako borroketan

Tupac Amaru Mugimendu Iraultzaileko hiru gerrilari eta Peruko Armadako sarjentu bat hil ziren igandean Cajamarca departamenduan izandako enfrentamenduan. Poliziako iturrien arabera, San Jose herriaren aurka eraso egin zuten gerrilariak eta Armadako sarjentua hil ziren bertan ●

PDS eta Legak garaipen nabarmena lortu dute Italiako partzialetan

Komunista ohiak lehendabiziko indar bilakatu dira DCren aurretik

Achille Occhetto komunista ohiaren Ezkerraren Alderdi Demokratikoak (PDS) eta Umberto Bossiren Lega Nord federalistak beste alderdi guztiak ezerezean utzi zituzten herenegun Italiako zenbait hiri eta eskualdetan eginiko hauteskundeen bigarren itzulian. Legak iparraldean duen indarra berretsi badu, PDS *partitocrazzia*-ren alternatiba gisa azaltzen da.

ERROMA

Atzo Italiako Barne Ministerioak emandako emaitza ofizialen arabera, PDSk 405 zinegotzi eskuratu zituen botoen % 22,6rekin, eta Demokrazia Kristauari (DC) —botoen % 17,4ekin 359 zinegotzi eskuratu zituen— lehendabiziko lekua kendu dio Italiako politikagintzan. Lega Nordek iparraldeko eskualdeetan irabazi zuen, guztira botoen % 18rekin eta 286 zinegotzi eskuratuta. Hainbat koalizio —alderdi eta liga berriak eta Rete eta PDSren arteko aliantza—, berriz, 206 zinegotzirekin geratu ziren.

Alderdi Sozialista mapa politikotik desagertzear geratu da, eta garai bateko hirugarren leku hori galdu egin du betiko. Lehendabiziko itzulian hautagai bakar bat ere ez zuen sartu alkatetzarako lehian, eta bigarren itzulian, berriz, botoen % 3,6 eskuratu zituen 94 ordezkari erdietsiz, Italiar Mugimendu Sozial ultraeskuindarrak (% 5,4) baino bost zinegotzi gehiago. Errepublikarrek 29 ordezkari lortu zituzten, eta Gobernuko koalizioa osatzen duten beste bi alderdiek, sozialdemokratek eta liberalek 29 eta 4 zinegotzi eskuratu zituzten.

RETE SENDOTU GABE

Italiarrek formazio politiko berrien aldeko erronka egin badute ere, emaitza desberdinak izan dira hauen artean ere. Izan ere, Rete koalizioak ez du berretsi lehendabiziko itzulian lortutako indarra. Leoluca Orlando Palermoko alkate ohiaren sareko hautagaiek galdu egin zuten Milan, Turin eta Catania hirietan, hauteskundeak egin ziren hiri nagusienetan hain zuzen.

Hiru hiri nagusi hauei dagokienez, Milanen Marco Formentini Legako hautagaiak PDSk, Refondazionek, Retek eta berdeek aurkeztutako Nando Dalla Chiesa-ri irabazi zion. Turinen, berriz, Valentino Castellani PDSk, Berdeen Federazioak eta Mario Segniren Aliantza Berriztatzaileak aurkeztutako hautagaia irten zen garaile Retek eta Refondazionek aurkeztutako Diego Novelliren aurretik.

Catanian jaso du Retek jipoirik handiena. Mafiaren aurka gehien borrokatu den alderdiko hautagaia alkate izateko atarian geratu zen, PDS, berde, berriztatzaile eta errepublikarren Cataniarako Paktukoak irabazi baitzuen.

PDSk lehenengo lekua irabazteko balio izan zizkion garaipenak Ravena eta Siena hirietakoak izan ziren.

FORMAZIO BERRIEN INDARRA

Italiako prentsak alderdi tradizionalen porrota eta formazio berrien garaipena berretsi egin dela azpimarratu zuen atzo. Legak indarra erakutsi du iparraldean, eta Alderdi Komunistaren lekukoa hartu zuen PDSk, berriz, lehenengo lekua kendu dio DCri historia berrian lehenbizikoz. Dena den, PDSren garaipena alderdi txiki berriekin osatutako aliantzetan oinarritu dela zioten komunikabideek. «Ezkerrak aliantza hauetan lortu du alternatiba. PDSk konturatu behar du bere indarra korronte hauetan oinarritzen dela, eta aurrerantzean paktu hau indartu egin behar duela benetako alternatiba bilakatzeko» zioen, 'La Repubblica' egunkariak.

Marco Formentini Legako hautagaiak alkatetza eskuratu du Milanen.

Uztailak 4 IURRETA
EUSKALDUNON
JAIA 93



eman arnasa EUSKALDUNON Egunkaria-ri

FUTBOLA

Jupp Heynckesek positibotzat jo du amaitu berria den denboraldia

Ez dago batere argi zein jokalarik segituko duten Athleticen datorren denboraldian

Jupp Heynckes Athleticeko entrenatzaileak positibotzat jo zuen amaitu berria den 1992-1993 Liga txapelketa. Alemaniarraren esanetan, taldeak gora-beherak izan ditu, baina orokorrean futbol ona erakutsi du. Bestalde, Athleticeko arduradunek ez dute oraindik adierazi nortzuek ez duten datorren urtean jarraituko.

RAMON BASALDUA / **BILBO**

De la Fuentek agur esan du Athleticen hainbat urte eman ondoren. SIMAL

Athleticek sailkapeneko zortzigarren postuan amaitu du aurtengo Liga txapelketa 40 puntu eta bi positiboz. Zertan esanik ez dago, azken bi denboraldietan gertatutakoa ikusi ondoren, zuri-gorriek pozik egoteko arrazoiak badituztela. Heynckesek berak positibotzat jo zuen amaitu berria den denboraldia, atzo Lezaman eman zuen prentsaurrekoan. «Denboraldia oso-osorik hartu eta positibotzak joko nuke. Egia da bai taldeak gora-beherak izan dituela, baina esan bezala nire jokalariek egin duten jokoa ona izan da», esan zuen zuri-gorrien entrenatzaile alemaniarrak.

Bestalde, eta norbait aipatzekotan, Jupp Heynckesek aurten Bilbao Athleticetik etorri diren mutilen lana azpimarratu zuen. Zertan esanik ez dago, Juanjo Valencia atezainak, Julen Guerrerok eta Carlos Garciak sekulako denboraldia egin dutela. Horretaz gain, Ritxi Mendiguren-ek eta Ander Garitanok ere txapelketa ona egin dutela esan zuen.

Liga amaituta dagoenean, oraindik ez dago argi zein gizonek osatuko duten datorren urtean Athleticen taldea. Alde batetik, ez dirudi Athleticek jokalari berririk fitxatuko duenik. Nobedaderik izatekotan Bilbao Athleticetik etorriko litzateke. Horretaz gain, Gracia, Billabona eta Asierren etorkizuna erabakitzeko dago. Asierrek Athleticen jarraitu nahi du, baina ez dirudi beste biek jarraituko dutenik.

Alberto: «Ez genuenez punturik lortu pixka bat triste geunden igandean»

DONOSTIA

Atzo egin zuen Realak denboraldiko azkeneko entrenamendua. Gaur Atotxaren agurrean euskal selekzioaren kontra jokatuko du eta bihar Realeko zuzendaritzak eta lehen taldeko kideek Anoetari bisitatxoa egingo diote eta gero Realak B multzokoekin batera, bazkari bat egingo du.

Iragan igandean Reala ohorezko lekukoa izan zen, Barcelonak Liga eskuratu baitzuen. Partidu horretako onenetarikoa Alberto Lopez atezaina izan zen, baina pixka bat triste zegoela zioen atzo. «Nou Campen punturen bat lortzeko asmoa genuen. Azkenean ez genuen batere eskuratu eta horregatik pixka bat triste geunen aldageletan. Izan genituen zenbait aukera zerbait ekartzeko». Albertok ongi pasatu zuela adierazi zuen, «giro polita baitzegoen. Horrelako neurketak jokatzeko ederrak izaten dira».

John Toshackek, berriz, hurrengo denboraldirako helburu bat du: «Pare bat fitxaketarekin, konpetentziaren bila goaz. Aurten asko sufritu dugu eta hurrena konpetitiboak izatea nahi dut».

Alberto atezaina. KOCH

Joko kaskarra

Athletic, Osasuna eta Realak ez dute denboraldi honetan futbol onerrik egin. Azkeneko jardunaldian ere hori bera ikusi dugu. Talde bilbotarrak asko jokatu gabe irabazi egin zion Español, ekipo nafarrak Lehen Mailako azkenaren kontra porrot, eta Realak aurrenaren aurka gauza bera. Egia esan, hiru euskal taldeetako zaletua ez da kontent geratu eure jokalariek egin duten jokoarekin eta guztion itxaropena hurrengo denboraldian futbol politagoa ikustea da. Kalitatea badago baina barruan duten guztia plazaratzeko falta.

J. APEZTEGIA

SAILKAPENA

20	Kosecki
16	M.Gonzalez, Andrinua, Roberto
14	Alkiza, Uria, Guerrero, Larrainzar II, Valverde
12	Mendiguren, Larrainzar I, Spasic, Merino, Pepin
11	Imanol, Pikabea, Carlos Xavier, Valencia, Oceano
10	Yubero, Garitano, Larrazabal, Ziganda
9	Imaz, Fuentes, Urban, Larrañaga
15	John Toshack
12	Jupp Heynckes
10	P. M. Zabalza

ASTEKO SELEKZIOA

JARDUNALDIA 38

ALBERTO (1)

ESTIBARIZ (2), PEPIN (12), ALABA (8), LUMBRERAS (7)

MERINO (12), OCEANO (11), PASCUAL (3), DE LA FUENTE (3)

VALVERDE (14), ZIGANDA (10)

JUPP HEYNCKES (12)

Parentesi artean jokalari bakoitzak izan dituen agerraldiak.



Fermin Ezkurra.

Oporrek ez dute lasaitasunik ekarri Osasunara

IRUÑEA

Uztailaren 26ra arte jai izanen dute jokalari gorritxoek. Oporrak hasi dira beraz, baina oraindik ere berri asko sortzen ditu Gaztelu plazako taldeak. Joan den igandean Pedro Mari Zabalzak heldu den urtean ere Osasunako entrenatzailea izanen dela iragarri zuen. Arrotxapeakoak Zuzendaritza Batzordeak aho batez egin dion eskaerari kasu egin dio, eta beste denboraldi bat emanen du —zortzigarren aldiz hain zuzen ere— Osasunako entrenatzaile gisa. De Luis, Murillo, Cholo eta Iru jokalariek, ordea, ez dute Osasunan segitzerik izanen, guztiei baja eman baitzien atzo Gaztelu plazako tâldeak, eta aurki gauza bera egin lezake Angelov, Stevanovic eta Martin Dominguezekin. Bestalde, atzo Osasunarekin kontratu berriak sinatu zituzten Jose Mari eta Pascualek. Bi jokalariak 1996ra arte jokalari gorritxoak izanen dira kontratu horien arabera. Pedro Mari Zabalzak eta Fermin Ezkurrak herenegun prentsaurrekoan azaldu zutenez, eraso gorritxoa eta zelai erdiko ezker hegala berrindartzeko bi jokalari fitxatzeko asmoa du Nafarroako taldeak. Taxoareko harrobiko jokalariek ere lehen taldean toki bat izanen dute; izan ere, Castillejo eta Edu Martinez Zabalzaren agindura ariko dira heldu den urtean, lehen taldeko gainontzeko jokalariekin batera.

EZKURRA MADRILEN GAUR

Koseckiren afera argitzeko bidean dago, eta bide horretan aurrerapaso nabaria eman lezake gaur Fermin Ezkurrak. Osasunako lehendakariak Atletico Madrid taldeko ordezkariekin bilera izanen du gaur. Bilera horren atarian kritika gogorrak egin ditu Jesus Gil Gilek Ezkurraren kontra, baina azken honek kritika horiek ez dutela iraindu azaldu du «futbolaren munduan ahal duenak iraintzen duelako, eta ez ordea nahi duenak».

FUTBOLA

Atotxari agur hunkigarria ematera

Hiru ordu pasako ikuskizuna bizi ahal izango da gaur

Duela gutxi Alberto Gorrizek jaso zuen agurra Atotxan eta gaur, berriz, zelaiak berak jasoko du omenaldia. Hiru ordutan zehar ikuskizun anitz izango da, horien artean Realaren eta euskal selekzioaren arteko norgehiagoka. Realeko eta Athleticeko beteranoek ere jokatuko dute partidu bat.

ENEKOITZ ESNAOLA / **DONOSTIA**

Arratsaldeko 7.30etan hasiko da jaia, Reala eta Athleticen arteko partiduarekin. Bertan izango dira, besteak beste, Zelaieta, Diego, Alonso, Zamora, Satrustegi, Lopez Ufarte, Lizeranzu, Sarabia, Argote, Iribar, Urkiaga eta Goikoetxea bezalako jokalari ospetsuak. Beraien garaian puntako jokalariak izan ziren, Ligak ere irabazi zituzten, eta ziur oraindik ere dohairik badutela futbolean jokatzeko. Hogei minutuko bi zati jokatuko dituzte.

Norgehiagoka horren ondoren partidu handia izango da, hots, Realaren eta euskal selekzioaren artekoa. Javier Iruretak ekipo polita osatu du eta edizio hau ixteko orduan oraindik ez zen ziurra Barcelonakoek (Zubizarreta, Bakero, Goikoetxea, Begiristain eta Julio Salinas) parte hartuko dutenentz; izan ere, Liga eskuratuta, hainbat omenalditara joan beharra dute eta gainera, bihar Barcelonak Lleidaren kontrako neurketa du.

Dena den, Lopetegi, Iturrino eta Herrero (Logroñes), Gonzalo eta Gracia (Lleida), Guerrero, Larrazabal, Urrutia eta Billabona (Athletic), Pizo Gomez (Rayo), Loren (Burgos), Lopez Rekarte (Deportivo), Bustingorri eta Arozarena (Osasuna), Ibañez (Valencia), Patxi Salinas eta Dadie (Celta) eta Barcelonakoen ordez etor daitezkeenak maila polita eskaintzeko gai dira.

Beste hainbat gauza ere egongo da gaur Atotxan, koadroan ikus daitekeenez. Atotxan festa handia egitea da Realaren helburua. Agur gozoa eta ahantzezina eman behar zaio zelai zaharrari. ETB1ek zuzenean eskainiko du gaurko ekitaldia.

Jaialdi bikaina antolatu du Realak Atotxa zaharra agurtzeko. GILLENEA

Jaialdiko programa

19.30 Reala-Athletic beteranoen arteko partiduaren hasiera.
20.15 Beteranoen arteko partiduaren amaiera, ezusteekin.
20.30 Reala-Euskadiko selekzioa arteko partiduaren hasiera.
21.15 Atsedena. Jokalari historikoen agurra.
21.30 Bigarren zatia. Parte hartzen duten jokalari guztiei Kutxa saria banatuko zaie.
22.25 Espektakulua, Atotxaren oroimenez.
22.35 Donostiako Orfeoiaren ekitaldia.
22.45 Atotxako zalegoari omenaldia.

Barçak historian lehen aldiz 3 Liga lortu ditu segidan

DONOSTIA

John Cruyffek marka guztiak hautsi ditu Barcelonan. Entrenatzaile holandarrak hirugarren Liga irabazi du jarraian, lehenengo aldiz Kataluniako taldearen historia osoan. Aurretik, hiru aldiz (1947-48 eta 48-49, 51-52 eta 52-53 eta 58-59 eta 59-60) bi Liga lortu zituen.

Ligako azken jardunaldia emozioz betea izan zen. Barcelonak gutxienez Real Madridek baino puntu bat gehiago lortu beharra zuen. Azkenean, Barçak 1-0 irabazi zion Realari eta Real Madridek izugarrizko porrota jaso zuen Tenerifen (2-0). Horrela, kataluniarrek puntu bateko aldea izan dute sailkapenean. Asko hitz egin da eta hitz egingo da Real Madriden hutsegiteari buruz. Barcelonako jokalariek ordea, ez dute horretaz ezer entzun nahi. Andoni Zubizarretaren hitzak nahiko adierazgarriak dira: «Ligak 38 partidu ditu, eta Barcelonak edo Real Madridek irabazi, txapelduna onena izango litzateke».

Eurobasket 93

Europako mapa ordenatzera

Kroaziako selekzioa faborito gaur Alemanian hasiko den Eurobasketean

Gaur hasi eta uztailaren 4ean bukatuko da Alemanian jokatuko den Europako Txapelketa. Lehian 16 selekzio, lau multzotan banatuta. Faboritoa, itxura batean, Kroazia. Txapelketa honetako bost aurrenek 1994ean Kanadan izango den Mundialerako txartela eskuratuko dute. Eurobasket-eko ezustea Eslovenia izan liteke.

ENEKOITZ ESNAOLA / **DONOSTIA**

Europako Txapelketa batean inoiz ez dute hartu parte 16 selekziok. Aurten bai; izan ere, azken urteetako mapa politikoak sekulako mugimendua izan du. Jugoslavia eta SESB desagertu zirenetik nazioak ugari atera dira. Nazioarteko Saskibaloi Federazioak (FIBA) Aurre-Europarra antolatu behar izan zuen derrigorrez, Radja, Zdovc, Sabonis eta hauei Eurobasketean jokatzen ez uzteak logika handirik ez zuelako. Azkenean 16 izango dira, aurretik zeuden 11 ken Jugoslavia (NBE-k jarritako zigorra medio), gehi Eslovenia, Bosnia eta Kroazia Balkanetatik eta Estonia eta Letonia Baltikotik. Hortaz, duela bi urte Italian jokatu zen Europako Txapelketatik gauza asko mugitu da, Europako mapa zeharo aldatu da eta berriro guztia ordenan jarri behar da. Duela bi urtekoak ez du balio, zeren eta urrea lortu zuten Perasovic, Radja eta Tabak-ek orain ez dute Jugoslavia ordezkatzen, Kroazia baizik.

16 TALDE 4 MULTZOTAN BANATUTA

Orotara lau mutzo ditugu. A eta C-ekoek Karlsrhe-n jokatuko dute eta B eta E-koek Berlinen. Multzo bakoitzetik hiru sailkatuko dira eta gero beste bi multzo osatuko dira. Bata A eta C-k osatua eta bestea B eta E-k osatua. Multzo bakoitzean sei talde, beraz. Aurreko faseko garaipenek balio dute eta fase berri horretan hiru partidu baino ez dira jokatuko, beste multzokoen kontrakoak hain zuzen ere. Seiko multzo hauetik, bakoitzetik lau sailkatu egingo dira, finalerdiak (jadanik Munich-en) gurutzatuta jokatuz: A eta C-k osaturiko multzoko aurrenak B eta E-ko laugarrena izango du aurkari eta abar. Irabazleak finalerdira. Eta hor ere gurutzatuta. Gero finala.

KROAZIA FABORITO NAGUSIA

Txapelektako faboritoa, Kroazia da. Nahiz eta Drazen Petrovic hildakoaren eta Kukoc lesionatuaren hutsuneak izan, Radja, Komazec, Perasovic, Cjveticanin, Vrankovic eta abarrek oso talde ona osatzen dute eta urreak eurena izan beharko luke.

Ondoren, ez dago talde indartsu-indartsurik. Italiak talde berria du, duela bi urteko Eurobasketetik hiru baino ez dira errepikatzen dutenak: Gentile, Pittis eta Rusconi. Hala ere, orain egun batzuk Kroaziari irabazi zion eta kontuan hartzeko selekzioa izango da. Espainiak Bartzelonako Jokoetako selekzio beretsua du, nahiz eta orduan porrot izugarria jaso —oraindik ez dira ahaztu Angolako jokalariez—. Dena den, nahiko talde ona dauka Lolo Sainzek eta berekin beste era batera ariko dira Villacampa, Epi, Herreros, Rafael Jofresa edota Antonio Martin. Dominaren bat lor lezake.

Frantziak aurten taldeka Final Four-a eskuratu du baina selekzioa asko jaisten da. Rigaudeau, Ostrowski eta Bilba izango dira bertako liderrak. Alemaniak etxean jokatzen du, baina Schrempf faltako zaionez, bere aukerak murriztu egin dira.

Ezustea Eslovenia izan liteke. Aurre-Europeoan aurrena izan zen, denen faborito nagusia zen Kroaziaren aurretik. Eta arraroa bada ere, bere jokoa ez da Balkanetakoek egin ohi dutena; izan ere, besteek joko librean eta inspirazioan oinarritzen badute jokoa, Esloveniak seriotasunean oinarritzen du. Zdovc basea eta Kotnik pibota (2.06) dira talde honetako liderrak. Domina irabazteko aukerak.

Beste selekzioetatik ez da ia ezer espero.

Kukoc (7) eta Petrovic (4) izango dira Kroaziako hutsune nabarmenenak.

KARLSRHE-N		BERLIN-EN	
A MULTZOA	C MULTZOA	B MULTZOA	D MULTZOA
Espainia	Italia	Frantzia	Eslovenia
Errusia	Grezia	Bulgaria	Alemania
Bosnia-Herz.	Letonia	Kroazia	Estonia
Suedia	Israel	Turkia	Belgika

Palmaresa

Urtea	Non	Urrea	Zilarra	Brontzea
1935	Geneba	Letonia	Espainia	Txekoslo.
1937	Riga	Lituania	Italia	Frantzia
1939	Kaunas	Lituania	Letonia	Polonia
1946	Geneba	Txekoslo.	Italia	Hungaria
1947	Praga	SESB	Txekoslo.	Egipto
1951	Parise	SESB	Txekoslo.	Frantzia
1953	Mosku	SESB	Hungaria	Frantzia
1955	Budapest	Hungaria	Txekoslo.	SESB
1957	Sofia	SESB	Bulgaria	Txekoslo.
1959	Istanbul	SESB	Txekoslo.	Frantzia
1961	Belgrad	SESB	Jugoslavia	Bulgaria
1963	Wroclav	SESB	Polonia	Jugoslavia
1965	Tblisi	SESB	Jugoslavia	Polonia
1967	Helsinki	SESB	Txekoslo.	Polonia
1969	Caserta	SESB	Jugoslavia	Txekoslo.
1971	Essen	SESB	Jugoslavia	Italia
1973	Bartzelona	Jugoslavia	Espainia	SESB
1975	Belgrad	Jugoslavia	SESB	Italia
1977	Liege	Jugoslavia	SESB	Txekoslo.
1979	Turin	SESB	Israel	Jugoslavia
1981	Praga	SESB	Jugoslavia	Txekoslo.
1983	Nantes	Italia	Espainia	SESB
1985	Stuttgart	SESB	Txekoslo.	Italia
1987	Atenas	Grezia	SESB	Jugoslavia
1989	Zagreb	Jugoslavia	Grezia	SESB
1991	Erroma	Jugoslavia	Italia	Espainia

Huts egiteak

E. E. / **DONOSTIA**

Inoiz baino selekzio gehiago izango dugu aurtengo Europako Txapelketan, baina inoiz baino kalitate gutxiagoko lehiaketa izango da; izan ere, parte hartzeke jokalari piloa geratuko da. Egin dezagun selekzio bat, ekipo titular batetik hasita: antolatzaile Drazen Petrovic, eskolta Marchulenis, hegal altua Kukoc, lau postuan Divac eta *center*-a Sabonis. A zer-nolako bostekoa. Ordezko, 1 eta 2 postuetarako Danilovic, Djordevic, 3 posturako Paspalj eta Volkov, 4rako Schrempf eta pibot posturako Muresan eta NBAko Indiana Pacers-en jokatzen duen Smits holandarra. Batzuk lesionaturik daudelako ez dira Alemanian izango (Schrempf eta Kukoc), beste bat hil egin delako (Petrovic), beste batzuei NBEk ez die parte hartzen utzi (Djordevic, Danilov, Paspalj eta Davic serbiarrei), beste batzuen selekzioak ez dira sailkatu (Smits eta Marchulenis eta Sabonisen taldeak)...

Huts batzuk konponezinak dira (lesionatuena eta hildakoarena), beste batzuk hain harroak (Aurre-Europarrean ez jokatzea erabaki zuen Sabonis lituaniarrak) ez izanda, Alemanian izan zitezkeen, baina beste batzuek huts egitea barkaezina da, ez euren errua delako, politika kirolean sartzen delako baizik, Nazio Batuen Erakundeak Serbiari jokatzen ez uztean. Akaso, Divas, Danilovic eta hauek tiroka has daitezkeela pentsatuko dute NBEko gizontxoek.

SASKIBALOIA

Chicago, threepeat

Phoenix 4-2 gainditu eta Bullsek hirugarren eraztuna lortu du jarraian

98 **PHOENIX** K. Johnson (19), Majerle (21), Dumas (8), Barkley (21), West (4); F. Johnson (-), Ainge (9), Chambers (12), Miller (4).

99 **CHICAGO** Armstrong (18), Jordan (33), Pippen (23), Grant (1), Cartwright (2); Paxson (8), Tucker (9), King (-), Williams (5).

ENEKOITZ ESNAOLA / **DONOSTIA**

Threepeat. Hiru aldiz errepikatzea esan nahi du horrek. 1988. urtean asmatu zuen hitz xelebre hau Pat Riley Los Angeles Lakers-eko entrenatzaileak, NBAko titulua jarraian bigarren aldiz irabaztean. 1989an berriz eskuratuko zutela esan zuen orduan Rileyk. Dena den, ez zuen asmatu, Detroit Pistons-ek 89ko finalean 4-0 irabazi baitzion Lakersi.

Aurten hori erdietsi duena Chicago Bulls izan da. Horrelakorik lortzen duen hirugarren taldea da, aurretik Minneapolis Lakers (52, 53 eta 54an) eta Boston Celtics-ek (59tik 66ra) lortu zutelako. Orain Chicagok *threepeat* hitza daramaten hainbat kamiseta aterako ditu eta Rileyk erabilera eskubideagatik 2.5 milioi dolar irabaziko omen ditu.

Chicagok laugarren garaipena atzo lortu zuen Phoenixen —denboraldi honetan lau aldiz jokatu du Charles Barkleyren taldearen kantxan eta guztietan garaile atera da Chicago—. Markagailua 98-99koa izan zen Bullsen alde. 98-94 zihoazela, Jordanek sarrera egin eta bi puntu. Gero defentsan baloia errekuperatu eta estudiatutako jokaldi batean, Paxsonek hirukoa bota... eta sost. Lau segundu falta ziren eta 98-99. Gero, Kevin Johnsonek jaurtiki azkeneko segunduan baina Horace Grant-ek txapela ipini zion, Chicagok finala 4-2 irabaziz.

Partidua, oro har, Chicagok dominatu zuen. Aurreneko 12 minutuen amaieran 28-37 Jordanen taldearen alde. Gero. Phoenixek pixka bat errekuperatu eta atsedenera 51-56. Phoenix ez zen eroso jokatzen ari. Majerleren jaurtiketei esker jarraitzen zuen bizirik.

Partiduko azken minutuetan Phoenixek lortu zuen aurrea, Pippen gehiegi huts egiten ari baitzen. Baina ondoren Jordanen saskiratzeak eta Paxsonen hirukoa heldu ziren eta NBAko txapeldun, Chicago. Jordanek jaso du NBAko finaleko MVP (jokalaririk onena) saria. Hirugarren aldiz jarraian eskuratu du sari hau 1.98ko jokalariak.

PALMARESA

Urtea	Irabazlea		
1948	Baltimore Bullets	1947	Minneapolis Lakers
1950	Minneapolis Lakers	1949	Minneapolis Lakers
1952	Minneapolis Lakers	1951	Rochester Royals
1954	Minneapolis Lakers	1953	Minneapolis Lakers
1956	Philadelphia Warriors	1955	Syracuse Nationals
1958	San Louis Hawks	1957	Boston Celtics
1960	Boston Celtics	1959	Boston Celtics
1962	Boston Celtics	1961	Boston Celtics
1964	Boston Celtics	1963	Boston Celtics
1966	Boston Celtics	1965	Boston Celtics
1968	Boston Celtics	1967	Philadelphia Sixers
1970	New York Knicks	1969	Boston Celtics
1972	Los Angeles Lakers	1971	Milwaukee Bucks
1974	Boston Celtics	1973	New York Knicks
1976	Boston Celtics	1975	G. State Warriors
1978	Washington Bullets	1977	Portland T. Blazers
1980	Los Angeles Lakers	1979	Seattle Supersonics
1982	Los Angeles Lakers	1981	Boston Celtics
1984	Boston Celtics	1983	Philadelphia Sixers
1986	Boston Celtics	1985	Los Angeles Lakers
1988	Los Angeles Lakers	1987	Los Angeles Lakers
1990	Detroit Pistons	1989	Detroit Pistons
1992	Chicago Bulls	1991	Chicago Bulls
		1993	Chicago Bulls

ARRAUNKETA

Urki nagusi Euskadiko banku mugikorreko txapelketan

RAMON BASALDUA / **BILBO**

Donostiako Ur Kirolak taldeko zortzikotea nagusitu zen asteburu honetan Legution jokatu zen Euskadiko aulki mugikorreko txapelketan. Urki-ko untziak sekulako lehia izan zuen Donibaneko Arraunlariak eta Santurtziko Itsasoko Ama taldeko untziekin.

Azkenean donostiarrak izan ziren garaile, Donibaneko bigarrena segundu batera, Santurtzi hirugarrena hiru segundura, Arraun Lagunak laugarrena lau segundura, Orio bostgarren zortzi segundura eta Sestaoko Kaiku taldeko untzia seigarren hamaika segundura.

Laukoteetan, Oriok irabazi zuen, Arraun Lagunak eta Santiagotarrak taldeen aurretik. Bikoteetan ostera Santurtziko Itsasoko Ama izan zen onena.

Gaur zuek zarete protagonistak. 80 urtetako fideltasunaren ondoren, Atotxako zelai zaharrak *betiko agur* esan nahi dizue. Lagunarteko festa-giroan.
Benetako omenaldia eskainiz jokalaririk mirestuenari: errealaren afizioari.

ATOTXARI AZKEN AGURRA
- *Erreala - Athletic beteranoen partidua.*
- *Erreala - Euskadiko Selekzioa partidua.*
- *Donostiako Orfeoiaren emanaldia.*
- *Errealaren afizioari omenaldia.*
- *...eta askoz ere ustegabeko gehiago.*

BAZKIDEEK SARRERA DOHANIK

kutxa

REAL SOCIEDAD DE FVTBOL S.A.D.

Euskal Bizikleta

kutxa

Euskal Bizikleta arrakasta osoz amaitu zen joan den igandean, Piotr Ugrumoven garaipenarekin. Ohi den moduan, Arrateko Igoerak eman zion amaiera probari, eta iaz bezalaxe Chioccioli izan zen garaile. Letoniako txirrindulari profesional bakarrak liderraren maillot urdinari eutsi ahal izan zion. Santi Crespo altsasuarra izan zen lehen euskal txirrindularia, 10. tokian sailkatuta.

Ugrumov izarren multzoan bete-betean

Giroan bigarren izan ondoren, Euskal Bizikleta nagusitasunez irabazi du letoniarrak

PELLO AIESTARAN / **DONOSTIA**

Maila handiko gizonak izan dira aurten Euskal Bizikletan, eta espero bezala ikuskizunik onena eskaini dute Euskal Herriko errepideetan zehar korritu diren bost etapetan. Piotr Ugrumov, Gianni Bugno, Franco Chioccioli eta neurri txikiagoan Breukink, Zulle edo Delgado bezalako txirrindulariak ziren garaipena lortzeko faborito nagusiak.

Azkenean, faboritoen artean ere alde nabariak izan ziren. Argi eta garbi Giroan ibilitako txirrindulariak izan ziren nagusi, ohi den moduan. Piotr Ugrumov bi aldiz bigarren sailkatu zen Euskal Bizikletan, Seurrekin korritzen zuenean. Beti, ordea, bera baino gizon indartsuagoren bat aurkitzen zuen. Aurten badirudi gauzak aldatu egin direla letoniarrarentzat. Italian korritzeak mentalitatea aldatzea ere eragin dio berari, eta emaitzak hortxe daude. Bigarren Giroan Indurainen atzetik, eta astebete beranduago Euskal Bizikletan jaun eta jabe. Ate handitik sartu da, merezimendu osoz gainera, izarren multzoan. Hala ere, zoritxarrez ez dugu Tourrean ikusterik izango. Sasoi onean dago, baina atseden hartuko du. «Denboraldia Giroa ahalik eta sasoirik onenean egin asmoz prestatu genuen, ez nago orain Tourrean egoteko mentalizatuta. Tourra oso karrera berezia da, gogorra. Ez bazaude egoerarik onenean, hobe ez joatea. Orain atseden hartuko dut, eta gero denboraldia amaitzeko Munduko Kopako probak eta Munduko Txapelketa prestatuko ditut».

Gianni Bugno eta Franco Chioccioli hortxe ibili dira, Giroan eginiko lan kaskarra ahaztu asmoz. Azkenean, garaipena ezin izan dute lortu, baina gutxienez etapa bana eraman dute. Hurrengo probei begira oso garrantzitsua izan daiteke.



Azken bi ediziotan bigarren izan ondoren, garaipena lortu ahal izan du Ugrumovek Euskal Bizikletan. GILLENEA

CABESTANY EUSKAL ORDEZKARI ONENA

Argi zegoen Euskal Bizikleta irabaztea ezinezkoa izango zela. Hala ere, euskal ordezkariek espero bezalako lana egin dutela esan daiteke. Pello Ruiz Cabestanyk hirugarren etapa irabazi zuen —Seguran amaitu zena—, eta aurreko tokietan ibili da behin eta berriz. Santi Crespo nafarraren lana ere aipatu behar, sailkapenean lehen euskal txirrindularia izatea lortu baitu, profesionaletan zeresanik eman duten gizon askoren aurretik. Berak ziurtatu zuenez, «niretzatko hau ametsa zen. Asko kostatu zait profesionaletara moldatzea, baina badirudi pixkanaka lortzen ari naizela».

Crespo, Cabestany, Gaston, Etxabe, Aiarzaguena, Murgialdai eta Juan Antonio Zarrabeitia izan dira proba amaitu duten euskal ordezkariak.

Euskal Bizikleta handitzen ari da azken ediziotan. Aurrena bost etapako karrera izatea lortu zuen, eta partaidetza hobetu egin zuen. Aurten, Nafarroan sartu da lehenengo aldiz, eta datorren edizioan Iparralden amaituko da etapa bat, Miarritzen. Benetako Euskal Bizikleta izateko bidean da.

☆ **Nire butakatxotik** JUAN LUIS ZABALA

Sinplea eta gogorra

Nire pronostikoak hutsaren hurrengoa izan ohi dira eta, ohizkoa denez, igandean egin nuenak ere porrot egin zidan, azkenean Ugrumovek ez baitzuen Arrateko etapa irabazterik lortu. Dena den, Arrateko azken igoera ikusgarria izango zela esatean ez nuen hutsik egin, jakina. Zaila ere ez zen, baina horretan asmatu nuen behinik behin.

Lau gizonen arteko borroka latza ikusi genuen. Bugno eta Chioccioliren erasoak, Della Santaren ahalegina Ugrumov metro batzuk atzerago utzi eta Chioccioli harrapatzean, eta Ugrumoven defentsa sutsu, temati, indartsu, gogorra, azken orduko kontraeraso bortitz eta guzti...

Arrateko azken igoera horrek badu beste ezein karreratako amaierak ez duen emozio punttu berezia, hain gogorra eta hain biluzia delako, hain egiatia eta hain benetakoa... Indarra duena aurrera doa, eta ez duenari ederki igertzen zaio. Sinplea eta gogorra.

Lehen etapan tropelaren lasaitasuna kezkagarria iruditu bazitzaigun ere, azkenean polita eta mugitua izan da, oro har, aurtengo Euskal Bizikleta. Azken aldiko joerari jarraiki, Italiako taldeak izan dira jaun eta jabe, eta gizon bakarra izan da Italiako talde bateko kide izan gabe ezer irabaztea lortu duena: Neil Stephens. Gainerakoan, Mecair-Ballan, GB-MG eta Gatoradek banatu dute pastel osoa, inori esnegaina usaintzen ere utzi gabe.

Azkenean indartsuena izan da garaile. Ugrumovek garbi erakutsi du Giroan Indurainen atzetik bigarren izatea ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula. Chiocciolik Arrate oso gustukoa duela erakutsi duen bezala, Della Santak aurrerantzean kontuan hartu beharko dugula, eta Bugnok ez dagoela lur jota, Tourrean garaipenaren bila borrokan aritzeko aukera nekez izango badu ere. Tourra... Zorioneko Tourra... Horra gure hurrengo zita.

Sari Nagusia

kutxa

Sailkapena

Orokorra

1. Ugrumov (Mecair) 22.59.14
2. Chioccioli (GB) 16ra
3. Della Santa (Mapei) 28ra
4. Bugno (Gatorade) 4.22ra
5. Zulle (ONCE) 4.35era
6. Giovannetti (Mapei) 4.59ra
7. Hernandez (Mapei) 5.33ra
8. Vona (GB) 5.54era
9. Garcia (Deport.) 6.11ra
10. Crespo (Amaya) ..... d.b.
11. Muñoz (Kelme) ..... d.b.
12. Martin (Amaya) 6.38ra
13. Arroyo (Subaru) 7.02ra
14. Cabestany (Gat.) 7.14era
15. Dufaux (ONCE) 8.44era
16. Rodriguez (Clas) 10.40ra
17. Vanzella (GB) 10.58ra
18. Gaston (Clas) 12.09ra
19. Imboden (Mec.) 12.10era
20. Cadena (Kelme) 12.17ra
21. Van de Laer (Lotto) ..... d.b.
22. Bruyneel (ONCE) ..... d.b.
23. Etxabe (Clas) ..... d.b.
24. Breukink (ONCE) 13.27ra
25. Garcia (Art.) 14.54era
26. Moreno (Kelme) 18.09ra
27. Aiarzag. (ONCE) 18.43ra
28. Tonetti (Mapei) 21.47ra
29. Cubino (Amaya) 23.41era
30. Valbuena (Fest.) 25.22ra
31. Gainet. (Fest.) 28.04era
32. Edo (Kelme) 29.27ra
33. Camargo (Art.) 31.44era
34. Murgialdai (Ama) 32.39ra
35. Thijs (Collst.) 33.21era
36. Diaz (Kelme) 34.54era
37. Pellicioli (Gat.) 35.47ra
38. Baguet (Lotto) 35.58ra
39. Pillon (GB) 38.58ra
40. Manuilov (Fest.) 44.08ra
41. Klimov (Deport.) 44.39ra
42. Zarrab. (Amaya) 47.07ra
43. Pascual (Art.) 47.11ra
44. Frattini (Mec.) 49.11ra
45. Petegem (Lotto) 52.00ra
46. De Clerq (Lotto) 58.26ra
47. Carter (Subaru) 1.01.22ra
48. Dubois (Lotto) 1.03.28ra

Mendia

1. Ugrumov (Mecair) ..... 46 puntu
2. Cadena (Kelme) 37
3. Chioccioli (GB) 33
4. Bugno (Gatorade) 25
5. Della Santa (Mapei) 24

Tarteko Helmugak

1. De Clerq (Lotto) ..... 17 puntu
2. Vanzella (GB) 3
3. Tonetti (Mapei) 3
4. Cabestany (Gatorade) 2
5. Hernandez (Mapei) 1

Erregularitatea

1. Ugrumov (Mecair) ..... 62 puntu
2. Vanzella (GB) 51
3. Bugno (Gatorade) 47
4. Chioccioli (GB) 45
5. Della Santa (Mapei) 44

Taldekako sailkapena

1. Mapei 60.08.42
2. GB-MG 6.08ra
3. ONCE 8.34era
4. Kelme 13.39ra
5. Clas 18.55era

Euskal Bizikleta Sari Nagusia kutxa

TXIRRINDULARITZA

Txomin Perurenak zuzenduko du Euskadi taldea

R.B. / BILBO

Txomin Perurena izango da Euskadi txirrindulari taldeko zuzendaria, atzo Bilbon izandako prentsaurreko batean Miguel Madariaga eta Jaime Ugarte talde honetako lehendakari eta lehendakariordeak esan zutenaren arabera. Euskadi taldea datorren denboraldian estreinatuko da, oraindik ere taldea nortzuek osatuko duten aditzera eman ez duten arren. Nolanahi ere, zortzi edo bederatzi profesional izango dira, afizionatu mailako beste zazpi edo zortzi gizonekin batera.

Jaime Ugartek argi eta garbi utzi nahi izan zuen Euskadi taldea ez dela beste talde batzuetan kontratua duten gizonak fitxatzeko borrokan sartuko. Gauzak horrela, ikusi egin beharko da nortzuk diren aurtengo denboraldian kontratua amaitzen duten gizonak. Julian Gorospe horietariko bat da. Taldearen aurrekontua 300 milioi pezetakoa da, baina jantziak Etxeondo etxeak ipiniko ditu, bizikletak Orbea izango dira eta kotxeei dagokienez ere beste eskaintza batzuk daude.

Gauzak horrela, Euskadi txirrindulari taldean parte hartu nahi dutenek zabalik dute euren dirua sartzeko epea. Hogeita bat urtetik gorakoek hamar mila pezeta eta bost mila hogeita bat urtetik beherakoek.

PILOTA

Unidas eta Eskulari-Pilotaberri gaur Etxegaraten biltzekoak dira

Betiko enpresen arteko haustura baieztatu daiteke bilera horretan

Empresas Unidasek 1987an Eskulari-Pilotaberrirekin sinatutako akordioa baliogabea dela dio eta, ondorioz, enpresa independente bezala aritzeko asmoa ere agertu du. Gaur Eskulari-Pilotaberriko ordezkariekin hitz egingo dute, baina dirudienez zaila izango da adostasunik lortzea.

DONOSTIA

Asegarce pilotaren munduan enpresa bezala funtzionatzen hasi zenetik, gauzak asko aldatu direla argi dago. 1987an Unidas eta REURek kontratua sinatu zuten, beren artean erasorik egon ez zedin. Orain, ordea, Unidasek kontratu hori baliorik gabe uztea erabaki du, «bakoitzak bere aldetik segitzea baita onena, bakoitzak bere koadroarekin».

Gaur Etxegaraten egingo den bileran, Empresas Unidas eta Eskulari-Pilotaberrik arazo hau eztabaidatuko dute, baina ez dirudi adostasunik lortzeko aukera handirik dagoenik. Unidasekoek honezkero erabakia hartuta dutela dirudi.

«Akordio zehatzak egin daitezke, baina leialtasunez jokatu behar dugu». Bai Unidasek eta baita REURek ere Asegarcerekin lehenengo kontaktuak izan dituzte itxuraz —hori izan daiteke, hain zuzen ere, betiko enpresen arteko hausturaren arrazoi nagusia— eta, beraz, aurrerantzean aldaketa dexente ere izan daitezke. Dena den, gaurko bilerak zer ematen duen ikusi egin behar.

Pala jokalariak protagonista dira azken egunotan Carmelo Baldan. SIMAL

Carmelo Baldan pala partiduak izango dira ikusgai gaur, azken egunotan hasitako ohituari jarraituz. Lehenengo partiduan Garma eta Nuñezek, Landea eta Zabalaren kontra jokatuko dute. Ondoren Iturzaeta-Astola eta Sanchez-Torre bikoteak ariko dira lehian.

JOKALARI UGARI BURUZ-BURUKOAN

Zestapunta neurketak ere ez dira faltako. Goixerri-Olasagasti eta Eleizgarai-Jauregi izango dira hirugarren partiduan, eta Ithurriau Gaztañagak Goya I-Goya II bikotearen kontra jokatuko dute.

Partaidetza handia izango du laster jokatuko den Euskadiko buruz-buruko zestapunta txapelketak. Gauzak horrela, honako pilotari hauek hartuko dute parte aurreneko fasean: Arriaga, Konpa, Unanue, Robles, Felix, Arkarazo, Jauregi, Etxalus eta Baldako koadroko bi pilotari (Goixerri, Lertxundi, Azti eta Ithurriaren artetik irtengo dira).

Pilotari guzti hauek kanporaketa batzuk jokatuko dituzte eta bi besterik ez dira hurrengo fasera pasatuko.

Lehen fasetik etorritako bi pilotarien eta Remen, Uriarte, Txikito Bolibar eta Alberdiren arteko liga izango da. Liga amaitu eta eta finalak jokatuko dira.

GOLFA

Lee Janzenek irabazi du EEBBetako Irekia

SPRINGFIELD

Lee Janzen estatubatuarrak irabazi du aurtengo EEBBetako Irekia, 272 kolperekin onena izan baita. 28 urte ditu eta bere aurreneko Grand Slam-a da. Lau jardunaldietan zehar, erregularitatea izan da bere armarik onena, guztietan 70 kolpetik behera ibili baita. Orain arte, historian jokalari bakar batek lortua zuen hori.

EEBBetako Ireki hau estatubatuarren torneoa izaten da, beti etxean geratzen baita txapela. Aurten ere, horrelaxe izan da. Euren dominioa begi-bistan dago: sailkapen orokorreko lehen hamarretatik zortzi bertakoak dira, bat australiarra (Craig Parry) eta beste bat hego afrikarra (Ernie Els).

Janzenek txapelaz gain, 36 milioi pezeta (1.6 milioi libera inguru) patrikaratuko ditu eta bigarren izan den Payne Stewart estatubatuarrak erdia.

Olazabalek porrot egin zuen, bigarren jardunaldian mozketa gainditzerik ez zuelako izan.

SAILKAPENA

1. Janzen	272
2. Stewart	274
3. Parry	277
... Azinger	277
5. Watson	278
... Hoch	278
7. Funk	279
... Henke	279
... Els	279
... Floyd	279

TENISA

Agassi, arazorik gabe lehen egunean

LONDRES

Atzo hasi zen Wimbledon-eko Tenis Txapelketa eta aurreneko jardunaldian ez zen inolako ezusterik izan, edizio hau ixterakoan genituen emaitzetan behintzat. Iaz gizonezkoetan txapeldun izan zen Andre Agassi estatubatuarrak Bernd Karbacher alemaniarrarekin neurtu zituen bere indarrak eta ez zuen inolako arazorik izan gainditzeko. Aurreneko setean bota behar izan zuen izerdi gehien, 7-5 irabazteko. Beste bietan ordea 6-4 eta 6-0.

Malivai Washington estatubatuarrak ere aurrera egin du, Guillaume Raoux frantziarra kanpoan utziz. Txapelketako hamalaugarren zerrendaburua den Malivai Washingtonek latz borrokatu zuen partidu osoan zehar, frantziarrak gauzak zail jarri zizkiolako. Bost set jokatuta bidali zuen etxera: 4-6, 6-1, 1-6, 6-2 eta 6-3.

Agian jardunaldiko ezuste aipagarriena Richaey Reneberg-ek eman zuen, Stephane Simian frantziar ezezagunaren kontra galdu egin zuelako: 3-6, 7-5, 4-6, 7-6 (7-4) eta 6-3. Aaron Krickstein, Luis Herrera, Andrew Foster, Jared Palmer, Todd Martin eta Paul Kilderryk ere aurrera egin dute.

Emakumezkoetan, hamargarren zerrendaburua den Magdalena Maleeva bulgariarrak egun lasaia izan zuen, bere partidua erraztasun osoz atera baitzuen aurrera: 6-2 bikoitzez gainditu zuen Leila Meskhi.

Amanda Coezter hegoafrikarrak partidu zailagoa izan zuen Sandrine Testud frantziarraren aurka. Partiduko aurreneko seta 6-3 bereganatu zuen hegoafrikarrak, bigarrena emaitza berdinaz galduz. Azkenengo seta ere 6-3koa izan zen, baina kasu honetan Amanda Coezterren jokalariaren alde.

Shaun Stafford eta Nicole Arendt estatubatuarrek bigarren kanporaketarako txartela irabazi zuten, Silke Meier eta Isabelle Dremiongeot-i gailenduz.

Atotxako Udal Futbol Zelaia

— Ekainak 22, arteartea —
* 17.30etan:

REAL SOCIEDAD ETA ATHLETICeko BETERANOAK

* 20.30etan:

REAL SOCIEDAD DE FUTBOL - EUSKADIko SELEKZIOA

GIPUZKOA ENPARANTZAKO "BIDASOA TABERNAKO"ko LEHIATILETAN SALMENTA:
- Larunbata 19, 17etatik 20etara.
- Igandea 20, 11etatik 13 etara.
- Astelehena 21, 11etatik 13etara eta 17etatik 20etara.
- Asteartea 22, 11etatik 13etara.

ATOTXAKO LEHIATILAK:
- Asteartea 22, 18etatik aurrera.

Ohizko saltoki laguntzaileetan ere gauzatuko salmenta.

SALNEURRIA:

TRIBUNA	2.000.
ERDIKO PREFERENTZIA, LEHENENGO ILARA	1.500.
ERDIKO PREFERENTZIA, BIGARREN ILARA	1.400.
ERDIKO PREFERENTZIA	1.100.
PREFERENTZIA	1.000.
HAURREK (14 urte arte)	200.

BAZKIDEAK:
- HILABETEKOAK: APIRILA- MAIATZA-EKAINAko DIRUAGIRI TXARTELAZ.
- EPEKAKOAK: 1993ko BIGARREN EPEAREN TXARTELAZ.
- URTE OSOKOAK: 1993ko TXARTELAZ.

Margaret Price izango da gaur Arriagan Musikaldiaren barruan

Orkestra Sinfonikoarekin ariko da Matxavarianiren zuzendaritzapean

Margaret Price bakarlari irlandarrak Mahler-en obra bat abestuko du gaur arratsean Bilboko Arriaga antzokian Musikaldiaren barruan. Price Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera ariko da Vakhtang Matxavariani georgiarraren zuzendaritzapean.

G. AGIRRE / **BILBO**

Matxavariani eta Margaret Price atzoko prentsaurrekoan. XOUSE SIMAL

Galesen jaiotako Margaret Price bakarlariak, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera, eta Matxavarianik zuzendurik, Mahlerren lau zenbakiko sinfonia eskainiko du gaurko kontzertuaren lehenengo zatian. Bigarrenean, berriz, Wagnerren 'Oihanaren zurrumurruak' obertura edo 'Sigfrido' opera eta Mahlerren 'Rückert Lieder' abestuko ditu.

Gaurko kontzertua zuzenduko duen Vakhtang Matxavarianiren hitzetan, Gustav Mahler konpositorea «Straussekin batera XX. mendeko azken erromantikoa da, oso intimista eta sentibera». Bilboko Orkestra Sinfonikoak, Tbilisiko zuzendariaren hitzetan, «Europako hegoaldean egon arren, potentzial handia dauka eta oso musikari onak ditu, batez ere, kontzertinoak». Hala ere, Bilboko Orkestrari «diziplina musikala edo lan sistematikoa falta» zaiola azpimarkatu zuen.

Matxavariani Georgiako Orkestrako musika zuzendari iraunkorra da eta 1992-93 denboraldian, bi kontzertu zuzendu ditu Saint-Etienneko Massenet Jaialdian eta 'La Dame de Pique' Bastilleko Operan, Moskuko kontzertuez gain.

Operako bakarlari gisa ezagutua den arren, Margaret Pricek argi utzi du honako hau: «Opera eta *lieder*-ak abestu izan ditut txandaka. Hemezortzi urte besterik ez nituenean Mahlerren obra bat abestu nuen, horregatik niretzat ez da berria».

Priceren ustez, «oso zoriontsua naiz estilo ezberdinak tartekatu ditudalako. Bakarlari askok gaztetan opera bakarrik kantatzen dute, eta oso lodi eta zahar daudenean, *lieder*-ak abesten hasten dira. Baina, aldaketa oso zaila da, estiloa ezberdina da eta ikastea oso zaila da».

Gaur egun Verdiren abeslaririk nabarmenetakoa den Pricek gaelikoaren ezagutzak beste hizkuntza batzuetan kantatzeko orduan dakarren abantaila nabarmendu zuen. «Gaelikoa oso hizkuntza musikala da eta gaelikoa menperatuz gero errazagoa da italieraz, frantsesez edo alemanez abestea. Ingelesak diptongo asko ditu, horregatik zailagoa da beste hizkuntza batzuetan kantatzea». Adituen ustez, Pricek bikain kantatzen du edozein hizkuntzatan.

> ✓ Margaret Price: «Gaelikoa oso hizkuntza musikala da eta gaelikoa menperatuz gero errazagoa da italieraz, frantsesez edo alemanez abestea».

Bakarlari irlandarrak mundu zabaleko opera antzoki nagusienetan dihardu gaur egun, Milaneko La Scalan, Vienako Staatsoperren, Covent Gardenen eta abarretan. Price orkestra lagun duen bakarlari gisa ospetsua da eta garaiko zuzendaririk bikainenetako batzuekin egin du lan. Oso ezaguna da errezitatzaile modura eta oso ospetsua bere errepertorio zabalagatik, hizkuntza askotan kantatzen baitu.

Price 'Bayerische Kammersangerin' bat da eta BE saria eskuratu zuen orain dela 11 urte. 1988. urtean musikako doktore izendatu zuen Galeseko Unibertsitateak eta aurten Inperio Britainiarreko Dama izendatu dute.

Keñuk sorkuntza lehiaketa irabazi zuen

L. E. / **DONIBANE GARAZI**

Keñu Donibane Lohizune Ziburuko taldeak irabazi zuen igande arratsaldean Donibane Garazin Euskal Kultur Erakundeak antolatu zuen Euskal Sorkuntza Gaztearen I. Zeingehiagoka. Mister Saguak Hazparneko rock taldeak bigarren saria jaso zuen.

Publikoaren eskasa nabaritu zen joan zen igandeko lehiaketan. Taldeen lagunak ezik, jende gutxi mugitu zen sargoriak itotzen zuen Vauban zinema gelara. Aukeratuak ziren bost taldeek interesa sortzen ahal zuten beren ezberdintasun nabariarengatik: Manex Muturbeltz kantaria, Garaziko Exarren ahizpak, Pantxoa Bergara, Keñu taldea eta Mister Saguak.

Bakoitzak estilo ezberdina aukeratu zuen. Epaiketaren orduan zailtasunak zitezkeen alderatu ezinen aukeratzeko. Argi da behintzat epaimahaiak, bost kantari profesional, musika irakasle eta hiru administrazio ordezkariek beren aukera musika lantua zekartzaten taldeei buruz itzuli dutela.

Irabazlearen Saria, konpakto baten grabatzeko ahaltasuna da, sei kantarekin, baldintza profesionaletan eta kantari ezagun baten babespean. Keñu taldeari egokitu zaio. Mister Saguak hard rock talde hazpandarrari EKEk kontzertu batzuk eskainiko dizkio. Sari horiek taldeentzat gauza preziagarriak dira, denek grina bera agertu baitute, edo grabaketa baten ahaltasuna edo tauletan ibiltzearena.

Serge Lonca saratarrak, Manex Muturbeltz izenarekin taula gaineko benturari lotu zitzaion duela bi urte. Ikastolako irakaslea igandean lehendabiziko aldiz talde batekin aritu zen. Garaziko Etxarren ahizpak Iruriko Euskal Kantu Txapelketan irabazle atera ziren. Isabelle, Juani eta Marie-Estherrek talde atsegina osatu zuten jazz munduan, beren aitaren hitzak kantatuz.

Hirugarren lehiatu zen Keñu taldeak bere profesionaltasuna agertu zuen. Aspaldian elkarrekin dabiltza sei musikariak, musika garaikide rock gozo baten antzekoarekin. Kanta oso lantuak aurkeztu zituzten: horrek egin zukeen besteekiko diferentzia.

Hazparneko Mister Saguak rock taldeak bigarren saria jaso zuen. L. E.

Pantxoa Bergara bardo baten itxurarekin agertu zen berriro, bi musikari laguńekin. Parisera joan lagun bati eskaini kanta ederra eman zuen. Datozen urteetako euskal kantagintzako izen nagusietarik izango dela nabari zen igandean. Azkenik aritu zen Mister Saguak, Hazparneko hard rock taldeak bere taula gainerako jeinutasuna agertu zuen.

Nafarroako Jaialdietako Margolaritza Lehiaketak badu irabazlea

J. K. LAKASTA / **IRUÑEA**

Eduard Resvier Kataluniako margolariak 'Nafarroako Jaialdiak XI. Margolaritza Lehiaketa' irabazi du 2 x 2 metroko izenik gabeko olio bati esker. Beltza eta txuria dira nagusi forma geometrikoekin osatutako olio horretan. Lehiaketako epaimahaiak atzo plazaratu zuen erabakia, eta Jose Antonio Eslava epaimahaikideak azaldu zuenez, koadroaren ezaugarri horiek berebiziko garrantzia izan dute erabakian. «Lana berezia da oso. Eduardek ilunaren eta argiaren arteko oreka lortu du, iluntasunak txuria dena jaten du, erabat jan gabe. Kaosean oreka ezartzeko nahia sumatzen da olioan. Hiltzear dagoen argi motel baten bidez lortu nahi du oreka hori, baina argi motel hori argi garrantzitsuago baten iragarpena izan daiteke. Horrek nolabait oreka mugikorra isladatzen du, oreka ezegonkorra. Koadroa beraz oso ederra da».

Eduard Resvier 24 urteko Bartzelonako gazteak bi miloi pezeta jasoko ditu bere olioaren truke. Resvierrek dagoeneko hainbat talde erakusketatan hartu du parte, eta behin baino gehiagotan bakarka egin ahal izan ditu erakustaldiak. Koadro irabazlea egun bakarrean margotu zuen, «baina egitura geometrikoak aurretik landuta zeuden». Berak atzo azaldu zuenez, koadro irabazlean ez zuen kaosa orekatu nahi, bere helburua kaosa ulertzea omen zen. «Kaosa ulertzen saiatu naiz, oreka bilatu gabe. Pentsaera berri batekin bat datorren koadroa da. Orekatik ihes egiten duen ideologia da, diferentziak eta onartzen dituen ideologia». Kataluniako margolariak azaldu zuenez, gainditu egin du margotzeko era hori, eta beste bide batzuetan barrena abiatu da.

Aurtengo Nafarroako Jaialdiak Margolaritza Lehiaketan orotara 319 lan aurkeztu dituzte, eta antolatzaileen esanetan aipagarria da oso obra gehienen kalitate ona eta tamaina handia. Epaimahaiak 319 margo horien artean 32 hautatu zituen, eta horietatik sei erosteko aukera gorde zuen. Azkenean, esan bezala, Resvierren lana atera zen garaile.

William Golding idazle britainiarra hil da

LONDRES

William Golding idazle britainiarra joan den larunbatean hil zen Falmouth (Cornualles) hiri ingelesean, 81 urte zituela. Literaturako Nobel Saria eskuratu zuen 1983an William Goldingek.

William Goldingen eleberririk ezagunena, 'Eulien ugazaba' izenekoa, Joxe Austin Arrietak euskaratu eta Elkar argitaletxeak eman zuen argitara 1990ean. Haur batzuek irla batean galdurik bizi duten abenturan oinarriturik, giza izaeraren alderdirik ilunenak utzi zituen agerian Goldingek eleberri horretan.

Bigarren Mundu Gerran Britainiako Armadako kide izan zen Golding eta Normandiako lehorreratzeko guduan parte hartu zuen. Idazleak berak behin baino gehiagotan esan zuenez, orduan bizi izandako esperientziak izan ziren 'Eulien ugazaba' eleberriaren sorburu nagusia. Honako mezu hau zabaldu nahi izan zien Goldingek bere obraren bidez britainiarrei, egileak berak hainbat elkarrizketa eta adierazpenetan azaldu zuenez: «Gerra irabazi eta nazismoa gailendu duzuelakoan zaudete; eta, horrenbestez, herri zintzo eta garbia osatzen duzuelakoan. Baina, begira ezazue zuen inguruan: gaitza gu guztion baitan dago».

Bi filmeren oinarri ere egin zen Goldingen 'Eulien ugazaba', eta bai filmeek eta bai liburuaren arrakastak oso pertsonaia ezagun eta ospetsu bihurtu zuten. Ospe horren ondorioz, 1988an Britainiar Inperioko Ordeneko zaldun titulua eman zion Isabel II Ingalaterrako erreginak.

Cornwell (Cornualles) da Goldingen jaioterria. 1911ko irailaren 19an ikusi zuen idazleak lehen argia. Marlborough Grammar Schoolen egin zituen lehen ikasketak eta gero Oxfordeko unibertsitatean graduatu zen. Bigarren mundu gerra amaitu ostean, Wordsworth-eko (Salisbury) gotzaindegian egin zuen lan, 15 urtez, gramatika ingeleseko irakasle gisa.

«Bere arte narratibo errealistaren garbitasuna eta egungo giza izaera argitzen duen mitoaren dibertsitatea» goraipatu zituen Suediako Akademiak Nobel Saria ematean.

Agirre eta Murumendiaraz txapeldun

Bergararrak aise nagusitu ziren Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketan

Amaia Agirre eta Eduardo Murumendiaraz bergararrek irabazi zuten igandean Seguran jokatu zen Euskadiko XVII. Dantza Askatuko Txapelketa. Lehengo urtean garaipena eskuratu eta aurten faborito ziren Belen Sagarzazu eta Isaac Agirre bigarren postuan sailkatu ziren.

MIKEL ARRIETA / **SEGURA**

Azken urteotan garaipenaren atzetik ibili ostean, igandean merezitako garaipena lortu zuten Amaia Agirre eta Eduardo Murumendiarazek. Trikitiarekin txistuarekin baino hobeto moldatu ziren arren, oro har bikain aritu ziren bergararrak. Eduardo Murumendiaraz garaipen honen atzetik ibili da azken urteotan. Amaia Agirre Murumendiarazek txapelketa honetara aurkezten duen hirugarren bikotekidea da (lehengo urtean jadanik bigarren egin zuten elkarrekin), eta azkenean lortu dute garaipena.

Pronostikoen kontra gainera. Lehengo urtean garaile gertatu ziren Belen Sagarzazu eta Isaac Agirre ziren Txapelketa honetako XVII. edizioa irabazteko faborito nagusiak. Azkoitiko bikoteak igandean irabaziz gero, bere egingo zuten Nestor Basterretxearen garaikurra. Bergarako Udalak gordeko du ordea, urte batez Basterretxearen garaikurra. Honekin batera, 50.000 pezeta (2.500 libera inguru), urrezko plaka, makila, txapela, zapia eta Donostiako Turismo Ekintzetxeak emandako bidaia eskuratu zituzten Bergarakoek. Belen Sagarzazu eta Isaac Agirrek 40.000 pezeta eta zilarrezko plaka eskuratu zituzten.

Amaia Agirre eta Eduardo Murumendiaraz txapeldunak. MIKEL ARRIETA

Sailkapena

Bikotea	Txistu	Trikitixa	Orotara
1. E. Muruamendiaraz - Amaia Agirre	250	258	508
2. Isaac Agire - Belen Sagarzazu	243,5	249	492,5
3. Iban Agote - Iraultza Garmendia	228	231,5	459,5
4. J. Aitzpitarte - Alazne Gonzalez	226	229,5	455,5
5. Xabier Lago - Cristina Ruiz	223	231	454
6. Parrondo anai-arrebak	230,5	219,5	450
7. Kimetz eta Eneritz Larrañaga	220,5	225,5	446
8. Ibon Elorza - Olatz Nograro	214,5	216,5	431
9. T. Ugaldebere - Miren Illarreta	214,7	202	416,7
10. Iban eta Nekane Gabilondo	207,5	203,5	411
11. Pello eta Isabel Etxarte	209	201	410
12. Isaac eta Eba Aranbarri	201,5	195,5	397
13. Gorka Saez - Arantxa Uribarren	200,5	187	387,5
14. Iker Basauri - Olatz Gabilondo	192,5	192,5	385
15. Unai eta Nerea Bengoetxea	191,2	189,5	380,7
16. Miren eta Oskar	190	182	372

MAILA HANDIKO TXAPELKETA

Lezoko Iraultza Garmendia eta Iban Agote bikoteak osatu zuen podiuma. Aurreko bi bikoteengandik oso urrun, lehia polita izan zen hirugarren posturako. Iraultza Garmendia-Iban Agote (Lezo), Alazne Gonzalez-Joseba Aitzpitarte (Azkoitia), Cristina Ruiz-Xabier Lago (Sestao) eta Parrondo anai-arrebak (Hernani) bederatzi puntuko aldean sailkatu ziren. Azkenean Lezokoak izan ziren hirugarren. Era honetan Segurako Txapelketak eman duen bikote onenetarikoaren (Juan Joxe Ugalde eta Edurne Esnaola) Lezoko 'harrobiaren' lehen emaitzak agerian geratu dira.

Aipatu behar da oro har 17 bikoteek oso maila polita erakutsi zutela. Patxi Sarasola, Juan Joxe Ugalde, Xabier Mendizabal, Juanma Oronoz eta Gene Yurre epaimahaikideek ez zuten inolako arazorik izan sailkapena osatzeko. Txapelketa aurretik, epaimahaian idazkari lana egin duen Axen Egañari omenaldia eskaini zioten antolatzaileek. Mikel Sarriegik ere bat egin zuen omenaldi honekin, eta ohorezko aurreskua dantzatu zuen hasieran. Txapelketa amaieran eta epaimahaiak erabakia hartu bitartean, Euskal Herriko Aurreskulari Txapelketako txapeldunordeak Alpargata, Agurra eta Zortzikoa dantzatu zituen.

Aberastasuna

M. A. / **SEGURA**

Dantza munduan esanahi berezia du urtero Seguran jokatzen den Euskadiko Dantza Askatuko Txapelketak. Dantza munduan ezohizkoak diren antolaketa maila, erakarpena eta oihartzuna ditu txapelketa honek. Erakundeek ere garrantzi berezia ematen diote txapelketa honi. Igandean bertan ziren sariak banatzen Eusko Jaurlaritzako Patxi Plazaola, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatua den Maria Jesus Aranburu eta Karmentxu Etxeberria Segurako alkatea.

Bada ordea dantzarien artean egonezina sortzen duen puntu bat. Euskal Herriko txapelketa izanik, eta arauek besterik zehazten duten arren, epaimahaikide guztiak gipuzkoarrak dira. Zentzu honetan ulertzekoa da bostgarren postuan sailkatu zen Cristina Ruiz-Xabier Lago bikotearen haserrea. Sestaokoek hirugarren egin zuten lehengo urteko txapelketan, eta aurten maila polita erakutsi arren, bostgarren egin zuten. Ez ziren batere pozik txapelketa amaitu ostean.

Era berean ezin aipatu gabe utzi Isabel eta Pello Etxarte Iruñeko bikotearen lana. Nafarroako ordezkariek, Sestaoko bikoteak bezala, txalo ugari jaso zituzten jendearen aldetik, baina azkenean 11. sailkatu ziren. Dantza askatuaren baitan estilo arras ezberdinak daudela erakusten digu txapelketa honek. Epaimahaiak ere aberastasun hori isladatu beharko luke.

LABURREAN

LUIS DE PABLOren operak arrakasta handia Venezian

Luis de Pablo musikari bilbotarraren 'La madre invita a comer' operak arrakasta handia eta harrera beroa izan zuen joan zen larunbat gauean Veneziako Biurtekoan egindako estreinaldian. Ikusleak hamar minutuz aritu ziren emanaldi bukaeran txalo betean, eta kritikak aho batez goretsi zuen opera ●

EUSKO Jaurlaritza Liber erakusketan izango da

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila gaurtik larunbatera arte Bartzelonan egingo den Liber'93 Liburuaren Nazioarteko XI. Erakusketan izango da. Stand batek ordezkatuko du Eusko Jaurlaritza, eta bertan, euskarazko zein gaztelerazko argitalpen berriak ikusgai egongo dira, baita euskal arlo honetan sortzen diren jarduerak ere ●

MONSIEUR KLEBS eta Rosalie' lana gaur Gasteizen

Topo antzerki taldeak 'Monsieur Klebs eta Rosalie' obra taularatuko du gaur eta bihar Gasteizko Principal antzokian gaueko 9.00etatik aurrera. Gaurko emanaldia gazteleraz izango da eta biharkoa euskaraz. Sekretu izugarriak gordetzen dituen mediku baten bizimodu are sekretuagoa jasotzen du Rene de Obaldiaren obrak ●

ARKITEKTOen elkargoak beste bi hitzaldi antolatu ditu

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Gipuzkoako Ordezkaritzak beste bi hitzaldi antolatu ditu aste honetarako, apirilean eta maiatzean egindakoei jarraipena emanez. Bihar, 'Reimseko Katedralaren inguruaren proiektua eta lan eginberriak' gaiaren gainean hitz egingo du Patxi Mangadok arratsaldeko 7.30etan Kutxak Donostiako Andia kalean duen aretoan. Eta etzi, ordu eta toki berean, 'Reimseko Katedralaren ingurua birgaitzeko proiektua eta beste proiektu batzuk' izeneko hitzaldia eskainiko du Jose Ignacio Linazasorok ●

Bertso kronika

Saio atsegina Tolosan

IÑAKI AGIRRESAROBE / **TOLOSA**

Beotibarren ohiz biltzen den baino gutxixeago, baina 700 bat entzule bildu ziren. Sorpresa ttiki bat ere aurkeztu zuen gaijartzaileak: Asteasun Txirrita eta Pello Errotaren disko zahar bat aurkitu denez, haren zatitxo bat. Nahiko liluragarria suertatu zen baina grabaketa egoera onean ez zegoenez, ez zen oso ongi ulertzen. Bitxikeria atsegin horren ondoren, ohizko saio formala hasi zen.

Zortzikoteari mugikortasuna ematea erraza ez zenez, gaijartzaileak nahiko ondo egokiturik lan bitxiak edo ezohizko batzuk ere aurkeztu zituen. Gaiekin asmatzea gauza zaila denez gaur egun, laukotea lehenengoz jarri zuen: «Aszensorea erdi bidean gelditu da, lau protagonista barruan: Lazkano, hirugarren pisuko etxekoandrea; Murua Jehovaren lekukoa; Zeberio butaneroa; eta Sarasua lore sortarekin andregaiarengana zihoan gaztea. Astelehenera arte ez datoz konpontzera». Girotzeko bertso bitxi eta barregari batzuk entzun ziren.

Iñaki Murua:
Ez genduen nahi baina
Jehovak entzungor,
ta gure aszensorea
zapla! gelditu hor.
Porta zaitezte zuzen
denok izan jator,
munduan bukaera
berehala dator. (bis)

Imanol Lazkano
Ez dituk alperrikan
presako jardunak,
hemen aurrerapenak
dira errudunak.
Hemendikan somatzen
ditut nik lurrunak,
akabo eguardiko
nere babarrunak. (bis)

Jon Sarasua:
Jehovako honekin
hau da gorabehera,
mundua joango da bai
oraindik aurrera.
Baina zu ixilikan
egote ez bazera
laster iritsiko da
zure bukaera. (bis)

Bertso gosea asetu ahal izan zuten Tolosako entzuleek. I. AGIRRESAROBE

Xabier Zeberio:
Laurok gelditu gera
aszensore baten,
aberiatu da ta
ezin gara irten.
Jehovak ez badigu
milagrorik egiten,
butanorik ez dago
astelehena arten. (bis)

Launakako lanetan ondo murgildu ziren bataz beste saioan. Agirre arrazoi zuzen eta erantzun azkarrekin ibili zen. Bat-batekotasuna eta ahozkotasuna bere barnean daramala ederki erakutsiz. Gai batean erantzun ederrak bota zizkion Munduateri: «Mundua te gazteak, maitemindurik, andregaiari oparia egin nahi dio, baina ez daki zer erregalatu. Agirrerengana aholku eske joan da».

Joxe Agirre:
Aldamenetik jotzen hasi zait
uste ez nuen orkesta,
ezjakina naiz baina nik orain
egin nahi diot protesta.

Gaurko gaztea izatekotan
hau oso bizkorra ez da:
«Neska bati zer erregalatu?»
aitona bati galdezka.

Jendearen gustagarri suertatu zen beste une bat, laukote batentzat jarritako lan batekin suertatu zen. Gaiak gaurkotasunik badu, eta oso era originalean landu zuen aurkezleak. Inkesta bat egin zien zezenketari buruz Lazkano, Agirre, Zeberio eta Munduateri. Hauen erantzuna bertsotan entzun ondoren, honako debatean jarri zituen: Lizaso, zezenketa zalea; Murua, animalien babeserako taldekide; Sarasua, zezenketen gerente antolatzailea; Irazu koadrilen batzordekoa. Aipagarria Sarasuak jendearen gogoz kontrako paperean egin zuen lana, oso kontzentraturik eta jendearen barneraino helduz.

Jon Sarasua:
Hauteskundeak ere zeharka
arrazoi ematen du maiz,
ta Donostian zezen korridak
ikusiko dira garaiz.
Nahiz eta hemen ekologistak
izan niganako bekaitz,
Don Odon eta Ordoñezekin (bis)
oso ondo konpontzen naiz.

Fitxa teknikoa

Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Iñaki Murua, Imanol Lazkano, Joxe Agirre, Joxe Munduate, Jesus Mari Irazu, Jon Sarasua eta Xabier Zeberio.
Gaijartzailea: Tolosako bertso eskola.
Aurkezlea: Felix Irazustabarrena.
Herria: Tolosa.
Lekua: Beotibar pilotalekua.
Eguna: ekainak 19, larunbata.
Ordua: 23.00.
Antolatzailea: Euskal Herriko Bertsolari Elkartea (EHBE), 'Ari naizela, ari naizela...' kanpainaren barruan.
Doinuak: Sei saio zortziko txikian eta beste horrenbeste zortziko handian.

Ondo landutako gaiak

I. A. / **TOLOSA**

Bertso eskolakoek denetako gaiak jarri zituzten, bai gaurkotasuna zutenak (Aita Santuaren eta Arriortuaren protagonismoa), bai barregarri suerta zitezkeenak, bai serioak eta bai bitxiak. Gauza berriak lantzen ere saiatu ziren, hau da, inkestarena, eta azkenean ezohizko agurra abestea agindu zieten bertsolariei, hots, albokoak kantatuko zukeen agurra.

Bestalde, puntuka Agirre eta Lazkano gai librean etxean hitz egiten ariko balira bezala aritu ziren: azkar, zorrotz eta umoretsu. Gehien txaloturiko saioa bilakatu zen, eta jendeak bi helduen esperientzia eta etorria eskertu zuen.

Saioak beheraldia sumatu zuen, baina ustekabean puntukako saioak igo egin zuen.

Zortzikotearekin mugikortasuna eta saioak berea ematea ez da erraza izaten, hasiera batean pentsaturik, baina ordu t'erdiko saio batekin entzuleak ase eta bere punttuan uzteko parada izan zuten bertsolariek.

ASTEKO zipristinak

❑ **Itsasondo:** Mikel Mendizabal, Euzkitze eta Imanol Lazkanok oso giro oneko bertso afaria izan zuten iragan ostiralean, Kultur Astearen amaiera gisa. Bertakoa izanik, Mikel Mendizabalek ongi zekien nori zer esan, eta bai ederki erakutsi ere bere bi lagunei. Elkarri ondo erantzunez eta bizi-bizi, saio bikaina egin zuten bertsolariek.

❑ **Olaberria:** Hego haizea eta gau giro epel eta berezia izan zuen Jon Sarasua, Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Jesus Mari Irazu eta Maddalen Lujanbiok ostiral gauean egin zuten bertso saioak. Entzule ugari bildu zen bertsolarien aurreko zelaian ezarritako aulkietan. Giro paregabe horretan, bertsotan ere ondo asmatu zuten bertsolariek, hasieran batez ere, gero —hego haizearen eraginez beharbada— pixka bat desmadratu egin baziren ere. Entzuleak oso gustura geratu ziren.

❑ **Olakua** (Oñati): Anjel Mari Peñagarikano eta Andoni Egañak alaitu zituzten auzoko jaiak larunbat eguerdiz.

❑ **Iruñea:** Manolo Arozena, Iñaki Murua eta Sebastian Lizasok alaitu zuten, larunbat eguerdian, Amaiur udal ikastolak antolatutako herri bazkaria.

❑ **Lesaka:** Euzkitze, Andoni Egaña, Joxe Lizaso, Jose Luis Gorrotxategi, Manolo Arozena eta Bittor Elizagoienek hartu zuten parte larunbat gauean Maurizio Mitxelena, Josetxo Iantzi, Luis Olaetxea eta Dionisio Mujikaren omenez egin zen saioan. Ongi prestatu zituen Iñaki Perurena harrijasotzaileak bertsolariei eman beharreko gaiak. Ez zen jende asko ere bildu —400 lagun inguru— baina itxurazko saioa izan zen. Ohizkoa denez, Joxe Lizasok bere erako ateraldi bitxiak egin zituen.

❑ **Usurbil:** Xabier Amuriza eta Mikel Mendizabalek herriko kasko zaharraren berriztapen lanen amaierako ospakizunetan parte hartu zuten igande eguerdian, bertsoak kantatuz. Kasko zaharra erabat berritu eta dotoretuta geratu da, eta horixe izan zuten aipagai bertso saioan ere.

❑ **Errigoiti:** Librean hasi zirenean, herrikoa den eta egun espetxeratua dagoen Txiplas bertsolaria gogoratu zuten Jon Enbeita, Jon Sarasua, Unai Iturriaga, Aritz Lopategi eta Juan Mari Areitiok igande eguerdian egin zuten saioan. Ondoren, Jon Mikel Omagojeaskoa izan zuten gaijartzaile. Jai giroko igande eguerdiko saioa izateko, nahikoa etekin atera zioten bertsolariek.

❑ **Amailo** (Markina): Auzoko jaiei kolorea eta bizitasuna eman zieten Xabier Zeberio, Gregorio Larrañaga 'Mañukorta' eta Andoni Egañak, igande eguerdi eta arratsaldez egindako bertso saioekin. Gustura kantatu zuten hiru bertsolariok.

❑ **Laudio:** Rikardo Gonzalez de Durana, Zigor Enbeita, Jon Enbeita, Iratxe Ibarra, Manolo Arozena eta Jon Sarasuak kantatu zuten, igande arratsaldean, Araba Euskarazeko ekitaldien barruan. Sarrera librean egin bazuten ere, ondoren Serapio Lopez izan zuten gaijartzaile. Jende asko bildu zen bertsolariak entzutera, gazte jendea batez ere, eta, gainera, arreta handiz jarraitu zuten entzuleek bertsolarien lana.

IRAGARKI MERKEAK (943) 46 90 22

GAZTELUKO
HERRI KULTUR ETXEA
EGUNPASAK EGITEKO EGOKIENA
JATETXEA: Primerakoa
SUKALDEA: Goxorik bada inon
BAZKARIA: 750 pta.tik gora
BAZKALONDOA: Kartetan joka daiteke
IBILALDIAK: Pasealeku eta mendi erosoak
ZERBITZUA: Paregabea
GIROA: Euskalduna eta familiakoa
Tolosatik 7 km.ra
Tf.: 943-67 27 59
GAZTELU
Adinekoentzat ezin hobea

UDA IKASTAROA
ADIERAZPEN PLASTIKOA
ROSA VALVERDEREN ESKUTIK
HAUR ETA HELDUAK
•MARGOLARITZA
•MARRAZKI
•KERAMIKA
PRIM KALEA, 43 ETLO
TFNOA: 45 90 32

IRLANDA
DUBLIN BELFAST
● Ingeles ikastaro trinkoak
● Hegaldi zuzenak Iruñea eta Bilbotik
● Egonaldiak familietan edo Unibertsitate Egoitzetan
SHANNON
Iturrama, 43, bis
Plantartea (etxe berdeak) IRUÑEA
SHANNON Tel.: 948 - 27 90 36/ 17 48 38

MOZOLOAK TXARANGA
(943) 39 40 22

31 x 15 mm
EGUN BAT 1.040 pta/42l.
ASTEBETE 5.100 pta/208l.
BI ASTE 9.000 pta/360l.

ALTZA (943) 39 43 77
MONPAS (943) 27 27 11
ORTZADAR (943) 53 66 57
SARA R. ARREGI (943) 46 46 55
BARNETEGIA / euskaltegiak

SEBASTOPOLEKO TITIRITEROAK
"GIZAR-PIZTIAK" ANTZERKIA "GAZTELU SINDIKALEAN" ZIRKO TAIDERAK
(943) 467597

MENDI IRTEERAK

● ARETXABALETA

Urbasara irteera egingo du Murrukixo taldeak ekainaren 27an. Informazio gehiago Durana kaleko 13an edo ☎79 93 74 telefonoan.

● DONOSTIA

Goi mendi eskalada ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak uztailaren 10, 11, 17 eta 18rako. Ikastaroa Midi d'Ossau eta Vignemalen burutuko da eta parte hartzeko beharrezkoa da Mendi Federatu txartela izatea. Izenematea eta informazio gehiago ☎46 14 40 eta 42 22 91 telefonoetan. Epea uztailaren 5ean itxiko da. Plazak mugatuak dira.

● IDIAZABAL

Aralarrera irteera antolatu du Idiazabal Kirol Elkarteak ekainaren 26 eta 27rako.

ERAKUSKETAK

● ARRASATE

Harresi aretoa. Iñigo Arregiren pintura erakusketa. Uztailaren 4a arte.

● BILBO

BBK kultur aretoa. Bizkaiko XXVII. Argazki Hamabostaldian aukeratutako lanen erakusketa. Uztailaren 4a arte.

Windsor galeria. Luis Gordilloren lanen erakusketa. Uztailaren 30era arte.

BBK erakusketa aretoa. Chelo Matesanzen 'La búsqueda del Insecto Palo' erakusketa. Uztailaren 4a arte.

Arte Ederretako museoa. 'Abandoibarrarako egitasmoak' erakusketa. Abuztuaren 1a arte.

Vanguardia galeria. Isabel Monge, Asun Undabeitia, Josue M. Pena eta J.C. Romanen 'Sin pincel' erakusketa. Ekainaren 30a arte.

Rekalde aretoa. Philip Guston-en marrazkien erakusketa. Uztailaren 4a arte.

Arte Ederretako museoa. 'Itsasadarra: merkatal paisaia baten irudia eta ikuspena' erakusketa zabalik egongo da ekainaren 27a arte.

Arte Ederretako museoa. 'Bilbo Arkitekturak' erakusketa. Ekainaren 29a arte.

● DONOSTIA

Etxaniz taberna. Juan Olasagastiren marrazkiak, Ostadar bilduma. Ekainean zehar.

Arrasate erakusketa aretoa. Enrique Otxotorenaren pintura erakusketa. Gaur azken eguna.

● ELGOIBAR

Kultur etxea. Jose Membrilleraren eskulanen erakusketa. Ekainaren 27a arte.

● GASTEIZ

Araba aretoa. 'Txerri ta Txerrene' erakusketa.

Pajarita aretoa. Jose Antonio Zarrajeriaren pintura eta eskultura erakusketa. Ekainaren 30a arte.

Aitor Urdangarin galeria. Evencio Cortinaren akuarelak. Bihar azken eguna.

Luis Ajuria aretoa. Rosa Guerreroren pintura erakusketa. Ekainaren 30a arte.

Amarika aretoa. Juncal Ballestinen lanen erakusketa. Uztailaren 4a arte.

Caruso kafea. Lázaro Lázaroren olioak. Ekainaren 30a arte.

● GETXO

Algortako kultur aretoa. Getxoko Antzezaleak taileretako lanen erakusketa. Ekainaren 30a arte.

● IRUÑEA

Gotorlekuko Mixtos aretoa. Ximo Amigoren pintura erakusketa. Ekainaren 30a arte.

Conde de Rodezno aretoa. Ulpiano Carrascoren pintura erakusketa. Ekainaren 27a arte.

Gotorlekuko Mixtos aretoa. Vincenç Viaplanaren pintura erakusketa. Ekainaren 27a arte.

Gotorlekuko Labe aretoa. Miguel Elizondo Martinezen pintura erakusketa. Ekainaren 27a arte.

● URRETXU

Aldaketa erakusketa aretoa. Koldo Azpiazuren 'Irimoko oroimenak' erakusketa. Ekainaren 29a arte.

JARDUNALDIAK

● BILBO

'¿Podríamos cambiar el pasado? hitzaldia eskainiko du Igor Novikov fisikari errusiarrak San Nikolas plazako BBVren Kultur Aretoan 20.00etan.

● DONOSTIA

Entzumenaren heziketarako eta jazzeko kitarra ikastaroak antolatu ditu Berminghan kaleko Jazzle musika eskolak uztailaren 12tik 16a bitartean. Parte hartu nahi dutenek oinarrizko solfeo ikasketak eginak izan behar dituzte lehen kasuan, eta baita kitarra ezagupenak ere bigarrenean. Gehienez zortzi ikasle izango dira eta izena emateko epea ekainaren 28an itxiko da. Informazio gehiago ☎28 10 71 telefonoan, astelehenetatik ostegunetara, arratsaldez.

Eva Lootz-en 'Kromoak eta Zibak' tailerra zabalik egongo da Artelekun uztailaren 1etik 31a arte. Izena emateko epea gaur amaituko da. Informazio gehiago Kristobaldegi, 14 (Loiola) edo ☎47 00 21 eta ☎45 36 62 telefonoetan.

● ERRENTERIA

'Errenteria Dantzan' astearen barruan, Errenteria Udal Dantza Eskola eta Euskadiko Baletaren arteko alkarlanerako sinaduraren inguruko mahaingurua egingo da. Udaletxeko areto nagusian, 19.00etan.

● GASTEIZ

'La presencia romana en al valle central del Ebro' hitzaldia eskainiko du Miguel Beltranek Arkeologia Museoan 19.30ean.

● URRETXU

'San Juanetako ohiturak, lehen eta orain' hitzaldia eskeiniko du Jose Mª Satrustegik kultur etxean, 19.30etan. Urretxu eta Zumarragako Zintzo-Mintzo euskaltzale elkarteak antolatuta.

MUSIKA

● ANDOAIN

Econo Christ. Gaztetxean, 19.30etan.

● BILBO

Bilboko Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskainiko du Arriaga Antzokian 20.00etan.

● EIBAR

Sostoa eta Sostoa Txiki abesbatzek San Juan kontzertua eskeiniko dute San Andres elizan, 20.30etan.

● GASTEIZ

Bizkar Hezurrak taldeak bere lehen diskoaren aurkezpena egingo du Zuloan, 12.30etan.

ARTXIBOKOA



'Hari hauskorra' Bilbon

Rikardo Arregi poetak orain arte argitaratu duen olerki liburu bakarra Bilbon aurkeztuko du. Poetak Rekalde Erakusketa Aretoan ezagutzera emango du 'Hari hauskorra' izeneko olerki bilduma. Ekitaldira joan nahi duten guztiek Erakusketa Aretora hurbil daitezke arratsaldeko zortziak aldera.

ZINEMA-BIDEOA

● BILBO

'Four for Texas'. Zuzendaria: Robert Aldrich. Arte Ederretako museoan, 17.00etan.

Bideo-arte lanak ikusgai izango dira 19.00etan Rekalde Erakusketa Aretoan.

● IRUÑEA

Austriako abangoardiako zinema eskeiniko du Nafarroako museoak egunotan, 19.30etan.

LEHIAKETAK

● ARANTZA

Logotipo lehiaketa eratu du Bortziritako Euskara Batzordeek. Zuri eta beltzez egindako lanak izan behar dira. Ekainean zehar aurkeztu behar dira honako heldide hauetan: Bortziritako Euskara Batzordeak, Arantzako Herriko Etxea, 31790-Arantza edo Ttipi-Ttapa, Berako Herriko Etxea, 31780-Bera.

● ARRASATE

'Gazteak martxan' IV. argazki lehiaketa antolatu du Udaleko Gazte Zerbitzuak. Bi kategorietan banatuko da. Lehenengoan Deba Garaiko 14 eta 20 urte bitartekoek har dezakete parte, eta bigarrenean 20tik 35 urte artekoak. Gaia: 'Gazteak martxan'. Argazkiak zuri-beltzezkoak edo kolorezkoak izan daitezke eta partaide bakoitzak gehienez 3 aurkez ditzake. Lanak Gazte Zerbitzura bidali behar dira (Udaletxea, 20500) urriaren 29a baino lehen. Informazio gehiago ☎77 00 65 telefonoan.

● ARRIGORRIAGA

VI. Argazki Lehiaketa. Gaia librea izango da eta argazkiak zuri-beltzean nahiz koloretan izan daitezke. Lanak kultur etxean aurkeztu behar dira eta epea azaroaren 30ean itxiko da. Informazio gehiago ☎671 23 61 telefonoan (kultur etxea).

● BILBO

Euskaltzaindiak aurtengo Literatura Sarien deialdia zabaldu dagoeneko. Txomin Agirre (elaberria), Toribio Altzaga (antzerkia), Felipe Arrese y Beitia (poesia), Mikel Zarate (saioa) eta Resurrección Mª de Azkue (idazle gazteentzat) dira sari hauen bost atalak. Lanak urriaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira lehengo lau mailetan, eta abenduaren 15a aurretik idazle gazteen sariari dagokionez. Aurkezpena BBKren Kultura Departamenduan egin behar da (238 apartatua, Bilbo). Informazio gehiago BBKren bulegoetan.

Euskal Herriko inguruguiroari buruzko argazki lehiaketa antolatu du Sabino Arana Fundazioak, haur eta helduen mailetan. Partaide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake. Lanak Ibañez Bilbao, 16-1 (48001-Bilbo) helbidera bidali behar dira eta epea uztailaren 16an amaituko da. Informazio gehiago ☎423 05 28 telefonoan.

● ELGOIBAR

San Bartolome jaien egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa bat antolatu da. Edonork har dezake parte, nahi duen teknika erabiliz. Diapositibiken eginikoetan izan ezik, 'Elgoibar, San Bartolome Jaiak 1993' testua agertu beharko da derrigorrez lan guztietan. Uztailaren 19an amaituko da lanak kultur etxean aurkezteko epea. Argibide gehiago eskuratzeko jo udaletxeko kultur batzordera.

● GORLIZ

Ipuin Laburren I. lehiaketa eratu du kultur etxeak. 18 urtetik beherako gazteek har dezakete parte bertan, bi mailatan banatuta, A (13 urte bitartekoak) eta B (14tik 18 urte bitartekoak). 'Gorlizeko artea' izango da idazlanen gaia, eta euskaraz zein gaztelerazkoak izan daitezke. Lanak kultur etxean (Krutzeta kalea, 5A-48.630) aurkeztu behar dira ekainaren 25a bitartean. Informazio gehiago nahi izanez gero, jo kultur etxera.

● IRUN

Dantza solte lehiakete antolatu du Meakako auzo elkarteak uzatailaren 1erako. Parte hartu nahi dutenek ☎61 43 62 telefonoan eman dezakete izena (Mikelengatik galdetu), ekainaren 28a arte.

Irun Hiria literatur lehiaketara lanak bidaltzeko epea zabalik dago jada. Ipuin, olerki edo elaberri alorreko lanek har dezakete parte, euskaraz eta gaztelera. Lan bakoitzaren hiru kopia bidali beharko dira helbide honetara: Kutxa Fundazioa, Garibai 15, 20004 (Donostia). Uztailaren 30ean amaituko da lanak aurkezteko epea. Informazio gehiago eskuratzeko jo aipatu Kutxa Fundazioaren egoitzara.

● LEGAZPI

Ipuin, bertso eta komiki lehiaketa eratu du Udal Liburutegiak bere 25. urteurrena ospatzeko. Eskualdeko edonork har dezake parte. Bi mailatan banatuko da lehiaketa. A mailan 8 eta 13 urte bitartekoak sartuko dira eta B mailan 14tik 18 urte artekoak. Lanak bidaltzeko epea irailaren 2an itxiko da. Honako helbide honetara bidali behar dira: Udal Liburutegi Publikoa. Latxartegi enparantza, 4, 20230-Legazpi. Informazio gehiagorako liburutegian bertan.

● MARKINA

'Gauzi On Hau' lehen ipuin lehiaketa antolatu du izen bereko aldizkariak. Bi mailatan banatuko da: A (17 urtetik beherakoak) eta B (18tik gorakoak). Lanek gehienez zortzi orrialdeko luzera izan beharko dute eta euskaraz idatziak izan behar dira. Aurkezteko epea ekainaren 30ean itxiko da. Lanak helbide honetara bidali behar dira: Markinako Udala, Zehar Kalea. 48270-Markina-Xemein (Bizkaia). Informazio gehiago nahi izanez gero, udaletxera jo.

● URRETXU

Anagrama lehiaketa antolatu du Urretxu eta Zumarragako Zintzo-Mintzo euskaltzaleen elkarteak. Aurkezten diren lanetan nahitaez agertu behar du 'Zintzo-Mintzo' testuak. Helbide honetara bidali behar dira anagramak: Urretxuko kultur etxea, Jauregi kalea z/g, 20.700-Urretxu. Lanak aurkezteko epea irailaren 3an itxiko da.

ANTZERKIA

● GASTEIZ

Topo taldeak. 'Monsieur Klebs y Rosalie' antzezlana taularatuko du Principal antzokian, 21.00etan.

BESTELAKOAK

● BILBO

Rikardo Arregik 'Haur hauskorra' olerki liburua aurkeztuko du Rekalde Erakusketa aretoan 20.00etan.

● DONOSTIA

Zientziaren Karpa. Grosetako Hondartzako aparkalekuan ekainaren 27ra arte.

ZINEMATOKIAK

ARABA

● GASTEIZ

AZUL 1. **'Como agua para chocolate'.** Zuz.: Alfonso Arau / 17.30 - 20.00 - 22.30.
AZUL 2. **'Sommersby'.** 17.30 - 20.00 - 22.30.
GURIDI. **'Un dia de furia'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
GURIDI. **'Made in America'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30.
GURIDI. **'Sobre la colina'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30.
GURIDI. **'El alucinante viaje...'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30.
GURIDI. **'La fuerza de uno'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30.
GURIDI. **'Recien nacido y ya coronado.** / 17.30 - 20.00 - 22.30.
MIKELDI. **'Noches salvajes'.** / 17.30 - 20.00 - 22.15.
MIKELDI. **'Rapid fire'** / 17.30 - 20.00 - 22.30.
MIKELDI. **'Jennifer 8'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
MIKELDI. **'Escapada al sur'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30.
MIKELDI. **'Viven'.** Zuz: Frank Marshall/ 17.30 - 20.00 - 22.30.
MIKELDI. **'Permanezca en sintonía'/ 17.30 - 20.00 - 22.30.**
SAMANIEGO. **'Su distinguida señoria'.** / 17.30 - 20.00. **'El manantial de la doncella'.** 22.30.
SAMANIEGO. **'El país del agua'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
SAMANIEGO. **'La asesina'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30.
SAMANIEGO. **'Aguila de acero III'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.

BIZKAIA

● BILBO

ASTORIA. **'Recién nacido y ya coronado'.** Zuz: Monty Python. / 11.15 - 17.30 - 20.00 - 22.15.
AVENIDA. **'Rapid fire'.** / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.
AVENIDA. **'Las noches salvajes'.** Zuz.: Cyril Collard / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.
AVENIDA. **'Jennifer 8'.** / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 13 gorak.
AVENIDA. **'Recién nacido y ya coronado'.** Zuz.: Monty Python. 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00.
AVENIDA. **'Made in America'.** / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00.
AVENIDA. **'Un día de furia'.** Zuz: Joel Schumacher. / 11.15 - 17.30 - 19.45 - 22.00. 18 gorak.
AYALA. Ez dago emankizunik.
CAPITOL. **'Un dia de furía'.** / 17.15 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
CAPITOL.**'Las noches salvajes'.** Zuz: Cyril Collard. / 17.15 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
CAPITOL. **'Jennifer 8'.** / 17.00 - 19.45 - 22.30. 13 gorak.
CAPITOL. **'El lado oscuro del corazón'.** Zuz: Eliseo Subiela / 17.00 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
COLISEO ALBIA. Ez dago emankizunik.
CONSULADO. **'Made in America'.** 17.30 - 20.00 - 22.15.
GRAN VIA. **'El pais del agua'.** / 18.00 - 20.00 - 22.00. 18 gorak.
IDEALES 1. **'Rapid fire'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30. 18 gorak.
IDEALES 2. **'Made in America'.** / 17.30 - 20.00 - 22.30.
IDEALES 3. **'La fuerza de uno'.** Zuz.: John Avildsen / 17.30 - 19.45 - 22.30. 18 gorak.
IDEALES 4. **'Londres me mata'.** Zuz.: Haneif Kureishi / 17.30 - 20.00 - 22.30. 13 gorak.
IDEALES 5. **'Jennifer 8'.** / 17.00 - 19.45 - 22.30.
